



ttipi-ttapa



ZOZKETA / 91



TALDE KIROLAK INDARTSU

Haurrak, gazteak, helduak... Denboraldi honetan ere, eskualdeko dozenaka eta dozenaka lagun ari dira futboleko, eskubaloiko eta errugbiaren.

Horien guztiak bildu ditu TTIPI-TTAPAK kirol gehigarrian. / 31

BIDALTZO ETXARTE

Industriaren egoera eskualdean

Eskualdeko industriaren panorama aldatzen ari da eta horri begira jarri da TTIPI-TTAPA. / 8

SINADURAK




KORO
IRAZOKI
ARBURUA / 3



AITOR
AROTZEN
ALBIZU / 3



LOREA
FLORES
COMPAINS / 4



ESTEBE
APEZETXE
MURUA / 4



NBE

Xabat Illarregi
Nafarroako bertsolari
txapeldunarekin
kontu kontari / 6

EGUBERRI ON!

Hauze duzue aurtengo azken aldizkaria. 2026ko ilbeltzaren 15ean hartuko duzue hurrengo TTIPI-TTAPA.

Urte
berri
on!

ALKAIN
SUKALDEAK

ALKAIN HONDARRIBIA
Amutalde kalea, 9
alkain.com

600 M²-KO
DENDA
BERRIA

Abenduaren 19tik
APROBETXATU
IREKIERA DESKONTUAK



Zuregandik oso hurbil



Deitu edo ekarri zure faktura, eta argindarraren eta gasaren eskaintzarik hoberena aurkitzen lagunduko dizugu, egiatan aurrez dezazun



Aholkularitza zerbitzurik hoberena



Kontrolatu zure fakturak gure app intuitiboarekin



CHC klubak, markarik hoberenetan deskontuekin



Iraupen konpromisorik gabe

Bisita gaitzazu!

848 688 707

Emilio Arrieta k.,25 - 2. D, Iruñea
belamendia@chcenergia.es

AGENDA '25'26

ABENDUA URTARRILA

BERA LESAKA





Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

ARGAZKI ERAKUSKETAK

BERA
Azaroaren 22tik abenduaren 28ra
***Larunbatetan eta igandetan**
Ni naiz, Idoia Idoia Telleria Maritxalar
 17:00-20:00 | Labiaga Ikastolako areto nagusia
 Ant: Labiaga Ikastola

Abenduaren 10etik urtarrilaren 23ra
La Rhun-E
 14:00-20:00 astelehen, asteazken eta ortziraletan
 18:00-20:00 astearte eta ortzegunetan
 Herri liburutegia *abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra itxita

LESAKA
Abenduaren 12tik urtarrilaren 25era
FLUXU Arte Garaikideko Zirkuitua Nafarroan

ABENDUA

21 **IGANDEA**
LESAKA
 10:00 Artisau azoka
 12:00 Kalejirak

16:30 Olentzeroz Olentzero
 Olentzero nola egiten den ikusi nahi?

24 **ASTEAZKENA**
LESAKA
 Olentzero eta Jaiotzen Lehiaketa
 12:00 | Plaza Zaharra

BERA
Olentzero eta Mari Domingi
 16:00 | Agerratik, Tamotenetik eta Itzetik abiatuta
 17:30 | Herriko etxeko plazan bilduko dira
 *Eguraldi berrari eginez gero 17:30ean Estegara pilotalekuan
 Ant: Gure Txokoa

27 **LARUNBATA**
BERA
 Solasaldia
Patxi Vila, nire egunerokoa lehiaketan eta lehiaketatik kanpo
 18:00 | Kultur etxea | Ant: Gure Txokoa

LESAKA
Bertso eskolaren XXVI. Taldekako Lehiaketa
 Ant: Bortzirietako Bertso Eskola

31 **ASTEAZKENA**
LESAKA
 Diostesalbe Kalejira
 Ilunabarrean

BERA
Glin-glan
 15:00 | Herriko kaniketan barna
Dios te salve
 18:00 | Herriko kaniketan barna | Ant: Gure Txokoa

URTARRILA 2026

4 **LARUNBATA**
LESAKA
 Dokumentala
'Gutun bat Kottori'
 18:00 | Harriondoa Kultur Etxea
 Antolatzailea: Arrano Elkarte

5 **ASTELEHENA**
LESAKA
 Errege Magoen Kabalkada

10 **LARUNBATA**
BERA
MENDI EGUNA
 Santa Barbarara ibilaldi gida-tua, binakako kronoigoera...
 Ant: Manttale

16 **ORTZIRALEA**
BERA
 Filma eta solasaldia
Ombuaren Itzala
 19:00 | Kultur etxea

17^{eta} 18 **LARUNBATA IGANDEA**
LESAKA
San Anton

22 **ORTZEGUNA**
LESAKA
 Poesia errezeitaldia
Itzalen Tektonika
I. Borda, J. Irazoki
 Liburutegia

23 **ORTZIRALEA**
LESAKA
 Artistarekin topaketa
FLUXU
 18:00 | Herri liburutegia

BERA
Liburu aurkezpena Kateriñe
 18:00 | Herri liburutegia

24 **LARUNBATA**
BERA
 Antzerkia
Izeba Txirrita
 (Zelako kultur ideiak)
 19:00 | Kultur etxea



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Sagar kanta bat

Anana, meloia, eta kiwia ospetsu horien artean, non dugu galduta gure sagar xumea? Euskaldunen kulturaren eta bizimoduaren hain garrantzitsua izan dugun fruta hau, ez ote dugu baztertua? Euskaldunen bekatuak sagarretik sortzen zirela zioen Pierre De Lancre fanatiko hark. Lapurdirat etorri eta izitu zen, bazterrak sagardiz beteta ikusita, sagar aunitz jaten genuela, eta sagarra edan ere egiten genuela! Pomeloa, marakuia, mangoa... Fruta dendako «izarrak» dira, baina ez dezagun ahantzi sagar zukuak itsas bidaletan egin zuen mirakulua: itsas gizon aunitz eskorbuto eritasunez hiltzen zen orduan, ez, berriaz, euskaldun marinela, hauek sagardoaren C bitaminarekin babestua baitziren. Platanoa, laranja, mandarina... garai batean exotikoak eta luxuzko frutak ziren baina... gure sagar konpota edo sagar errearekin konparaziorik ez dute! Pentsa fruta hau zein estimatua den gure kulturaren, sagar dantza bat ere baitauek. Goazen *aldapeko sagarraren adarraren punta* hartara eta kanta dezagun ozenki: *txoria zegoen kantari...* eta aupa Euskal Herriko sagarra!!!

«PENTSA SAGARRA ZE ESTIMATUA ZEN GURE KULTURAN»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Bi anaia eta bi mundu plaza berean

(B)Illarregitarren bertso erakustaldiaren bezperan izan zen Pecostarren kontzertua Arenan. 80ko hamarkadan beraien karpetak ilehoriaren eta beltzaranaren (ileuridin eta burusoil *mediokre* bihurtuak) argazkiekin apaintzen zituzten 6.000 nerabe izandakoen artean, zenbatek ote zuten biharamunekoa finalaren berri? Euskara? Herria? Bertsoa? Zorionak Xabat!

NABARMENTZEKOAK



XABAT

ILLARREGI MARZOL

NAFARROAKO TXAPELDUN



UGAITZ

ELIZALDE

ITURENGO PILOTARIA

Xabat Illarregi Marzol leitzarrak irabazi zuen Nafarroako bertsolarien txapelketa azaroaren 29an Iruñean. Harekin buruz burukoa jokatu, bigarren sailkatu zen Joanes anaia.

Garfe enpresak antolatutako III. Open txapelketak irabazi du Iturengo aurrelariak, Arbizurekin bikote eginez. Azaroaren 20ko finala 22-12 irabazi zieten Pradori eta Merino II.ari Lesakan.

GIBELERA BEGIRA



2015-12-10 · TTIPI-TTAPA · 652 zk.

Donato Larretxearen azken apustua

Sei urtez erronkarik onartu gabe egon ondotik, 2015eko abenduaren 20an jokatu zuen Arria V.aren aurkako apustua Donato Larretxea aizkolari arantzarrak. Apustu bezperan elkartu zen TTIPI-TTAPAREKIN, eta apustuari eta prestaketari buruz solastatu zen. Abenduko azken apustua izan zitekeela aurreratu zion aldizkariari, eta hala izan zen: «Berrogeita hamabortz urte dauzkat, berrogeita hamaseira noa eta ez dago ibiltzerik joko munduan. Erakustaldi eta lehiaketetan ibiliko naiz baina apustuak beti badu bestelako tentsioa, tartean diru jokoa, eta orduan etortzen dira estutasunak». Arria V.enari irabazita, amaiera borobila eman zion apustuetan egindako bideari Larretxeak.

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Leire Mihura,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Irune
Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Zabalo, Nerea Mortalena, Jean
Louis Bessonart, Ganex
Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Oier
Zulaika, Maite Bertiz, Tere Arretxea,
Kontxi Agerre, Xabi Olazar, Iratxe
Otxandorena, Aitziber Zozaia.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

5.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreka Zerbiltzuen
Mankomunitatea.

2025eko harpidetza sariak

Bortziarik, Baztan, Urdazubi eta Malerreka	50€
Leitza	44€
Hego Euskal Herria	54€
Ipar Euskal Herria, Europa	120€
Amerika eta Australia	160€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

Agroekologiaren aldeko lan publikoa

Bizi duinak izateko oinarritzko beharrak asetzea ezinbertzekoa da. Gizakien oinarritzko eskubideetan, bertzeak bertze, hezkuntza, elikadura, etxebizitza eta osasun arreta aipatzen dira. Gero eta gehiago, energia eskuragarri izatea ere eskubide bezala proposatzen da. Dena dela, badakigu, eskubide diren horiek egungo sistemaren merkatu logikan sartzen direla, eta eskubide izatetik urruti gelditzen ari direla. Kasurik argiena etxebizitzarena da, gazteek (eta ez hain gazteek) etxebizitza duinetara sarbidea izateko duten zailtasunarengatik. Euskal Herrian, zorionez, oraindik hezkuntza eta osasun sistema publikoak ditugu, nahiz eta hauetan ere pribatizaziorako joera handia den. Eta energia zer erranik ez, espekulaziorako baliabide bihurtua aspalditik. Energiaren kostu handiaren eraginez, gero eta pertsona gehiago daude pobrezia energetiko egoeran; Nafarroan, egun, 18.000 etxetan pairatzen dutela estimatzen da.

Krisi ekosozialarekin kezkatua gauden anitzek argi dugu gaur egungo ereduak aldatu behar dela planetak dituen muga barrunean bizi ahal izateko, eta etorkizuneko biziak duinak eta bizigarriak izan daitezken. Alde horretatik, interesgarria izan zen azaroaren 15ean Baztango Talde Ekosozialak eta Akelarre kulturguneak antolatutako hitzaldia. Bertan, Jason Hickelek, unibertsitateko irakasle eta deshazkundearen defendatzaileak,

«ELIKAGAIEN EGUNGO EKOIZPEN ETA KONTSUMOA KALTEGARRIA DA»

azaldu zuen, trantsizio ekologikoa sustatzeko neurri berdeek neurri sozialak ere izan behar dutela porrot egin ez dezaten. Hau da, aldaketa klimatikoa edo biodibertsitate galera ekiditeko ezarritako neurriek langile klasea edo

sektore pobretuenen beharrak ere kontuan hartu behar dituztela, edo bertzela, ez dutela arrakastarik izan.

Hickelek bizi dugun egoerarentzako irtenbideen artean enplegu publikoaren bermea aipatu zuen. Proposamen horrek Estatua jartzen du lanpostu duinak eta egokiak sortzeko eragile gisa, gizarte onura berezia duten ekoizpen sektoreetan. Honela, estrategia egokia izanzen litzake estatuak energia berriztagarriei edo etxeko efizientzia energetikoari lotutako enpleguak sortzea, hain zuzen ere hauek hain errentagarriak ez direnez merkatuarentzat ez direlako interesgarriak, nahiz eta sozialki eta inguruari begira hagitx garrantzitsuak izan.

Horretan pentsatuta, nekazaritzan eta abeltzaintzan jarri nuen fokua. Azken finean elikadura osasungarria oinarritzko eskubide bat da, baina badakigu egungo elikagaien ekoizpen eta kontsumo ereduak guztiz kaltegarria dela, bai sozialki, bai ekonomikoki eta bai ingurugiroari dagokiola. Elikagaiak gero eta garestiagoak dira, lehen sektorea gainbeheran dago: gero eta abeltzain eta nekazari gutxiago eta prekarizatuagoak. Agroindustriaren ereduak nagusitu ahala, Nafarroako lur eta urak gero eta kutsatuagoak ditugu. Bada, agroekologian oinarritutako nekazaritza eta abeltzaintzarako enplegu publikoen sorrera aldarrikatzen hasi beharko genuke? Abeltzain eta nekazariarentzako baldintza duinagoak sortzeko potentziala luke eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza ereduak eraldatzeko aukera ere izan zitekeen.



ESTEBE APEZETXE MURUA

Lehiakortasunaz

Boulevardeko helmuga zeharkatu eta poz ttipi batek leundu du zure gorputz nekatua. Azken hiru hilabeteetako entrenamendu eta esfortzuek merezi izan dute, eta lortu duzu zeure buruari paratua zenion erronka gaitzitzea. Behobiatik Donostiarako lasterketa ezaguna, segur aski Euskal Herriko ezagunena, akitu duzu. Gipuzkoa plazatik lagun minarekin zoriontasun momentu hau konpartitu nahi izan duzu eta hark honako mezuarekin erantzun dio zure whatsappari: «Zenbatean egin duzu?».

Kapitalaren sistemak gure bizimodua aspalditik baldintzatzen du. Lanean gehiago produzitzera eramaten gaituzten estrategiak eguneroko ogia dira; lehia enpresen artekoa izatetik, pertsonen artekoa izateraino. Gero eta gehiago produzitu, orduan eta gehiago kontsumitu, eta alderantziz. Akabailarik ez duen zirrika eroa. Ez da deus berria.

Baina azken urteetan lehia horrek lan mundutik denbora librea ere salto egin duela begien bistakoa da, eta bereziki kirolean gertatzen dela erranen nuke. Ez da kasualitatea aisialdian gero eta kirol gehiago praktikatzeko duen jendea ikustea. Praktika hau aunitzetan ez da osasunarekin edo zoriontasunarekin lotzen ordea. Eta zoriontasuna izatekotan bizikletaz mugitzen ditugun watt-ek, eskalatzen dugun graduak eta lasterka kilometroa osatzeko behar ditugun segundoek ematen digutela iduri du. Luzaz lehia ezarekin eta abenturarekin lotua egon

«LEHIAK LAN MUNDUTIK DENBORA LIBRERA ERE SALTO EGIN DU»

den mendizaletasunak ere *trail running*ari utzi dio lekua. Mendian pasatzen dugun denboraren kalitateak baino gehiago, kantitateak hartu du garrantzia. Ahalik eta gutien, ahalik eta luzeen, ahalik eta gogorren...

Barneko kirolak praktikatzeko dituztenak ere ez dira norgehiagoka horretatik eskapatzen. Kasu honetan jendeaz lepo egoten diren gimnasioetan gure gorputzak fintzen ditugu, gero sare sozialetan txokolate tableta, ipurmasail, beso eta bularraldeak gainerakoei erakusteko. Irudiaren lehiaketa da, itxura fisikoarena, baina funtsean aitzinetik aipatu ditudan bezalakoa.

Testuinguru honetan doike, multinazionalak irabazten dute. Azken teknologiak bizikletetan, lasterka egiteko zapatiletan, jantzietan... eta azken teknologiek aurrerapenik izan ez badute zer bait asmatu eta aitzinera! Nutrizioarekin ere halatsu gertatzen da. Nork ez du inguruan egiten duen kirolean errendimendu hobea emateko zenbait produktu kontsumitzen dituen (legezkoez ari naiz) ezagun edo lagunik? Eta dena zertarako, bada astelehenean goizeko zazpitan berdin-berdin lantokira joateko.

11 GALDERA LABUR

ANE ETXALAR ZUGARRAMURDI SUNBILLAKO GAZTEA

«Eguberriek xarma berezia dute niretzat»

Aurkeztu zeure burua

Bere ingurukoekin egotea eta planak egitea gustatzen zaion Sunbillako gaztea.

Zein afizio dituzu?

Eskubaloia eta bertsolaritza. Kirolerako afizioa nire ahizparengandik heldu zait. Bertso-laritza eskolan Estitxu Aroze-narekin ezagutu eta gero bertso eskolan ere ibili nintzen.

Bertsotan arituz edo entzule, noiz gusturago?

Noizean behin bertso paperen bat idazten badut ere, entzule gisa nahiago. Hala ere, bertso-tan aritzera bueltatzeko txirrinta beti hor dago.

Ingeniaritza industrial ikasten ari zara.

Betidanik gustatu izan zaizkit eskulanak eta letretan baino zientzietan gusturago aritu

izan naiz. Gainera, ingeniari batek hamaika lanetan akitu dezake eta ateak zabalik uzteak konfiantza eman zidan bide hori hartzeko.

Astea etxetik kanpo emanda, gustura itzultzen zara herrira?

Bai. Iruñea ez dago urruti, baina nire hemengo eta hango errutinak hagitz desberdinak dira eta ortziraletan herrira gogoz bueltatzen naiz.

Zer du soberan Sunbillak?

Kontraerran bat dela dirudi, baina soberan duen hori bere ezaugarrikerik ederrena ere badela uste dut. Sunbillan beti baduzu jende, plan eta errutina eroso eta lasaia. Lasaitasun hori du alde eta kontra. Luza-roan erosoegi egon zaitezke eta tarteka zure txokotik ateratzea ona dela uste dut.



Proposatu Sunbillan egiteko mendi itzuli bat...

Suspirotik Estamoa alderako buelta, ez da jende gehiegi ibiltzen eta hagitz polita da.

Astebururako planik hoberena?

Goizean mendira joan eta amaxirekin bazkaldu. Ilunabarrean lagunekin gelditu eta ondotik inguruko herriren batean bestarako aukerarik badago, hobe!

Eguberri zalea zara?

Bai, hagitz. Xarma berezia duten egunak dira eta azkeneko urteetan gehiago. Familiako

denak elkartzea geroz eta zailagoa da eta data hauetan elkartzeko aprobetxatzen dugu. Urtearen balantzea egiten duzu abenduaren 31n?

Ia oharkabean, baina nostalgiak harrapatzen nau eta urtezahar edo urte berri egunek daukadan guztian eta ez daudenetan pentsatzera eramaten naute.

Urte berrirako desio bat?

Nire jendea ongi egotea eta azkenaldian zabaltzen ari den gorroto eta mendeku nahia apaltzea.



1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634




Albornozak

Mahai oihalak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi azal nordikoak

«Finalean bizi izandakoak amets guztiak gainditu ditu»

XABAT ILLARREGI MARZOL NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELDUNA

Azaroaren 29an jokatu zuten Iruñeko Nafarroa Arenan Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Laugarren finala zuen leitzarrek eta txapela eskuratu zuen


ENERITZ IRAOLA LEITZA

Historian lehenbiziko aldiz, buruz burukoa bukatu aurretik jakin zen txapeldunaren abizena; baita txapelak Leitzarako bidea eginen zuela ere. Joanes eta Xabat Illarregi Marzolek jokatu zuten buruz burukoa eta sei puntu eta erdiko aldearekin, Xabatek lortu zuen garaipena. Hasierako zurrumbilao zertxobait baretuta, Ttipi-Ttapak egindako galderak erantzun ditu Nafarroako bertsolari txapeldunak. **Zorionak Xabat. Zer moduz doa txapelketaren ondorena?**

Orain lasaixeago nago, baina lehenbiziko hiru egunak oso mugituak izan ziren. Batera eta bestera ibili beharra, hainbeste elkarrizketa... txapelak berekin dakar hori guztia eta nekagarria izan da. Kalean jendeari ere merezi duen erantzuna eman nahi diozu... eta kontuan izan behar da txapelketak berez sortzen duen nekea. Baina, batez ere, pozik nago eta hemendik aurrera disfrutatzen saiatuko naiz.

Finala ikusi eta aztertzeke aukera izan duzu?

Bai eta, egia da, barrutik sentitu nuena eta geroa ikusitakoa diferentea izan dela. Barrutik lan asko egitea tokatu zitzaidan, ofizio eta bertso bakoitza borrokatzea eta hori horrela denean, batzuetan, ez duzu emaitzarekin gehiegi disfrutatzen. Saioa entzun ondotik, pozik nago egindakoarekin, final nahiko orekatua aterazitzaidan.



Xabat Illarregi agurreko bertsoa abesten. J. SANTESTEBAN/NBE

Orokorrean, aitzakiarik gabeko finala izan zela uste dut eta plazak merezi zuen saioa eskaini genuela.

Eroso ikusten zitzaizun oholztan. Ez zen bereziki arratsalde motza izan. Ez nuen sufritu, baina neure buruarekin borrokan aritu behar izan nuen arratsalde guztian zehar, neretik eman ahal izateko.

Nola bizi izan duzu txapelketa? Hiru urteko ziklo baten hasiera bezala hartzen nuen aur-

tengo txapelketa. Hau da, hurrengo urtean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia dago eta bi urte barru, berriz ere, Nafarroakoa. Hiru urte segidan borrokatzea tokatuko zaigu. Horregatik, beste pauso bat eman nahi nuen, beste aurpegi bat erakutsi eta horrek, nahigabe ere, neure buruari tentsioa eta presioa gehitu dio. Hala ere, uste dut nahiko ongi gestionatzen asmatu dudala.

24 urterekin jantzi duzu Nafarroako txapela.

Gaztea naiz, baina ez da ibilbide baten hasiera-hasiera ere. Nafarroako laugarren txapelketa zen, Euskal Herrikoan ere kantatu nuen. Urte asko daramatzat bertsotan, baina ez dut ikusten ibilbide baten bukarako sari bezala ere. Lanean segitzeko indarra ematen dit honek eta aurrera begira uste dut urte asko gelditzen zaizkidala bertsotan.

Esan izan duzu bertsolaritza afizioa dela zuretzat.

Egunerokotasunean lantzen dudana zerbait da, baina ez profesionalki edo helburu konkretu bat lortzeko. Txapelketa ez da bertsolaritza erakartzen nauen bakarra, bertsolaritza orokorrean gustatzen zaizkit. Nire bizimoduaren parte da, gustatzen zaidalako. Bertsozaleak izan gara betidanik etxean eta umetatik aritu gara bertsotan. Helduen bertso eskolan hasi ginenean, hamahiru bat urterekin, bertso eskolan lagunak egin genituen eta lagun horiekin elkartzen segitzen dut bertsotan aritzeko. Plaza beste modu batera ikusteko aukera ematen dizu horrek, gozatzeko eta ongi pasatzeko aukera eta bertsotan gozatzen ari bazara, erraz antzematen du entzuleak.

Finaleko lehenbiziko eta azken ariketa, Joanesekin hasi eta buka.

Ederra izan zen. Finaleko gauzarik politena hori izan zela uste dut, benetan. Aste guztian esaten genuen, ea lehenbiziko ofizioa elkarrekin tokatzen zaigun. Tokatu zitzaigula ikusi genuenean, esan genuen: arratsaldea behintzat ongi hasi da. Ikusten genuen buruz burukoa elkarrekin kantatu genezakeela, Saioari ere aukerak ikusten genizkion. Hori izan zen lehertu zen momentua eta betirako geldituko zaidana. Bizitzan behin bizi nahi nuen zerbait zen eta espero dut azkenekoa ez izatea.

Zenbatetan amestu duzu horrekin?

Beti imajinatzen duzu, baina ez duzu sinisten guztiz pasa daitekeenik. Beldur horretatik,

badaezpada ez dut gehiegi imajinatuko eta... bazen noiz-bait biok pentsatu genuen zerbait. Bertso eskolan ere esaten ziguten, ea aurten den... ez dizut gezurrik esanen. Pixka bat imajinatzen ere joan ginen. Eta nik uste imajinatzen duzun hori gertatzea errazagoa dela, imajinatzen ez duzuna baino. Eta mila modutara imajinatu ta ere, oraindik eta ederragoa da gertatzen denean. Plaza lehertu zen, gu lehertu ginen eta inoiz amestutakoa gainditu zuen.

Finaleko zein ariketa nabarmen- duko zenuke?

Zaila zait bat aukeratzea. Bi partetan banatuko nuke saioa. Buruz burukoaren aurretik, sueltoena sentitu nintzena bakarkakoa izan zen. Doinua- rekin apustua egitea erabaki nuen. Ausartu nintzen nire burua estutzero, eta uste dut nahiko ongi atera zitzaidala. Eta buruz burukoa orokorrean hartuko nuke eta hor nik uste sueltoago aritu nintzela eta emaitza polita izan zela.

Santuen paperean aritu zineten, puntuka.

Ez zen gairik errazena, ez zelako gai oso erreala. Puntuka elkarrekin asko aritu izan gara, konplizitate hori badugu eta uste dut hortik atera genuela lana aurrera eta polita izan zela publikoarentzat.

'Harrera gozoa egin dizute' izan zen ganbarako gaia. Argi izan zenuen nondik heldu gaiari?

Aukera asko etorri zitzaizkidan burura. Badakizu buruz burukoa puntu gorena dela final batean eta azkeneko bakarkakoa zen. Ez nuen edozein gai hartu nahi ere. Presoena etorri zitzaidan, adineko bat zahar etxera sartzen dena... ume baten paperetik hartzea bururatu zitzaidan eta duda egin nuen horrekin aurrera egin edo ez. Ez delako gai erraza, hori bizi duen pertsona batek, ez duelako hain sinpleki bizi egoera, baina uste dut poetik jarritako gai bat zela. Irudia etorri zitzaidan segituan, nola hartu dezaketen beste



Sei puntu eta erdiko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Joanes Illarregi Marzoli. JOSU SANTESTEBAN/NBE

ikaskideek urtebete ospitalean pasa duen ikaskide bat. Gustura gelditu nintzen emaitza- rekin.

Agurrean, euskara jarri zenuen erdigunean.

Gogoa neukan gai hori erdigunera ekartzeko, baina ez edozein modura, alarma pizte hori garrantzitsua iruditzen zitzaidan. Argi uztea, ez badugu ezer egiten, herri hau ez dela guk nahi duguna izanen. Mezua ez da oso positiboa, ez dugulako oso egoera ona bizi, baina uste dut behar dugula horrelako hausnarketa batzuk erdigunera ekartzea eta zer pentsa eman badu, askoz hobe! **Oholtzan aldaketa ikusi zen.**

Egia da aurpegi berriak zeudela finalean eta hori beti dela

positiboa. Ez nintzela ni gazteena, aurreko hiru finaletan bezala. Buruz buruko berria zela. Bazeudela zantzu batzuk, arnas bat ekar dezaketenak, beste ikuspegi bat eman dezaketenak edo indartze bat ekar dezaketenak. Horrek ez du esan nahi dena aldatzen denik. Horrek ez du esan nahi batzuk gutxietsi behar direnik edo besteak gehiegi puztu. Uste dut ematen duela irudi positibo bat aldakorra delako txapelketa eta uste dut hori ona dela, ez dagoelako eredu edo erreferente bakar bat. Orain Eki eta Ekhiñe finalean sartu dira eta horiek ere, gazteentzat badira erakarpen bat. **Zer diote bertso eskolako zure ikasleek?**

«EUSKARA ERDIGUNEAN JARRI ETA ALARMA HORI PIZTU NAHI NUEN»

«TXAPELKETA ALDAKORRA DELA IKUSI DA ETA ONA DA HORI»

Asko poztu dira. Finala ikusten egon ziren batzuk eta horrek asko pozten nau, guk ere ume- tan horrela bizi izan genuela- ko bertsolaritza. Gure inguru- ko jendea horrelako egoeratan ikusiz, gure eredu ziren horiek miresten genituen eta horrek lotu gintuen hasiera batean bertsolaritzara. Hurbilean genituen erreferente horiek eta nik uste dut horretarako balio baldin badu ederra dela. Hiru leitzar ginen finalean eta hori ere ederra da herri honentzat, erakusten duelako azken urteetan bertso eskolan egin den lana ona dela.

Euskal Herrikoa duzu orain jomugan?

Lehenbizi pixka bat deskantsatuko dut, baina segituan etorriko da Euskal Herrikoa. Nire burua hor kokatzen hasi beharko dut: zer eskaini die- zaiodan txapelketari edo zer bilatu nahi duan txapelketan ikusi... Gogotsu nago, ilusioz. Ez diot presio gehiegirik sartu nahi neure buruari.



Legasako Arcelor Mittalen lantegia ez ixteko eskatuz, joan den maiatzean egindako manifestazioko irudia.

Industriaren egoera aldatzen ari da

Aldaketa ekarri zuen industriak eskualdera, eta urte azkarkitan indar handiko sektorea izan da. Gaur egun, ordea, egoera ez da duela hamarkada batzuetakoa. Industrian lanean ari diren langileen kopurua jausten ari da; batez ere, metalgintzan sumatzen da gainbehera

G. PIKABEA

Eskualdeko industriaren panorama aldatzen ari da. Urte aunitzetan industriaren ikur izan diren enpresen martxa ez da lehengoa. TTIPI-TTAPAREN eremuan langile gehien izan dituzten lantegietako datuei erreparatzea aski da horretaz ohartzeko. Konparazio batera, Lecta enpresaren Leitzako Torraspapel paper lantegian –garai bateko Sarriopapel– 1.500 bat langile izatera ailegatu ziren, eta gaur egun, 350 bat dira lanean. Bortzirietan eta Bertizaranan, berriz, garai bateko Laminaciones lantegian –gaur egun Arcelor Mittal–, urterik hoberenetan, 2.000 langile baino gehiago aritu ziren: 1.400 bat Lesakako lantegian, 585 inguru Zalaingoan eta 190 bat Legasakoan. Gainbehera begi bistakoa da: Lesakako Arcelorren

210-220 langile dira gaur egun, Zalaingoan 295 langile eta Legasako lantegia itxi dute.

Eskualdeko industriak hartu duen azken kolpe handiena izan da Legasakoa. Baina ez da hondarreko urteotan itxi duten industriako enpresa bakarra. Nafarroako Enpresen Behato-

kiaren azken datuen arabera –datuak 2024koak dira–, 164 enpresa dira eskualdean industrian ari direnak, eta 2021ean, adibidez, 187 ziren.

Langile kopuruari dagokionez, Nastat Nafarroako Estatistika Erakundearen datuetan ageri denez, 2022tik honat puntu bat

jautsi da industrian ari direnen kopurua: 2.343 ziren 2022an (langile guzaien % 22,67) eta 2.252 dira egun (% 21,70). Eta bertze datu bat: eskualdean industrian ari diren lantegiak 160tik goitik baldin badira ere, langileen hamarretik zazpi baino gehiago hamabi lantegitan pilatua da. Leitzako Torraspapel (350 bat langile), Zalaingo Arcelor Mittal (295), Lesakako Arcelor Mittal (210-220), Berako Martiko (160) eta Berako Caveo (146) dira langile gehien dituztenak.

Edozein moduz, industria hizpide hartuta, badira kontuan hartu beharreko aldagaiak. Bertzeak bertze, industriako azpisektoreak, herrien arabera industriak duen garrantzia, eta generoa, sektore maskulinizatua baita.

Jardueraren arabera


Jardueraren arabera, egoera aldakorra da. Batez ere urterik emankorrenetan ehunka eta ehunka langile hartu dituen metalgintzan sumatu da langile kopuruaren behekitzea. Baina bertze azpisektore batzuetan, elikagaien industrian edo industria farmazeutikoan, adibidez, hazten ari da langileria.

Herriaren alde

Sektoreka, eskualde osoan zerbitzuen alorrak ditu langile gehien: langileen % 64,07 horretan ari baitira. Industria da zerrendan hurrengoa, langileen % 21,70ekin; eraikuntzan ari direnak % 7,95 dira eta nekazaritzan % 5,42. Nastaten ara-

Industriaren bilakaera eskualdean





Lantegi nagusiak eta sindikatuen ordezkariak

Lantegia	Langileak	ELA	LAB	UGT	CCOO	Independ.
Alco (Bera)	58	2				1
Arcelor Mittal (Lesaka)	210-220	4	1	3	1	
Arcelor Mittal (Zalain)	295	5	2	3	3	
Caveo –Funvera– (Bera)	146	7	2			
Corenso Leiza –Mandriladora– (Areso)	43		3			
Hidro Rubber (Lesaka)	79					2
Lozy's (Lekaroz)	70-75	5				
Maderas Mejoradas I. –Gurea– (Bera)	46	1	2			
Martiko (Bera)	160					1
Savera (Bera)	80	7			2	
Torraspapel –Sarrio– (Leitza)	350	3	10			
Verkol S.A. (Bera)	57		5			
GUZTIRA	1.600*	34	25	6	6	4

*OHARRA: 40 LANGILETIK GOITIKO LANTEGIAK DIRA ETA LANGILE KOPURUEN DATUAK GUTTI GOITI-BEHETIKOAK DIRA. ITURRIA: SINDIKATUAK

bera, zehaztu gabeko lanbideetan % 0,86 ari dira.

Baina herriz herri bada aldea. Aranon, Urdazubin eta Zugarramurdin, adibidez, bertzeetan baino koska bat goitiago dago zerbitzuen sektorea: Aranon langileen % 88,89 alor horretan ari dira, Zugarramurdin % 76,77 eta Urdazubin % 73,91. Eta hara non, industriak hiru herri horietan du pisurik ttikiena: Aranon (0), Zugarramurdin (% 5,05) eta Urdazubin (% 7,07). Balantzaren bertze aldean, berriz, lau herri: Industriak indar handiena Areson (langileen % 34,33 industrian), Igantzin (% 33,06), Beintza-Labaienen (% 32,43) eta Leitza (% 32,22) du. Gainerakoan, zerbitzuetan langile guttien dituztenak Oiz (% 40),

Eratsun (% 42,11), Ezkurra (% 46,88) eta Beintza-Labaien (% 47,30) dira.

Bertzalde, nekazaritzan langile gehien dituzten udalerriak Urroz (langileen % 16,67 sektore horretan), Beintza-Labaien (% 10,81) eta Urdazubi (% 10,33) dira, eta guttien dituztenak Bera (% 1,78) eta Doneztebe (% 1,94). Eraikuntza, berriz, Eratsunen (langileen % 17,54 eraikuntzan), Iturenen (% 14,61) eta Oizen (% 14,33) da nagusi. Eta langile guttien, Elgorriagan (% 3,49), Beintza-Labaienen (% 5,41), Aranon (% 5,56), Lesakan (% 5,76) eta Beran (% 5,90) ditu.

Sektore maskulinizatua

Generoa ere aipatu beharrekoa da, emakumezkoek industrian

du ten presentzia apala baita. Gaur egun, eskualdean industrian ari diren langileetatik % 21,49 dira emakumezkoak.

Ez da desoreka bakarra. Emakumezko eta gizonezko langile gehienek zerbitzuetan lan egiten badute ere, bada aldea batetik bertzerara: Emakumezkoetan, % 83,13 zerbitzuen alorrean ari dira eta sektore horretan ari diren gizonezkoak % 47,04 dira. Emakumezkoetan, % 9,89 dira industrian ari direnak, eta gizonezkoetan, % 32,25; nekazaritzan, emakumezkoen % 4,11 ari dira eta gizonezkoetan, portzentajea % 6,60koa da; zehaztu gabeko lanetan ari direnak % 1,45 dira emakumezkoetan eta % 0,33 gizonezkoetan; azkenik, emakumezkoen

% 1,43k lan egiten dute eraikuntzan eta gizonezkoetan dezente gehiago dira: % 13,77.

Zer diote sindikatuek?

Egoeraz hausnartu nahian, eskualdean ordezkariak duten sindikatu nagusien atea jo du TTPI-TTAPAK. Asier Calderon LAB sindikatuko Nafarroako industria arduradunarekin, Juanma Altzuarte UGTko Baztan-Bidasoko ordezkariarekin eta Eva Ziauriz CCOOko Nafarroako idazkari nagusiarekin bildu da, baita ELAkoekin ere. Sindikatu honek ardurak eremuka banatuak dituen, bi ordezkari ageri dira, Jon Basterra Oarso-Bidasoko industria arduraduna eta Gorka Vierge Leitzaldeko eta Sakanako arduraduna. →

«Dagoena mantenduta bertze industria mota batzuk garatu beharko lirateke»

EVA ZIAURRIZ CCOO-REN NAFARROAKO IDAZKARI NAGUSIA

CCOO sindikatuak Lesakako eta Zalaingo Arcelor Mittal lan-tegietan eta Berako Saveran du ordezkaritza, eta horietaz aritu da Ziaurriz. Bere hitzetan, «Saveran, ez dugu arazorik aurreikusten», eta Arcelorren «egoera nahiko egonkorra da. Urteak daramatzate enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak aplikatzen, eta beraz, lan karga ez da handia. Zalainen, lan gehiago dute, baina aurten aurreikusi baino guttiago izan dute». Hala ere,

«ez dugu atzendu behar mul-tinazional batez ari garela», azpimarratu du: «Galerak izan gabe ere, halako enpresek era-baki drastikoak hartzen dituzte, eta horrek ziurgabetasuna sor-tzen du». Orokorrean, industrian, «metalgintza eta autogintza sufritzen» ikusten ditu, «Europa eta mundu mailako aldaketen» eraginez. Aldiz,«elikagaien industria hazten» ari dela irudi-tzen zaio, «indartsu» dagoela. Joera horrek eskualdeko indus-trian duen eragina aipatu du:



CCOOko Eva Ziaurriz Noain.

«Nafarroa iparraldean industria tradizionala da nagusi, metal-gintza, eta hori da gehien sufritzen ari dena. Elikagaien indus-tria gehiegirik ez dago, eta beraz, eskualdeko industria ez da

garatzen ari». Hori da bere ustez, ahulgunea: «Nafarroa iparral-deko industriak aspaldi ez du lanposturik sortu, eta dagoena mantenduta, bertze industria mota batzuk garatu beharko lirateke, ikerketan eta garape-nean oinarrituta balio erantsia sortzen duen industria». Dioe-nez, «Nafarroa iparraldean, hori probestu beharko litzateke eta abeltzaintzatik eratorritako agroelikaduraren industria sor-tu». Bertzetik, eskualdeko indar-guneei dagokinez, «pertsonak» aipatu ditu, «eskulana. Langile kualifikatua da, prestatua, eta horrek egiten duenari kalitatea ematen dio. Horregatik funtzio-natu du industriak hemen».

Langile kopurua sektorez sektore eta udalerriz udalerrri

Udalerrriak	2022					2023					2024					2025				
	Nekaz.	Ind.	Eraik.	Zerb.	Zg.*	Nekaz.	Ind.	Eraik.	Zerb.	Zg.*	Nekaz.	Ind.	Eraik.	Zerb.	Zg.*	Nekaz.	Ind.	Eraik.	Zerb.	Zg.*
Arano	1		1	14	1	1		1	15	1	1		1	16	1	1		1	16	
Arantza	18	58	22	111	4	17	59	21	111	3	16	60	23	117	2	13	56	25	123	
Areso	3	34	6	35	2	3	25	5	36	2	3	21	7	34	3	2	23	7	33	2
Baztan	264	557	268	2.124	24	262	566	264	2.176	23	258	581	252	2.195	21	255	578	258	2.245	18
B. Labaien	11	22	3	39	3	10	22	5	41	3	10	23	4	36	2	8	24	4	35	3
Bera	26	398	83	990	12	23	394	93	980	16	23	388	88	981	14	26	369	86	962	13
Bertizarana	22	58	21	146	1	20	62	21	159	1	19	56	22	159	2	19	59	22	158	2
Donamaria	21	38	27	115	3	22	39	26	121	3	18	39	24	124	3	18	39	26	132	4
Doneztebe	16	151	65	564	7	15	157	64	569	8	16	154	62	580	4	16	151	61	593	4
Elgorriaga	2	16	3	66	1	3	17	2	66		3	17	3	67	2	2	17	3	62	2
Eratsun	10	14	9	25		9	14	9	21		9	15	10	24		4	16	10	24	3
Etxalar	18	86	19	128	3	17	88	21	129	2	17	84	19	123	2	18	78	18	136	3
Ezkurra		9	9	16	2		10	9	18	2		10	8	16	1		8	8	15	1
Goizueta	10	20	9	90	5	10	16	8	91	4	11	16	8	94	5	12	16	8	90	6
Ituren	24	52	27	136	1	25	56	29	123	1	20	57	33	113	1	19	54	32	113	1
Igantzi	8	86	13	141	3	8	83	15	135	2	6	77	17	136	3	7	82	15	141	3
Leitza	51	375	90	516	13	47	343	81	510	10	51	324	81	519	12	49	328	86	544	11
Lesaka	18	222	54	653	6	20	214	53	645	8	23	224	49	637	9	25	215	54	640	3
Oiz	5	6	11	47		5	10	12	46		4	9	13	45		5	8	11	52	
Saldias	6	22	7	20	1	6	21	7	17	1	4	18	7	18	1	5	18	6	20	1
Sunbilla	16	64	46	179	4	16	62	48	177	2	12	65	44	180	2	9	59	44	191	4
Urdazubi	23	12	15	126		22	12	15	132		21	13	16	137		19	13	16	136	
Urroz	15	17	9	32		13	16	9	30		12	14	9	35		12	14	6	40	
Zubieta	14	18	9	68	2	12	19	8	72	3	11	20	9	79	4	12	22	8	72	4
Zugarramurdi	6	8	13	63	3	5	6	12	64	2	5	5	14	72	1	7	5	10	76	1
GUZTIRA	608	2.343	839	6.444	101	591	2.311	838	6.484	97	573	2.290	823	6.537	95	563	2.252	825	6.649	89

*OHARRA: 'ZG.'K ZEHAZTU GABEKO SEKTOREA ERRAN NAHI DU

ITURRIA: NASTAT

«Legasako lantegia ixtera kondenatua zen eta baldintza onak lortu ditugu»

JUANMA ALTZUARTE UGT-REN BAZTAN-BIDASOALDEKO ARDURADUNA

Arcelor Mittalek eskualdean dituen lantegietan ordezkaritza du UGTk, eta Juanma Alzuarte sindikatuak Baztan-Bidasoan duen ordezkaritza da. Alde batetik, lantegihorietan, «langile gehienak Baztan-Bidasoan eta Gipuzkoa aldekoak» direla zehaztu du. Eta bertetik, industria nola ikusten duen galdetuta, «oro har, eusten dio», erantzun du. Bere irudiko, «autogintzan edo metalgintzan, enpresek goiti-beheiti handiak dituzte,

baina bertze produktu batzuetara dedikatzen diren enpresetan, egoerari eusten ari dira».

Legasako lantegia

Baztan-Bidasoko egoeraren harira, Legasako lantegia hartu du hizpide. Itxi izana «kolpea» izan dela onartu du, baina «langileentzat baldintza duinak eta arrunt onak lortu» dituztela ere gaineratu nahi izan du. Eta gehiago ere erran du: «Erraza da egiten den



UGTko Juanma Alzuarte Magirena.

lana kritikatzeari». Alzuartek esplikatu duenez, «UGTk Legasako lantegia irekia mantentzeko borroka egin zuen, horien artean grebak eta manifestazioak barne, baina

ez dago Legasako lantegia ixtera kondenatua zegoela ikusteari uko egiten diotenak baino itsuagorik. Eta uste dugu baldintza onak lortu zirela, eta langileek babestuta».

Etorkizunera begira «merkaturan lehiakorragoak izateko hobekuntzak eta makinerian inbertsioak egiten dituen industria plan bat» eskatu ditu UGTko ordezkariek. Horrekin batera, haxe gaineratu du: «Baztan-Bidasoko lantegi gehienetan ikusten den langile faltak ekoizpena handitzea eragozten du. Enpresaburuen akatsa da gauza bera jende gutiagorekin egiten saiatzea».

«Gaur egun industria ez da sektore erakargarria gazteentzat»

ASIER CALDERON LAB-EN NAFARROAKO INDUSTRIAKO ARDURADUNA

«Jardueraren arabera, industriaren egoera aldatzen dela» erranez hasi da Calderon. «Adibidez, kimikaren industrian, Lozy's enpresa hazi egin da eta Verkolen langile kopurua handitu da». Bertze aldean, metalgintza ikusten du, eta tartean, Arcelor Mittal: «Legasako lantegian zer gertatu den ikusi dugu, Lesakakoan urteak daramatzate langile kopurua murrizten, eta Zalaingo lantegian ziurgabetasun handia da». Eskualdetik kanpo ere joera hori omen da: «Lanpostuak suntsitzen edo tokiz mugitzen ari dira, bereziki, metalgintza eta autogintzan».

Legasako lantegia itxi izana «kolpe gogorra» izan dela errateaz gain, bere «haserrea» erakutsi du, «Arcelorren dinamika» salatuz. Datuak eman ditu: «2016an, Legasan 120 langile ziren, eta orain, itxi dutenean, 45 ere ez. Tarte horretan ez da kaleratzerik izan». Enpresaren «estrategia» gaitzetsi du: «Langileak nahi bezala erabiltzen ditu errelebo kontratuekin. Jubitatzeko adinera ailegatzen dire-

nei errelebo kontratua egiten diete, eta horien partez hartzen dituzten langileak edo *erreleboak* Asturiasko lantegira bideratzen dituzte. Hala, hemen gero eta lanpostu guttiago dira». Joera hori «aspaldikoa» dela kontatu du, «baina inork ez du deus egin nahi izan. Legasako lantegiarena aurreikusitako itxiera izan da». Are gehiago: «Kezka eta haserrea sortzen digu Lesakako lantegiak bide hori hartzen ahal duela ikusteak, estrategia bera baitarabilte».

Bertze azpisektore batzuk, berriz, «mantentzen» direla dio: «Adibidez, zerrategiak. Eraikuntzaren egoerak eragiten die, baina egonkortua da». Eta Torraspapelen harira, zera erran du: «Nahiko arriskuan ibili zen, duela urte bat enpresak enplegua aldi baterako erregulatze-ko espedienteak aurkeztuta. Baina borroka eginez, alde batera utzi genuen. Beti mesfidati, baina egun, lanpostuak eta lan zama egonkortuak dira».

Agerian utzi du industriak «eskualdean izugarizko garran-



LABeko Asier Calderon Agirre.

tzia izan duela eta duela», eta indarguneen artean, «hemengo eskulan kualifikatua, kalitatezko lana eta kokapen geografiko estrategikoa» nabarmendu ditu. Baina badira ahulguneak, eta tartean, «zoritxarrez, eskualdeko industria gehiena transnacionalen esku» izatea aipatu du. Bere irudiko, nahitaezkoa da «erabakiguneak hemen izatea. Bertako industria indartu behar dugu, gure ehun industria defendatu. Transnacionalen esku daudenean, haiei ez zaie inporta hemengo lantegi bat egun batetik bertara itxita».

«Industria birpentsatzeko beharra» ere aipatu du, «jasangarria izateko. Industria behar da, baina trantsizio ekologikoaren erronka hor dugu eta lan-

gileen eskutik egin behar da». Lan baldintzen erronkaz ere aritu da: «Gaur egun industria ez da sektore erakargarria gazteentzat. Bizi proiektu bat erai-ki nahi duenak ziurtasuna nahi du eta industriak ez du bermatzen. Gazte aunitzek egonkortasuna oposizioak eginez bilatzen dute». Ez hori bakarrik: «Garaiak aldatu dira, eta egun, bertze gauza batzuk baloratzen dira: bere garaian, igual soldata altuak, bertze sektore batzuetan baino lanaldi baxuagoak... gehiago baloratuko ziren, baina egun, baimenak, zaintzarako aukera, gauez ez lan egitea, osasuna...». Hala, industrian langile kopurua murriztearen gibelean, «bi arrazoi» ikusten ditu: «batetik, enplegu suntsiketara, bere garaian borroka eginda, hemen lan baldintza onak lortu zirelako; eta bertetik, industria ez dela erakargarria». Gai hori «lantzeko» beharra azpimarratu du, baita «borroka kolektiboetan lanketa» egin behar dela ere: «80ko hamarkadan garaipenak ahalbidetu zituen komunitate eta langileria kontzientzia galdu da. Indibidualizazio prozesuan sartu gara eta langile eta kolektibo bezala pentsaraztea gure lana da».

«Enpresen irabazi historikoak ez dira langileen sakelara ailegatzen»

JON BASTERRA ELA-REN BIDASOKO INDUSTRIA ARDURADUNA

Baztan-Bidasoaldeko industriaren egoerari begira hasita, «denetarik» dagoela dio Basterrak, baina «orokorrean, irakurketa ez da ona». Horren adibide, Arcelor Mittal aipatu du: «Aspalditik ari gara Arcelorreko zuzendaritzaren jarrera salatzen. Etengabeko suntsiketa egiten ari da, enpresa ongi doan arren, enplegua erregulatzeko espedienteak etengabeak dira haien planetan. Helburu argia dute, ahalik eta diru gehien irabazten segitzea. Azken adibidea Legasako plantaren itxiera izan da, Arcelorrek aspaldi hasi zuen desegite prozesuaren azken adibidea». Bertze enpresa batzuetako egoera ere hartu du hizpide: «Caveo, adibidez, etengabeko itxiera mehatxuarekin bizi bada ere, hortxe segitzen du». Baina argi du: «Nafarroan, eta bereziki iparraldean, industriaren egoera ez da ona». Oroitarazi duenez, «ELAK denbora darama Euskal Herrian industria hartzen ari den bidea salatzen». Bere irudiko, «enpresak, orokorrean, ongi doaz eta batzuk irabazi historikoak izaten ari dira, baina hori ez da langileen sakelara ailegatzen». Gehiago ere bai: «Horri EAEko eta Nafarroako instituzioek bultzatzen duten eredu ekonomikoa gehitu behar diogu, eta eredu hori gero eta gehiago oinarritzen da turismoan eta zerbitzuetan. Ahoa solas politekin betetzen dute, baina industriara bideratutako plan sendorik ez dute bultzatzen, kontrakoa baizik». Basterraren ustez, «industria defendatzeko modurik eraginkorrena bertan lanean dauden langileen baldintzak hobetzea eta defendatzea da». Bertze hausnarketa bat ere egin du nazioarteko egoeraren eraginaz galdetuta: «Nik ez badut nire lanak sortutako aberastasunaren arabera hartzen, zergatik asumitu behar dut aberastasun horren marjina tikiagoa denean?». Legasako lantegiaren itxieraren harira, berriz, Nafarroako Gobernuarekin kritiko mintzatu da: «Gobernua gatazkan moderatzaile ariko zen zurrumurrua zabaldu zen, baina ez zen halakorik gertatu. ELAkook bilera bat ere eskatu genion, baina ez genuen inoiz bilera egiteko proposamenik hartu. UGTh, ordea, lortu zuen gobernuarekin biltzea, baina bertan solastatutakoa misterio hutsa da. Argi dagoena da ez zuela deusetarako balio izan». Eskualdeko egoera ikusita, «egoerari buelta emateko erronka handia» dela gehitu du, eta horretarako sindikatuak «langileen arteko zubia» izatearen garrantziaz aritu da. «Enpresetan estutzeko beharra» ere aipatu du.



ELAko Jon Basterra Fernandez.

«Inbertsiorik gabe lantegiek ez dute etorkizunik izanen»

GORKA VIERGE ELA-REN LEITZALDEKO INDUSTRIA ARDURADUNA

Leitzako Torraspapelen egoeraz aritu da Vierge. Esplikatu duenez, «Ukrainako gerra hasi zenean, lehengaiak asko garestitu ziren, enpresak nahiko sufritu zuen, eta horrekin batera langileek. Enpresak aldi baterako erregulazio txostena aplikatu zuen eta momentu gogorra izan zen». Gaur egun, ordea, «egoera lasaia» dela dio: «Mundua



ELAko Gorka Vierge Ortiz.

oso ezegonkorra denez, egun batetik bestera egoera aldatzen ahal da, baina epe motzean, behintzat, ez dugu arazorik aurreikusten». Indarguneez eta ahulguneez ere aritu da, «batzuetan indargunea ahulgune bilakatzen ahal dela» ohar-taraziz: «Leitzaldeko industriaren indargunea, dudarik gabe, Lecta enpresa bera da, Torraspapelen jabe dena. Baina Lecta hemen egoteak ez du pentsatzen genuen bezainbeste lan osagarririk ekarri. Azken urteotan ez da lanpostu gehiago sortu. Leitzako oso toki estrategikoa da, eta toki erakargarria dela saldu behar genuke, jendea oso formatua eta kualifikatua dela, eta lana ongi egiten dela».

Etorkizunera begira, «lanpostuak bermatzea» da Viergeren ustez erronka, eta horrekin batera, enpresari inbertsioak eskatu dizkio: «inbertsiorik gabe ez baita etorkizunik. Enpresa Torraspapelen inbertitzen ari da, baina gutxinaka-gutxinaka, guk eskatu baino askoz gutxiago». Nafarroako Gobernuari, berriz, «pauso bat gehiago eta inbertsioak garatzeko erne egoteko» eskatu dio. Horrekin batera, administrazioak «batzuetan duen jarrera pasiboa» kritikatu du: «Enpresak itxi behar duela esaten duenean, 'ze pena, zuekin gaude' esaten du, baina negar egin eta elkartasuna adieraztetik haratago, jarrera proaktiboa izan behar du, enpresak erakarrit. Azken aldian izan diren itxialdietan, ez dut uste Nafarroako Gobernuak irmo jokatu duenik; gehiago egiten ahal zuen». Honela gaineratu du: «Urteak pasatuta, produktua zaharkitua gelditzen bada, egun batetik bestera enpresak lantegia itxiko duela esaten ahal du. Multinazionalak ez dute ez begirik, ez bihotzik, ez deus. Zenbakiak bakarrik ikusten dituzte. Leitzako enpresa produktiboa bada, mantenduko dute, baina beste toki batean merkeago egiten ahal dutela ikusten badute, jarraipena ezbaian jartzen ahal dute». Eta bukatzeko, berriz nabarmendu du: «Gaur egun, Leitzako lantegiaren egoera ez dago zalantzan, baina batek daki zer gerta daitekeen hemendik bost edo hamar urte barru».

	<i>Urte zaharreko menua</i> 2025eko abenduaren 31	<i>Hasteko...</i> Ahate foie gras bloka Urdaiazpiko iberikoa Ganboiak	<i>Jarraitzeko...</i> Xapoa Bildots erreka edo txuleta Marrubi eta krema tarta	Uraldea karrika, 6 BERA Erreserbak: 948 110 913 674 492 821 60€
---	---	---	--	--

TOKIKO PRENTSAK EGITEN EZ BADU,
nork kontatuko dizu?





Altzate karrikako lanak urrirako bukatuta egon beharko dira. TTIPI-TTAPA

Sei milioi euro eta erdiko aurrekontua 2026an

Diru partidarik handiena Altzate karrikako ur sareak eta zoladurak berritzeko erabiliko da

A. LARRETXE

Azaroaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu zuen Bera-ko Udalak 2026. urterako aurrekontua. Denera 6.638.331,60 euroko aurrekontua izanen da, aurtengoa baino 400.000 euro gehiagokoa. Mailegu bat ere hartuko du udalak aurrean. Hala ere, «udalaren egoera ekono-

mikoa ona» dela nabarmendu dute.

Inbertsio garrantzitsuenei dagokionez, Altzate karrikako ur sareak eta zoladura berritzeak 1.508.823 euroko aurrekontua izanen du, eta beranduenez urrirarte luzatuko dira. 596.812 euroko dirulaguntza izanen dute lan hauek. Labiaga ikas-

tola eta Matzada artean lotunea egiteko ere diru partida bat gordea du udalak. Lan horien aurrekontuaren puska handiena aurrekontabilizatuko da, eta heldu den urtean 119.511 euroko diru partida bideratuko da horretara.

Zalaingo industriagunean ur saneamendu lanak egitea ere aurreikusi dute. Lanak bi fase-tan egingen dituzte, eta lehen fasea egiteko 355.619 euroko inbertsioa aurreikusi dute. Horretarako ere dirulaguntza izanen dute; 231.152 eurokoa zehazki. Saneamenduarekin lotuta, Matzada karrikan uholde arriskua murrizten laguntzeko azpiegiturak hobetuko dituzte. Euri urak biltzeko hodi bat handituko dute 210.052 euroko inbertsioa eginez. Horretarako, 172.466 euroko laguntza izanen da.

Mugazgaindiko bi proiektutan murgilduta dago udala: Larhun-E (135.8655 euro) eta Uramuga (85.057 euro). Larhongo proiektuan, gaur egun dauden eraikinak aprobetxatuz, topagune eta elkargune interpretatibo bat sortuko dute. Uramugan, berriz, uraren kudeaketa integrala hobetzeko azterketa egingen dute. Bi proiektuek %65eko dirulaguntza iza-

nen dute. Mendil anetarako eta abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko 163.933 euro bideratuko dituzte, eta 125.839 diru laguntza izanen dute.

Ohiko diru ekarpenak

Ohiko diru ekarpenak egiten segituko du udalak eta honako diru partidak bideratuko ditu: musika eskolari 226.633 euro, Sastrako kirol zerbitzu publikoei 120.000 euro eta Mukixu haur eskolari 260.000 euro. Kultur programaziorako 108.000 euro, bestetarako 85.000 euro eta kirolekarako partidak ere mantendu dituzte. Baserri bideak moldatzeko 40.000 euroko partida egokitu dute eta espaloiak moldatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko 30.000 euro.

Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra izanen da heldu den urtetik aitzinera eta atal bakoitzari honako partida bideratuko zaio: Hondakinak 32.069 euro, Euskara 157.730 euro, Gizartea 155.621 euro eta Berdintasuna 26.804 euro.

Udalak nabarmendu du, «ahalegin handia» egiten duela dirulaguntza lortzeko eta kudeatzeko. «Urtean hainbat gora-behera eta ezusteko izaten dira eta horrek baldintzatuko du hasierako plana».

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

Ansonea

ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 · 649 37 77 23 | Foruen plaza, 1 · BERA

PLATAFORMAS BIDASOA

GURE PLATAFORMAK
DIESEL ETA ELEKTRIKOAK
GARRAIOA ETA ENTREGA ZURE BEHARRETARA EGOKITUTA

8 m - 10 m

12 m - 18 m

12 m - 16 m

12 m - 18 m

18 m / B karneta

639 103 305 | plataformasbidasoa@gmail.com | Alkaiaga Pol. Ziobi, 15



Abenduaren 31n 'Dios te salve' kantari aterako dira herrian barna. A. LARRETxea

Eguberriak ere ekitaldiz gainezka heldu dira

Glin-glanan ibilbidean aldaketak izanen dira Altzate karrikan egiten ari diren lanen ondorioz

A. LARRETxea

2025a bukartzear da, eta ailegatu dira eguberriak. Gabonak hasteko, ohiko kontzertua emanen du Isidoro Fagoaga udal musika eskolak. Abenduaren 17an izanen da, 18:00etan, elizan.

Abenduren 24an, Olentzero joanen da bisitan Berara. He-

rriko Etxeko plazara ailegatu-ko da 17:30ak aldean Ibardinen barna Mari Domingi eta astoa lagun dituela. Plazara ailegatu ondotik, herriko etxera igo eta hitzartze bat egingen dute, eta segidan berriz ere plazara jau-tsi eta haurrekin elkartuko dira gutunak hartu eta argazkiak egiteko.

Aitzinetik, eguberrietako kankak kantari ariko dira haurrak herrian barna. Lau ibilbide izanen dira, eta haurrak bizi diren auzoaren arabera joanen dira talde batekin edo bertzearekin.

Lau taldeak 15:45ean aterako dira Itzean, Iamoteneko aparkalekuan, Agerran eta Alkaiagan. Azken bi hauek Ibaialde karrikan elkartu eta batera bukatuko dute ibilbidea. Ikastetxean landuko dituzte eguberrietako kankak eta ibilbidea musikariek lagunduta egingen dute. Haurren Olentzero bukatzean, Gure Txokoak antolatuta, Olentzero kantari aterako dira helduak txistulariak lagun dituztela.

Abenduaren 27a ere ekitaldiz bete heldu da. 26. aldiz egingen dute Bortzirietako Taldekako Bertso Txapelketa. Beran hasiko da goizean txapelketa Espidobiata elkartean. Saio bat jokatu dute bertan, eta Lesakan izanen du segida txapelketak. Antoiun egingen dute bigarren kanporaketa. Ondotik, Zialdon eta Etxeberrian izanen dira finalerdiak eta afaria eta finala Arrano elkar-teen izanen dira.

Egun berean, Patxi Vila ziklista ohiaren solasaldia izanen

da 18:00etan. Kultur Etxean. Katak ostatuan, berriz, Zotal Total musika jaialdia egingen dute arratsaldean hasita.

Urteko azken eguna

Urteko azken egunean, abenduaren 31n goizean Larhuna-ra irteera antolatu du Barraskilo Gazte Taldeak. Irteera herrigunetik edota Landaginetatik egiten ahalko da, eta tontorrean hamaiketako egingen dute Antxune bentan.

Arratsaldean, Glin-glan eskea izanen da. 15:30ean aterako dira Agerran, eta gozokiak biltzen ariko dira haurrak auzoz auzo. Altzate karrikako lanak direla eta, ibilbidean aldaketak egonen dira, baina, lerro hauek idaztean, oraindik zehaztu gabe zituzten. Hala ere, ikastetxeen bidez zabalduko dute ibilbide berria. Ilunabarrean, Gure Txokoak antolatuta, *Dios te Salve* eta koplak kantari ariko dira karrikaz karrika txistulariak lagun dituztela.

Eguberriak hiru errege magoen etorrerarekin bukatuko dira. Ez da ziurra kabalkadarik izanen den. Antolatzaile eta parte hartzaile bila deialdia eginga du udalak, eta herritarren parte hartzearen arabera hartuko da erabakia.

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhooaltzuguren@gmail.com

Goieko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irún ☎ 943 63 45 36

regina tolosa
FISIOTERAPEUTA

K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina tolosaechepare

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eguberri eta urte berri on!!

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera
t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Matzadako zubiko lanak urte bukaeran hasiko dituzte

Berako Udalak eta Tokiko Administrazioak hitzarmena sinatzea bakarrik falta da lanak hasteko

A. LARRETXE

Udalak jakinarazi duenez, lizitatu dituzte Matzada eta Eztegarra lotuko dituen zubia egiteko lanak. Sasoi eraikuntza enpresak eginen ditu lan horiek, eta urtea bukatu aitzinetik hasi beharko du egiten.

800.000 euro inguru kostako da lanak egitea eta horietatik 300.000 euro dirulaguntza bidez finantzatu dituzte. Hain zuzen, udalak Toki Administrazioarekin ituna sinatzea bakarrik falta da laguntza hartzeko. Aurten kontabizilazatutako laguntza izaki, urtea

bukatu aitzinetik hasi beharra dago lanekin.

Matzada karrika eta Eztegarra pasealekua elkarrekin lotuz, gaur egun herrigunea gurututzen duen trafikoa Toki Ona institutuaren gibleko aldetik bideratuko dute. Horretarako zubi bat eginen dute, eta helburua Altzate karrikan trafikoa murriztea izanen da. Hain zuzen, urrian hasita, Altzate osorik berritzeko lanak egiten ari dira, eta lehen fasean murgilduta daude orain. Lan horiek ere Sasoi eraikuntza enpresaren kargu daude.

Zigardibereko jakintsuari buruz solasean

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta udalak antolatuta, *Uscaldunac garen ezquero* zikloaren bertze aldi bat egiten zuten abenduaren 5ean. Oraingoan, Jose Mari Zelaieta osaba zuen Juan Errandonea Zigardibereko jakintsuari buruz aritu zen solasean.



Udaleko ordezkaria eta Zelaieta.



UTZITAKOA

Osasuna nagusi Zelaieta txapelketan

San Jose egoitzaren alde, eta Genaro eta Unai Zelaieta oroitzeke txapelketa solidarioa antolatu zuen Gure Txokoak abenduaren 6an, Matzadan. Infantil mailako lau talde aritu ziren lehian, eta Osasunak irabazi zuen txapelketa. Baztan-Bidasoko selekzioa laugarren postuan sailkatu zen.



A. LARRETXE

Mikel Zabalza oroitzeke ekitaldiak

Azken egunetan Mikel Zabalza oroitzeke hainbat hitzordu egin dituzte. Omenaldia egin zioten Enderlatsan, bere gorpua bota zuten lekuan, eta abenduaren 9an eta 10ean kasuari buruzko informazioa biltzen duen erakusketa ibiltaria paratu zuten. Dokumentalaren emanaldia ere egitekoa zuten hilaren 12an.

Garbi goxo

LAVANDERIA
VENDING - LAVAVASCOSAS

Puiana kalea, 18
IRUN (Ospitale ondoan)
Aste-egun: 08:00-22:00
621 15 09 79
info@garbigoxo.com

Zure konponbide integrala

Garbi Goxon zure bizitza errazteko lan egiten dugu

GARBITEGIA

Garbiketa azkarra eta eraginkorra beti.

TXAKUR GARBIKETA

Zure maskoten higie-ne-saintzarako.

VENDING ZERBITZUA 24/7

BERRIA!
Orain ile apaindegia!
Deitu 621 15 30 65
telefonora eta informatu!

Goldatzen X. urteurren besta larunbatean

Argazki erakusketa eta Anariren kontzetua izanen dira Katakun abenduaren 20an, 12:00etan hasita

A. LARRETXE

Urteurren borobila. Hamar urte bete ditu aurten Goldatz Berako emakume talde feministak, eta urteurrena ospatzeko hitzordua antolatu dute larunbaterako, abenduaren 20rako.

«10 urtetako borroka honek momentu gozo eta gaziak eman dizkigu eta horiek elkarrekin gogoratzeko besta bat antolatu dugu». Halaxe adierazi du Goldatzek. Hitzordua Katakun ostatuan izanen da 12:00etan. Aperitifua hartzeko aukera izanen da eta argazki erakusketa

ere paratuko dute. 12:30ean Anarik kontzertua emanen du. «Bidean aitzinerat goazela, gibelerat begiratu eta elkarrekin orainaldi feminista ospatzeko elkartuko gara», adierazi dute.

Azaroaren 25ean karrikara
Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egin zuten Kanttonberrin Goldatzek deituta. *Konplizitate sareen aurrean, erresistentzia feminista* lelopean elkartu ziren.



Diploma hartu zuten ikasleak, zuzendaria eta udaleko ordezkaria. UTZITAKOA

Santa Zeziliako kontzertua eman dute ikasketak bukatu dituzten ikasleek

A. LARRETXE

Musikariaren santua musika joz ospatu dute Isidoro Fagoaga udal musika eskolan. Ohikoa duten gisan, bigarren mailako musika ikasketak bukatu dituztenek kontzertua eman zuten, eta emanaldiaren ondotik, diplomak banatu zizkieten parte hartzaile denei.

Hauek dira diploma hartu duten ikasleak: Irati Sansinena trikitian, Onintze Etxenike eta Loiana Sansinena pianoan eta Mattin Urroz gitarran. Santa Zeziliako kontzertua eginda, entzunaldiak eta abenduaren 17an egingen duten Eguberrietako kontzertua prestatzen ari dira orain.

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 BERA
📞 948 63 10 27 📠 670 598 560
✉ info@tabernaedariak.eus
🌐 www.tabernaedariak.eus

RAUL IPARRAGIRRE ALZURI
Fisioterapia-Osteopatía

Altzate, 5 | BERA
Ondarreta pasealekua, 13 | DONOSTIA
606 260 659

BERA
SILVIA MAZIZIOR S.L.
Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA
Tel: +34 948 63 15 57
+34 676 05 16 60
maziziorsenper@gmail.com

NAHI AL DUZU SORTA BAT EROSI EDO ZURE GUSTURA EGIN?

Enpresendako eta partikularrendako

«Bertsolari bezala txapelketa honek aunitz erakutsi dit»

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI BERTSOLARIA

A. LARRETxea

Mutiloan hasi, Agoitzen segi eta Iruñean borobildu du Nafarroako Bertsolari Txapelketako bidea Ekhiñe Zapiain Arlegi bertsolariak. Hirugarren parte hartzea izan du txapelketan, eta lehenengoz, finalean aritzeko txartela lortu du. 2.500 bertsozaleren aitzinean kantatu zuen Nafarroa Arenako finalean eta 666 puntu lortuta, zazpigarren postuan sailkatu zen. Gainera, finalerako txartela lortuta, heldu den urtean jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiko txartela ere lortu du. Finala pasatu eta egun guttira, Nafarroa Arenan izandako bizipenak eta txapelketan egindako bideaz aritu da.

Finala oroitzean, hitz bat nabarmendu du guztien gainetik: emozioa. «Lehendabiziko finala izan da, eta horregatik uste dut emozio aunitzekin bizitu nuela, emozio handiz, zentzu guztietan». Urduri eta ilusionatuta, halaxe sentitu zen egunean berean zein aitzineko egunetan: «Hagitz kontent nintzen eta izugarrizko ilusioa egiten zidan bertara ailegatu izanak, eta aldi berean urduritasun handia ere

banuen, lehendabiziko aldia zelako horrelako plaza batean, eta ez nekielako zehazki zer izanzen zen».

Lan luzea egin behar izaten dute bertsolariak finalean, hamabortz bertso puntuagarri, eta denetarik momentuak izan zituen. «Zozketan lehendabizikoa izan nintzen, eta horrek eragin zidan saioa tentsionatuta hastea». Saioak aitzinera egin ahala, orde, gorputzaldia aldatu, eta gozatze aukera ere sentitu zuen: «Bukaeran uste dut lasai eta gozatzen ari zeko tartetxo bat ere hartu nuela eta kontent bukatu nuen, nahiz eta urduri hasi».

Lehenengo bertsolaria izaki, oholtzan iskina batean egotea egokitu zitzaion beratarri, eta hargatik ezin izan zuen oholtzakideekin aunitzik solastatzeko aukerarik izan. Kideak «hagitz ongi» ikusi zituen oholtzan, «eta iruditzen zait bakoitzak utzi zuela pixka bat beretik». Saio polita izan zelakoan dago: «Momentuan erne egon nintzen eta nik behintzat gozatu nuen bertsokideak aditzen eta bota zituzten bertsoekin». Gainera, bertsolariarekin izandako ha-



Ekhiñe Zapiain Arlegi Nafarroako Arenako finalean kantari. JOSU SANTESTEBAN/NBE

remana «gustatu» zitzaiola ere kontatu du eta, beraz, oholtzakideekin «hagitz kontent» egon zela.

Txapelketako bide luzea

Txapelketa bukatuta, «ikaskuntza handiko bidea» izan delakoan da Zapiain: «Nik neure burua ere bertsotan kokatuagoa sentitzen dudan momentu batean ailegatu da txapelketa hau eta uste dut modu kontzienteagoan edo presentzia gehiagoz bizitu dudala. Zentratuago joaten saiatu naiz, burua gehiago txapelketan jarrita eta neure buruari erranez zer lortu nahi nuen eta nola lortuko nuen egin nahi nuen hori». Egindakoarekin pozik da beraz: «Orokorrean kontent nago bertsolari bezala

aunitz erakutsi didalako txapelketa honek».

Txapelketa bukatuta, eguneroan bertsotan segituko du. Bertso irakasle aritzen da bertsotako eskoletan, eta aunitz gozatzen du lanean: «Bertsoa oro har presente dago nire bizitzan modu aunitzetan eta horrela segitzea nahiko nuke». Txapelketan ikasitakoa, orain, plazaz plaza erakutsi nahiko luke, deitzen duten plazetara kantatze-rajonez, eta hobetzeko ilusioz. Etorkizunari ere begira ari da, heldu den urtean izanzen baitu lehenengoz Bertsolari Txapelketa Nagusia: «Txapelketa Nagusia Nafarroakoan ikasitako guztia kontuan hartu nahiko nuke eta are gehiago lantzeko prest nago».

3Hiru Home

Salgai dauden pisuak bilatzen ditugu
Pisuaren balorazioa doan eta konpromisorik gabe.

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • 20304 IRUN | www.3hiruhome.com

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalaín, 42 B • BERA

LAN EDER
Anterola S.L.
Tehniko instalatzaileak

ITURGINTZA | GASA | KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

JAKONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

XIX. Mendi Eguna urtarrilaren 10ean egingen dute

Larunbat arratsaldean kronoigoera egingen dute eta 19:30ean 'Zazpi' ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izanen da

A. LARRETXE

Hemeretzigarren aldiz egingen dute urtarrilaren 10ean, larunbata, Mendi Eguna. Xabier Zubieta, Luis Mari Pikabea Loro eta Xabier Saralegi omentzeko asmoz sortu zen egitasmoa eta gaur egun mendiaren inguruko besta bihurtua da. Agerra Mendi Taldea eta Mantale Mendi Lasterketa Taldea ari dira antolaketa lanetan.

Santa Barbara kaskora egingen duten kronoigoera izanen da eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak. 14:15ean hasiko da probarako izen ematea eta

dortsal banaketa ere orduan egingen dute. Parte hartzaileak bikoteka edo hirukoteka aritu beharko dira, eta hamasei urtetik beherakoak heldu batekin egin beharko dute ibilbidea

Izen ematea bukatzean, 15:00etan, Santa Barbara igozteko ibilaldi gidatua aterako da Toki Ona institutuko patiotik. Ordu erdi beranduago, berriz, hasiko dira lasterkariak. Toki Onako patiotik atera eta Santa Barbarako kaskora igo-ta, berriz ere herrira itzuliko dira, denetara bortz kilome-



Santa Barbara arteko bidea osatu beharko dute parte hartzaileek. A. LARRETXE

tro eta erdiko bidea osatuz. Parte hartzaileen denbora hartuko dute, baina, ez da sailkapenik izanen. Aurten, gainera, ez da haurren lasterketarik izanen.

Behin parte hartzaile denek egitekoa bukatuta, 18:00etan merienda banatuko dute eta zozketak ere izanen dira.

Larunbateko egitaraua boro-biltzeko, Mikel Lizarralde Zazpi ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Kultur Etxean

19:30ean. Euskal Herriko probintzia bakoitzeko mendi garaianak lotu ditu Mikel Lizarralde, eta bidean esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa hartu eta bizitzeko zer den kontatuko du.

Iganderako ere, urtarrilaren 11rako, mendi txangoren bat antolatze asmotan dira. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez zuten zehaztua, eta beraz, horren informazioa aitzinerago jakinaraziko dute.

Urte berria,
falta direnak gogoratzeko
eta bizitza ospatzeko unea.

2026 zoriontsua!



IZARRA
TANATORIO

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

TANATORIOAK
Elizondo · Arantza · Bera · Igantzi · Doneztebe

izarratanatorio.com 948 059 090

Feria ortziralean ospatzea erabaki dute herritarrek

Azaroaren 30eko galdeketa botoen % 80 aldaketaren alde agertu ziren (677 boto) eta osoko bilkurak hartuko du erabakia

AITOR AROTZENA

Feria egunaren data erabakitzeko herri galdeketa egin zen azaroaren 30ean. 16 urtetik goitiko 2.277 bizilagun daude erroldatuak eta horietatik 837k eman zuten botoa (erroldatutakoen % 36,75). Horietatik 677k (boto emaileen % 80) feriak ortziralera aldatzearen alde agertu ziren. 153 (boto emaileen % 18) ortzegunear mantentzearen alde agertu ziren. 4 boto xuri eta 3 balio-gabeak izan ziren. Ordenantzen arabera, erroldatuen erdiak bozkatu behar du herri galdeketa emaitza loteslea izateko. Hori ez da horrela izan, beraz, orain erabakia abenduaren 18ko osoko bilkuran hartu beharko du udalak. EH Bilduk bat egin du «galdeketa eman den emaitzarekin eta herritarren gehiengoak



837 herritarrek eman zuten botoa.

azaldutako nahia errespetatuz, datorren urtetik aitzinera Lesakako Feriak ortziralera izatearen aldeko botoa emanen dugu». Bide batez, galdeketa parte hartu zuten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, «Lesaka eraikitzen segitzeko hartu beharreko erabakia den artean hartu behar ditugulako. Hausnarketak, eztabaidak eta erabakiak modu parte hartzaile batean egitearen alde lanean segituko dugu».



BETI GAZTE

Sukaldaritza ikastaro arrakastatsua

Euskal Herriko sukaldaritza tradizionala goi mailaruntz eramanda tailerra antolatu du aurten ere Beti Gaztek, udalaren eta Irain eskolaren laguntzarekin. Hondarribiko Zabala jatetxeko sukaldariarekin, Irain eskolako sukaldean egin zituzten bi saio, azaroaren 25ean eta abenduaren 2an.

Olentzero eta jaiotza lehiaketaren aitzinetik erakusketa ikusgai

A. AROTZENA

Ohi bezala, olentzero eta jaiotza lehiaketak eginen dituzte abenduaren 24an, datorren asteazken eguerdian, plazan. Arratsaldean, olentzero lehiaketa irabazi duen taldea musika bandarekin ibiliko da karrikaz karrika. Honekin

batera, aurten erakusketa tiki bat ere antolatu du udalak Harriondoan. Abenduaren 14an hastekoa zen eta astebe-tez egonen da ikusgai. Olentzeroren ziklo moduko bat egiten ari dira eta hilaren 13an eta 14an, dokumental bat ematekoa zuten.



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako solak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



ELEKTRIZITATE LANAK

Erreformak, etxe berriak
Lantegietarako mantentze-lanak

948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurenabera@gmail.com

EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK



Aguirrezabal
IGOGAILUAK

Mugikortasun urria
dutenentzat jasogailuak.
Irogailuak | Proiektuak
Karga-jasogailuak,
plataforma hidraulikoak
Plater-igogailuak

**MARKA GUZTIEN IGOGAILUEN
MANTENTZE LANAK**

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com

Arretxe Ugalde ind.
Ezurririki kalea, 29 IRUN
943 612 821

24 orduko
zerbitzua



XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIARIK, ALDIZKARIARIK



Leire Mitxelena eta Uxue Royo, 2027rako lekukoa hartzen. UTZITAKOA

Euskal Herriko III. Hika Topaketa Lesakan izanen da

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hartu zuen bi urtetik behin egiten den ekitaldiaren lekukoa azaroaren 7an Markinan

A. AROTZENA

Zirhika elkarteak, Badihardu-gu elkartearekin eta UEUrekin elkarlanean, Euskal Herriko II. Hika Topaketa antolatu zuen Markina-Xemeinen joan den azaroaren 7an. Bi urtean behin egiten da, lehenbizikoa Oñatin egin zuten 2023an, bigarrena, aipatu bezala, Mar-

kina-Xemeinen aurtan eta hurrengo topaketaren lekukoa bortziritarren esku uztea erabaki zuen: 2027ko Euskal Herriko Hika topaketa Lesakan izanen da. Markina-Xemeinera bertaratu ziren Bortzirietatik lekukoa hartzera Leire Mitxelena, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehen-

dakaria, eta Uxue Royo, Lesakako udaleko eta euskara mankomunitateko ordezkaria.

Hitanoaren erabilera sustatzeko eta biziberritzeko ekimenak prestatzen

2027a urrun ikusten badugu ere, «gogo onez eta grinatsu» helduko dio Bortzirietako Euskara Mankomunitateak erronkari, eta hasiko dira Hika topaketaren antolaketari begira urratsak egiten. Mankomunitateak onartu berri du euskara biziberritzeko III. Plan Estrategikoa 2026-2031, eta hitanoaren biziberritzeari dagokionez, honako ekintza hauek aurreikusten dira Hika Topaketaren antolaketaz gain (bereziki 2027an gauzatzeko): hitanoaren inguruko formakuntza, hitanoaren erabilera sustatzeko jarduerak eta ekimenak antolatzea, eta Pello Apezetxea Zubiri ikerketa bekaren baitan hitanoaren biziberritzea berariazko ikerketa ildo gisa proposatzea.

Heldu den urte akabailan 2027an Lesakako Hika Topaketa antolatzeko taldea sortuko dute eta bertan parte hartzeko gonbidapena zabalduko diete herritar eta eragileei.

Mairuan WhatsApp kanala probatzen hasiak dira abenduan

A. AROTZENA

Tokiko komertzioak eta zerbitzuak sustatzeko helburuarekin, *Non dago Zako-zahar Berdea?* lelopean, hiru proiektu pilotu gauzatu zituzten Lesakako Udala, Fundación Emplea eta herriko zein inguruko hiru gazte eta komertzioen artean. Orain, abenduan, WhatsApp kanalari jarraipena emanen zaio, egindako lanak erabilera erreala eramateko. *Mairuan* izeneko WhatsApp Business kanala tokiko zerbitzu eta komertzioen produktuentzako erakusleho digitala izanen da, baita aholkularitzarako eta harremanetarako tresna ere.

Erabilera erreala egiaztatu

Frogaren helburu nagusia kanalaren eguneroko erabilera erreala baloratzea izanen da, eta hamar bat komertzio eta zerbitzuek hartuko dute parte. Helburua da WhatsApp kanala Bortzirietako edozein eroslerentzat erakusleho erabilgarri bihurtzea. Bi astez behin zerbitzu bakoitzak bere 5 produktu izar igoko ditu katalogo atalera. Erabiltzaileek zalantzak izanez gero, kanalak komertzio bakoitzaren kontaktua eskainiko du, erantzuna eta komunikazioa erraztuz.

ANTZUZELAI S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

L'IDERA
HARTZ KLINIKA - ERREHABILITAZIOA

INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT

Eguberri eta urte berri on bezero eta lagun guztiei!

Al.-Og.: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Or.: 08:00-18:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00

Iturrumunzuko pl. 9-10 **LESAKA** | T. 722 662 478
lidera@hortzklina.es | @liderahortzklina

ARANTXENE
MENDI LANAK

3 NEURRITAKO SU EGURRA SALGAI

646 802 787
650 461 778

Lizarietako hegaztien interpretazio zentroa irekiko da larunbatean

'Abata' dokumentala ikusteko aukera ere izanen da abenduaren 20an eta Joseba Irazokik kontzertua eskainiko du

IRUNE ELIZAGOIEN

Abenduaren 20an, larunbatean 17:00etan izanen da Ingurumenaren eta hegazti migrazioen interpretazio zentroaren inaugurazioa, Lizarietako lepoan. Gune horrek gure inguruneke natura ondarea zabaltzeko, kontserbatzeko eta balioesteko gunea izan nahi du. 18:00etan *Abata* dokumentala eskainiko da eta 19:00etan Joseba Irazokiren kontzertua eta luntxa. Herritar guztiak gonbidatu ditu udalak, baina aitzinetik bertaratzea baieztaatu behar da emailaz

(udala@etxalar.eus) edo telefonoz (948 63 50 05).

Badatoz eguberriak

Abenduaren 24an izanen da zer ospatua. 17:00etan kalejira egingen da txistulari, trikitilari, kantari eta Olentzero eta Mari Domingiren karrozekin. Merienda izanen da frontoian, 18:30ean meza eta elizako arkupean kantatuko zaie Olentzerori eta Mari Domingiri. Gabon kantak kantatuko dituzte frontoian trikitilariekin eta Olentzerok eta Mari Domingik goxokiak banatuko dituzte.

80 urtekoei omenaldia eta Berbaxerka lehia

M^a Luisa Iparragirre omendu du Larraburuak 80 urte betetzeagatik. 50 lagun bildu ziren abenduaren 3ko bazkarian. Egun bereko Berbaxerka lehiaketan Mireia Malaxetxebarriak lortu zuen puntuazio altuena eta saskia.



ARGAZKIJABEAXXX



MIREN OLAETXEA

Emakumeen aurkako indarkeria

Azaroaren 25ean elkarretaratzea egin zen plazan. Azaroaren 28an berriz, *Liliak xuri-beltzean* errezitaldi musikatua eskaini zuten Garbiñe Leitzak eta Haizea Loirak Kultur Etxean. Etxalarko Añarra talde feministak eskerrak eman dizkie azaldu zirenei, honela gaiari duen garrantzia ematen baitzaio.

Sareetan 537 uso harrapatuta bukatu da Usategietako ehiza denboraldia

44 dozena eta 11 uso harrapatuta akautu da denboraldia: guztira 537 uso. Denboraldia-ri dagokionez, indartsu hasi zen, sareak jarri eta laugarren egunean, urriaren 7an, 25 dozena ehizatu baitzituzten. Gero, uso gehienek kostaldetik joatea erabaki zuten. Hala ere, Iparraldean sarearekin ehizatzen duten beste 8 herriekin egiten den sare bidezko harrapaketen zenbaketa orokorrean, bigarren saretik 30 usora geratu da Etxalar, hirugarren postuan. Abenduko lehen larunbatean sareekin



Usazaleen anaitasun bazkaria.

ehizatzen duten usategiek anaitasunezko bazkaria egin zuten.

CPALeko ekologistek, aurten 250 uso eraztundu dituzte (pasa den urtean 100 izan ziren).

Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Salis Hiribidea, 24 | IRUN
639 95 53 24
www.fernandocelaya.com

GURE KONTSULTAN HONAKO PATOLOGIAK AZTERTUKO DITUGU:

- LIXERIKETA APARATUKO PATOLOGIAK
- GIHAR PATOLOGIAK
- NEUROLOGIAK PATOLOGIAK
- ARNAS APARATUKO PATOLOGIAK
- GINEKOLOGIA PATOLOGIAK
- GILTZURRUN ETA GERNU APARATUEN PATOLOGIAK
- ZIRKULAZIO ETA ENDOKRINO PATOLOGIAK

ERABILTZEN DITUGUN TERAPIAK:

- OSTEOPATIA
- KIROL MASAJEA ETA MASAJE TERAPEUTIKOA
- AKUPUNTURA
- FITOTERAPIA TXINATARRA
- REIKI...

Aste Kulturaleko egitarau zabala ederki bete da

Orain, eguberrietako ospakizunen atarian, kontzertua eskainiko du ortziraletan Giltzarri abesbatzak elizan (20:00)

ANA ETA ITZIAR

Abenduko lehen besta egunetako zubian, betiko legez, aurtengoan ere Aste Kulturala ospatu dugu herrian. Denontzako prestatutako egitaraua arrakastatsua izan da. Andoni Esparzak emandako hitzaldi interesgarria, Oskar Txoperenak gidatutako iturrien ibilbidea, bigarren urtez antolatu den kantu bazkari arrakastatsua... Igandean beti gustukoa izaten den herriko gazteen dantza saioa eta harrera ederra duen antzerkia ere. Bukatzeko, herriko gazteek antolatutako bingo eta txokolate jatea.

Orain, eguberrietako atarian, bertze urte batez Giltzarri Abesbatzak kontzertua eskainiko du herrian. Abenduaren 19an izanen da emanaldia, ortziraletan 20:00etan elizan. Kantu sorta politaz gozatzeko aukera izanen dugu, beraz, eguberriak hasi aitzineko egunetan.

Oian Canabal txapeldun...

Lanean gogor dabila azken boladan Oian Canabal Etxar-



Harrera ederra izan du antzerkiak.

te herriko pilotari gaztea. Aurtun lehen aldiz jokatu den Nazioen Ligan (Bilbon) parte hartu du eta Espainiako Federazioarekin (nafarrak ziren gehienak) txapeldun izan da, Unax Apeztegiarekin batera. Horretaz gain, Lerinen joakatu zen Garfeko lau eta erdiko txapelketan txapela lortu zuen Aitor Etxeberriaren aurkako finala irabazita.

Luken Urtxegi ere

Hainbat kiroletan aritutakoa dugu Luken Urtxegi Urra, baina azken boladan lasterka ibiltzeari ekin dio gogotik. Nafarroako kopan ibili da jo eta fuego eta lau lasterketa osatu ondotik, 23 urte azpiko kategorian txapeldun izan da.



ANA ETA ITZIAR

Azaroaren 25eko elkarretaratzea

Emakumearen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean herritarrek aldarrikatzeko modua izan zuten. Herriko etxeko atarian elkarretaratzea egin zuten. Eskolako haurrek, berdintasunean oinarritutako eskulan tailerra izan zuten. Azaroaren 22an ihes gela bat ere izan zuten.



UTZITAKOA

Fermin Muguruzak piztu du txondorra

IrriSarri Landeko txondorraren piztea arrakastatsua izan da aurtun ere. Fermin Muguruzak izan zuen piztearen ardura abenduaren 6an. Zubietako joaldunak, Goizuetako txondorgileen Zahagi dantza eta Sergio Muñoz biolin jotzailea eta Gorka Zabaleta kantautorea ere aritu ziren.

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarb@hotmai.com
www.zumarb.es

USOA kooperatiba

948 635 214 605 631 244 ETXALAR

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia. 23 - BERA

Ortziralean Mari Domingiren bisita izanen dute eskolan

Abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira; 31n elkartasun kalejira izanen da eta ilbeltzaren 5ean kabalkada

NEREA ALZURI

Eguberriei begira mugimendua nabari da. Eskolan, urtero bezala, batetik, eguberrietako postal lehiaketa egin dute ikasleek artean, eta Naroa Mutuberriarena izan da aukeratua. Bertzetik, ortzirale honetan, Mari Domingi eskolara hurbilduko da gutunak eske, eta kantak eskainiko dizkiote.

Guraso Elkartearen ere buru-belarri ari da eguberrietako ekin-tzekin. Abenduaren 24an, kalejira egiteko 16:00etan apartakalekuan bilduko dira, eta herri-rian barna kantari ibiliko dira

Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin. 17:30 aldera, Olentzero eta Mari Domingi harrera egin, eta kantak kantatuko dizkiete, eta ondotik, merienda banatuko dute. Olentzero erretakoan, suaren bueltan kalejira egingen dute. Ilbeltzaren 5ean, bertalde, 18:45 aldera plaza ingurura ailegatuko dira Errege Magoak eta laguntzaileak, eta ondotik, opariak banatuko dituzte elizan.

Abenduaren 31n, elkartasun kalejira izanen da, baita dagoe-neko saltzen ari diren txartelen zozketa ere; 20:00etan plazan.

Bertso negulekuak abenduaren 29an eta 30ean

Nafarroako Bertsozale elkar-teak antolaturiko Bertso Ne-gulekuak abenduaren 29an eta 30ean egingen dituzte es-kualdean, Legasan eta Aran-tzan, hain zuzen. Lehen Hez-kuntzako 3. mailatik 6. maila artekoak Aterpean bilduko dira.

Mendiko aseguruak Ekaitza Elkartearekin

Aurten ere Ekaitza Elkartearekin mendiko aseguruak egiteko au-kerak izanen da. Federatu txar-tela lehenbizikoz egin nahi dutenek, berritunahiez dutenek edo aldaketaren bat egin nahi dutenek hilaren 20a baino lehen erran beharko diote Imanol Lukanbio edo Eneko Sarriasi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Osinaldeko iturrian auzolanean

Urteko edozein tenoretan aritzen dira auzolanean herritarrek, eta konparazio batera, argazkiko kuadrillak azaroan egin zuen saioa. Osinaldeko iturrian garbitzen eta pintatzen aritu ziren. Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie, modu batera edo bertara, auzolanean aritu diren herritar guziei.



UTZITAKO ARGAZKIA

Indarkeria matxistari ezezko garbia

Indarkeria matxistaren kontra, jendarteak paper aktiboa izan dezan, gizarte osora deia zabaldu dute aurtengo azaroaren 25ean. Arantzan ere, herritarrek plazara atera ziren, eta *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez zioen* pankarta hartuta, elkarretaratzea egin zuten.

45 minutuko spa saio pribatua + ttipi ttpa menua
78€ / pertsonako BEZa barne



www.arantzahotela.com



Energia efizientzia
handiko profilak,
Passive House
ziurtagiriarekin

$U_f = 0,85 \text{ (W/m}^2\text{K)}$



Etxe pasiboek baino
isolamendu hobe



Isolatzeko gaitasun
handiena



Energia galera minimoa



Aurrezpena
eta jasangarritasuna





Museko txapeldunak erdian eta txapeldunordeak alboetan. HELENE REKARTE



Eraso aita-semeak hirugarren eta Zugarramurdi eta Gonzalez laugarren.

Ortzirale berezia Antrotoki gazte taldearen eskutik

Abenduaren 5ean Bidenabar musika taldearen emanaldia izan zen. Mus txapelketan, aldiz, 24 bikote aritu ziren

MAIDER PETRIRENA

Abenduaren 5ean Antrotoki gazte taldeak ortzirale berezia antolatu zuen Ulibeltzak elkartearen. Arratsaldean, zazpiak eta erdietan, Baztango Bidenabar taldeak kontzertu akustikoa eskaini zuen. Entzuleek gozatu ederra hartu zuten hiru neska gazteen emanaldiarekin.

Ondotik ogitarteko bereziak zituzten, bertan jateko edo etxera eramateko.

Mus txapelketa

Eguna akitzeko, mus txapelketa jokatu zuten. Guztira 24 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Ultzamako Iosu Etxeberria eta Aimar Iribarren



Bidenabar taldeak emanaldi ederra eskaini zuen. MAIDER PETRIRENA

suertatu ziren, finalean Jaione Otxandorena eta Lourdes Indakoetxea herriarrei irabazita. Hirugarren postua Santiago eta Juan Jesus Eraso Leitzako aita-semeek eskuratu zuten, Asier Zugarramurdiren

eta Iñaki Gonzalezen kontra irabazita. Lerro hauen bidez eskertu eta zoriondu nahi dugu antolakuntza taldeak egindako lana. Giro ezin ederragoa izan zen, abendu hasierako besta egunak girotzeko.

Eguberrietan ohiko ospakizunak eta mendi duatloiaren aldeko talo jatea

Eguberriak ate joka diren honetan, urteroko hitzorduak izanen ditugu. Abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingiri ongiatorria eginen zaie. Abenduaren 25ean hitzordu garrantzitsua izanen dute gazteek. Etxez etxe kantuan ibiltzera aterako dira plazatik 16:30ean. Ulibeltzak elkartearen afaldu eta gauez baserriz baserri ibiliko dira urteroko koplak kantatuz akordeoiari laguntzarekin. Urtea akitzeko, IV. San Silvestrea ospatuko da. Izen ematea egunean bertan ere egiten ahal

da. Hori bai, egunean bertan egiten duenak ez du kamiseta eskuratzeko aukerarik izanen. Urte berria ere urtaskak kantuan hasiko da. Haur eta gaztetxoek urte berriko koplak kantatuko dituzte etxex etxe.

Talo jatea abenduaren 21ean

Sunbillako mendi duatloiaren aldeko talo jatea egiten dute hilaren 21ean Ulibeltzak elkartearen. Igandean 17:00etan haur eta helduentzako bingoa izanen da eta 19:00 aldera, taloak elkartearen jateko edo etxera eramateko.

aurreztu
ur ihesak

uraurreztu.eus | 608 947 506

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

Eguberri eta urte berri on!!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika · BERA | zubiondojatetxea.com

Urtea akitzeko hitzordu solidarioak antolatu dituzte

Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkartearentzat dirua biltzeko bingoa, emanaldia eta krosa, bertzeak bertze

TTIPI-TTAPA

Eguberrien bueltako ohiko kirol hitzorduak solidarioak izanen dira aurten ere. Erreka Guraso elkarteak, Erreka Kirol elkarteak eta udalak hainbat ekintza egingen ditu Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren alde dirua biltzeko.

Abenduaren 21ean 11:00etan bingo solidarioa egingen du guraso elkarteak eliza aitzinean.

Abenduaren 26an, ortzira-lean, Mikel Lizarralderen *Zazpi* dokumentalaren emanaldia izanen da Zineman, 19:00etan. Dokumentalean Euskal Herriko probintzia bakoitzeko mendi garaianak lotu ditu Mikel Lizarralde, eta bidean esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa izan eta bizitzea zer den konstatzen du. Emanaldia udalak eta Erreka kirol elkarteak antolatu dute eta sarrera debalde izanen da.

Urteko azken egunean San Silvestrea egingen dute. 18:00etan, 2014. urtean edo beranduago sortutakoek ibilbideari buelta bat emanen diote eta proba debaldekoa izanen da. Ondotik, helduek 3,5



lazko gizonezkoen podiuma. ERREKA

kilometroko lasterketa egingen dute. Izena emateak bartz euroko prezioa du da eta kirol aseguru barne dago. Parte hartzaileek izen ematea egunean berean egin dezakete, baina ahal dela alde aitzinetik egiteko eskatu dute. Errekaren sare sozialetan aurkitu daiteke izena emateko bete beharreko galdetegia. Izen-ematearen zati bat Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkartearentzat izanen da. Garaileentzat sariak egonen dira, eta probanagusia parte hartzen duten guztiek opari bat jasoko dute. Hainbat zozketa ere egingen dituzte.

Aitzineko hitzorduez gain, abenduaren 24an Saioara eta 31n Mendaurrea irteerak antolatu ditu Errekak.

Eguberrietako Futbito Txapelketa kiroldegian

XIII. aldiz antolatu du Doneztebe Futbol taldeak Eguberrietako Futbito Txapelketa. 16 talde ariko dira eta finala abenduaren 31n izanen da, 16:00etan. Partidak kiroldegian jokatu dituzte eta informazio dena taldearen Instagramean kontsultatu daiteke.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



UTZITAKOIA

Mendi Eguna arrakastatsua

Pou Anaiak protagonista direla egin zuten azaroaren 30ean Mendiaren Eguna. Goizean Bonozorrotzera igo ziren eta ondotik poteoa eta bazkaria egin zituzten. Arratsaldean, Zinema goraino betea zela aurkeztu zuten *Aupa Pou. Bizitzari sokaz lotuta* dokumentala eta solasaldia egin zuten Pou anaiak.

Olentzeroak egin eta karrikara ateratzeko deia egin du udalak

OIER ZULAIKA

Hemen dira neguko oporrak, eta aurtengo abenduaren 24ko Olentzeroa parte hartzaileagoa egin nahi du udalak. Horretarako, gazteak, helduak, familiak... animatu ditu karrikabuelta «ederra» egitera, Olentzeroa egin eta horrekin ateratzera.

«Garrantzitsuenak ez da hagitx landua izatea, parte hartzea baizik».

Gainera, herritarrek fatxadak, balkoiak, erakusleihoak... apaintzera ere deitu dituzte. Apaintzen duten denek artean herrian gastatzeko 100 euroko bale bat zozketatuko dute.



San Martin elizako portxea txukundu dute auzolanean

Bertze aldetik, emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira, zenbait ekintza egin zituzten

ARKAITZ MINDEGIA

Herriko jubilatua lanean dabiltza bertze behin ere. Mendaurko basilizaren konponketan parte hartu zuten eta beraien azken lana, San Martin elizaren portxeko egurrak txukuntzen aritu dira. Bi egunez aritu dira brotxa eta pistolarekin lanean. Bistan da egin duten lana.

Azaroaren 25a

Azaroren 25aren harira eskolan eta herrian izan da mugimendua. Azaroaren 24an Nagore Perez Indarkeria Ma-



Portxeko egurrak txukuntzen.

txista gaur; Erronkak gaiaren bueltan aritu zen. Bertzetik, eskolan familiek bidalitako mezuak zintzilikatu zituzten. Egun honen harira, gelaz gela aritu ziren lantzen.



Agur hunkigarria egin zioten eskolan Uafa saharriari. ESKOLAK UTZIA

Udan eta udazkenean gurean izan den Uafa sahararra agurtu dute eskolan

Oporrak Bakean egitasmoaren baitan bi saharar gaztetxo izan genituen udan herrian, Uafa eta Brahim. Uztailaren 4an etortzekoak ziren baina, azkenean, 18an iritsi ziren. Abuztuaren 29an beraien kanpamentura itzultzekoak ziren, Brahim joan zen baina Uafa herrian gelditu zen, bihotzeko

ebakuntza bat egiteko. Irailean Pulunpa eskolan hasi zen, eskolako lagunekin eta herrian pozik. Ebakuntza egin ondotik, ongi aterazen eta abenduan bere kanpamentura joan da. Agur ederra egin zioten. Familiak eskerrak eman nahi dizkie herriari eta, bereziki, eskolari.



STIHL

Bezero agurgarriak,

Abenduaren 17an, 45 urte lanean pasatu ondotik, nire jardura profesionala akituko da jubilazio garaiaz gozatzeko. Ohorea izan da urte hauetan guztietan zuendako lan egitea. Bihotzez eskertzen dizuet niregan izan duzun konfiantza eta leialtasuna.

Heldu den urtarrilaren 1etik aitzinera, Malerreka-Bidasoko STIHL markako banatzaile berria Eguimendi-Lan Tresnak izanen da. Dagoeneko Baztan aldeko banatzailea da eta Iruritan du bere egoitza. Beraiek izanen dira, urtarriletik aitzinera, garantian dauden makina guztiak konponduko dituztenak, baita STIHL markako produktuak salduko dituztenak ere.

Berriz ere, eskerrik asko urte hauetan guztietan emandako konfiantzagatik.

Hoberena opa dizuet.

JOSÉ LUIS SAN MIGUEL

Piz&Lohi jaialdi arrakastatsua seigarrenean ere

Aurtengoan, tabernan bildutako dirua Aroztegiko auzipetuendako izanen dela jakinarazi dute herriko gazteek

FERMIN ETXEKOLONEA

Piz&Lohi jaialdiak seigarren edizioa zuen azaro hondarreko asteburuan eta herriko gazteak gustura gelditu dira emaitzarekin, «auzolan polita eta giro ederra» izan baitzen. Aurtengoan, tabernan bildutako dirua Aroztegiko auzipetuendako izanen da. Bidenabar, Pottoka eta DJ Axaloten musika aditzeko aukera izan zen ostiralean, baina larunbata izan zen jaialdiaren egun handia. Antolatzaile eta laguntzaileek elkarrekin bazkaldu zuten estalpean eta gero



Leitzako Lenbailen taldea.

hainbat taldek jo zuten: Noiz (Sara-Bera), Bisai (Doneztebe), Gaizkillers (Doneztebe), Lenbailen (Leitza) eta Matxarda (Gaztelu). Bukatzeko, DJ Toxmina.



Igantzik txondorra pizten lagundu zuten joaldunek. UTZITAKOA

Urte bukaeran han eta hemen ibili dira eta ibiliko dira joaldunak

F. ETXEKOLONEA

Urte bukaera (baita hasiera ere, nola ez) mugitua izan ohi da joaldunentzat eta aurtengoa ere halaxe suertatu da. Azaro hondarrean eta abendu hasieran han eta hemen ibili dira: Dantxarineko kantu zaharren egunean parte hartu zuten, Zetak taldeko Pello Reparazi

laguntzen TVEko La Revuelta saioan izan ziren batzuk Madrilen eta Igantzik Irrisarri Landeko txondorra pizteko ekitaldian ere, Fermin Mugu-ruza ezagunari lagundu zioten. Eguberrietan ere han eta hemen ibiliko dira, errege bezpera eta, ohartu orduko, inautek...

Bete ditzagun aulki hutsak
araitzapen gaxoez

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

memora.es/funeraria-baztan-bidasoa

Baztan Bidasoa
Ehorzketak

memora

BAZTAN: **ELIZONDO** On Santiago karrika, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE** Aparan ind. 1-3

HARMAILETATIK AGINTZEN BADUZU, NIRE KONTRA JOKATZEN DUZU



NIREKIN BATERA **JOKA EZAZU, EZ NIRE KONTRA**

Balioen erakusgarri diren familiak,
pertsonak eratzen dituen kirola.



1004180728R0

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENCIA
2030

Instituto Navarro del Deporte
y de la Actividad Física



Nafarroako Kirolaren eta
Jarduera Fisikoaren Institutua

NAVARRA † NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Baztango Kirol Taldeak jokatzeko gozatu nahi du

Talde nagusia gidatzen entrenatzaile laukotea hasi da, «indibidualki jokalaria hobeak egitea eta talde moduan betiko BKTren esentziara» bueltatzeko asmoarekin



Baztango BKT eskubaloitaldearen «betiko esentziara» bueltatu nahi dute entrenatzaile talde berriarekin. JAIME BIGURIA

SENIORRAK

Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Ane BERHO MIGELENA	ORONÓZ
Leire MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Miren GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO
Maider ALTU AIZPURU	ORONÓZ
Saioa LARRAINZAR ERIZE	ELTZO
Naia IRIARTE ARRIETA	ARIZKUN
Julene BAYLON URTASUN	IRURITA
Ainara GOÑI ALMANDOZ	ELIZONDO
Amaia GARATE APEZTEGIA	ORONÓZ
Elixabet BAYLON URTASUN	IRURITA
Miren ARRAZTOA GARBALENA	GARTZAIN
Auza IPARRAGIRRE ITURZAETA	ELIZONDO
Mikele JUBERA IDOATE	LEKAROZ
Iraide ITURREGI ZELAIETA	ELIZONDO
Maiolen MIGELTORRENA GASKUEBERROETA	
Aroa KORTADI MARQUEZ	ORONÓZ
Patricia DEL CAMPO PELLICER	ELIZONDO

Entrenatzaileak:

Joxe ITURZAETA BARNO	ELIZONDO
Totu ITURZAETA BARNO	ARIZKUN
Itsaso SALABURU UHARTE	ELIZONDO
Gurutzte AIZPURU GOÑI	ORONÓZ

Zazpi taldetan banatutako ehun bat jokalaria ditu aurten Baztango BKT eskubaloitaldeak. Talde nagusia gidatzen, berriz, lau laguneko lantaldea hasi da. Totu Iturzaeta jokalaria ohia da horietako bat. «Zuzendaritza batzordetik deitu ziguten aipatuz talde seniorrak aldaketa bat behar zuela, entrenatzailea aldatuko zutela eta ez zutela entrenatzaile berririk eta ea bizpahiruren artean taldea

hartzera animatuko ote ginen. Bata bertzearen arrimuan, azkenean, Joxe, Itsaso eta hiruak animatu ginen eta lehenagotik neskekin zegoen Guru ere gurekin gelditu zen». Abuztuan hasi zuten aurrendenboraldia eta maila onean aritu ziren, baina «zoritarrez lesio aunitz (eta batzuk larriak) izan ditugu ordutik eta astetik atera aldatu egin behar izan ditugu. Astetartez jokalaria kanpoan

daude ikasten eta ortziraletan bakarrik entrenatzen dugu denek elkarrekin. Jokatzeko modua ere dexente aldatu da eta hasieran gostatzen da asimilatzea, baina poliki-poliki barneratzen ditugun heinean goiti joanean gara jokoan. Partidu aski onak egin ditugu, defentsan gogor eta atakean ausart eta libre jokatzuz, orain kompetitibitate hori mantentzea izanen litzateke helburua. Jo-

kalariek, entrenatzaileek eta publikoak BKT ikusiz gozatu dezatela!». Hasieratik ezarritako helburua, «indibidualki jokalaria hobeak egitea eta talde bezala, betiko BKTren esentziara bueltatzea da. Pistan dena ematen duen taldea izatea, emaitza edozein dela. Defentsan gogor eta atakean ausart eta talde bezala jokatzeko eta jokatzeko gozatzeko. Emaitzak horren arabera etorriko dira».

GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA

Giltxaurdi, 38, 31700 ELIZONDO
Tel.: 948 45 23 01 giltxaurdi@baztan.eus
www.giltxaurdi.eus

- IGERILEKUA
- GUNE TERMALA ETA HIDROMASAJEA
- GIMNASIOA
- IKASTARO ESKAINTZA ZABALA

Zatoz kirola egitera!

BAZTANGO BKT JUBENILAK

Jubenil mailako neskek Jon Medrano eta Pali Garmendia historikoa dituzte entrenatzaile. JAIME BIGURIA

Irati MEOKI BALLARENA	ELIZONDO
Clara EGURROLA OLABE	ELIZONDO
Enara MINDEGIA ARGAIN	IRURITA
Maddi LAZARO GARMENDIA	ELIZONDO
Nora GALLEGU IZETA	IRURITA
Naroa IPARRAGIRRE MEOKI	ELIZONDO
Ane MEZKIRITZ ORUBE	ARIZKUN
Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE	ARIZKUN
Jasone BAYLON URTASUN	IRURITA
Daniela DA MOTA PEREIRA ELIZONDO	
Izaro IANTZI IRIGOIEN	GARTZAIN
June DENDARIETA ESCUDERO	IRURITA
Arantxa ETXEBERRIA ZABALETA	ELIZONDO

Entrenatzaileak:

Jon MEDRANO RUIZ	ELIZONDO
Pali GARMENDIA ARIZMENDI	ELIZONDO

BAZTANGO BKT KADETEAK

Kadete mailako neskek Jone Uriarte eta Iñaki Uriarte dituzte entrenatzaile. JAIME BIGURIA

Olatz GOÑI MEDRANO	ELIZONDO
Izadi MIHURA HABANS	ELIZONDO
Maialen ZOKO ARGAIN	IRURITA
Iratxe IBAÑEZ APEZETXE	IRURITA
Eiara ARREGI SANSIÑENA	ELIZONDO
Izaro ITURREGI ZELAIETA	ELIZONDO
Itziar ZIAURRIZ GOÑI	ELIZONDO
Ane ELIZAINZIN LARRE	IRURITA
Elorri R.LARRINAGA MARITORENA	ANIZ
Jamila BAGGA AL MOUKHLIS	ELIZONDO
Saioa BIGURIA ETXABARRI	ELIZONDO
Ane ETXANDI DANBORIENA	IRURITA
Ainhoa GAMIO EUGI	IRURITA
Izaro URRUTIA BRAÑA	ELBETE
Uxo IANTZI IRIGOIEN	GARTZAIN
June LABORRA ELIZEGI	LEKAROZ
Saioa ZIGANDA OIZ	LANTZ
Laia OBREGOZO SASERAS	IRURITA

Entrenatzaileak:

Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Iñaki URIARTE BALLARENA	ERRATZU



DANTXARINEA

JOSENEA
BAZTANGO ESKUBALOI
TALDEAREKIN
ELKARLANEAN ARI DA

www.josenea.es



BAZTANGO BKT INFANTILAK



Irati MITXELENA JUANABERRIA	LEKAROZ
Katixa MURGIA LIZARDI	ELIZONDO
Uxue IRIBARREN OTEIZA	IRURITA
Izar MARITORENA ERROZ	ANIZ
Garaxi ELIZALDE MENA	ARIZKUN
Sara ETXANDI DANBORIENA	IRURITA
Ainhize OBREGOZO BEREAU	LEKAROZ
Maria Isabel SAVA	ELIZONDO
Maddi LABORRA ELIZEGI	LEKAROZ
Nora URRUTIA ERIZE	IRURITA
Elena Maria PASCA	ELIZONDO
Irati URRUTIA BRAÑA	ELBETE
Ixone GARCIA ALT XU	ORONOZ
Entrenatzaileak:	
Miren ARRAZTOA GARBALENA	GARTZAIN
Iraide ITURREGI ZELAIETA	ELIZONDO

Infantil mailako neskek Miren Arraztoa eta Iraide Iturregi dituzte entrenatzaile. JAIME BIGURIA

BAZTANGO BKT ALEBINAK



Irati ARRAZTOA UGALDE	IRURITA
Aisha ZUBIETA VINAGRE	ARRAIOZ
Laia MARTIN ZABALZA	ELIZONDO
Oiaiko GALLEGRO IZETA	ELIZONDO
Elaia MINDEGIA ETXENIKE	ORONNOZ
Elaia ARRAZTOA ANDUEZA	IRURITA
Maren ARRAZTOA ANDUEZA	IRURITA
Elaia GARATE MARITORENA	IRURITA
Eider MIGELTORENA ARRET XEA	BERROETA
Leire URRUTIA ETXENIKE	IRURITA
Ainara BARBERENA GAMIO	ZIGA

Ionut Dorin PASCA	ELIZONDO
Garoa BARBERENA NABARRO	ERRATZU
Olaia BALLARENA RODRIGUEZ	ELIZONDO
June SOULE MARITORENA	ARIZKUN
Eider AMORENA INARREA	ARIZKUN
Amelie BARROETA LABRADOR	ELBETE
Chloe BARROETA LABRADOR	ELBETE
Miren BENGOT XEA AGERRE	ERRATZU
Jaira ZAPIRAIN KARRIKABURU	ERRATZU
Entrenatzaileak:	
Santiago IBARGARAI TELLET XEA	ERRATZU

BAZTANGO BKT BENJAMINAK



Oihane ALDAKO JAEN	GARTZAIN
Nora OTXANDORENA PETRIRENA	ORONNOZ
Naroa DIAZ DIEZ	AZPILKUETA
Ainara ZUBIGARAI RODRIGUEZ	ARRAIOZ
Alazne IRIARTE LAKIDAIN	ORONNOZ
Peio ARRAZTOA DANBORIENA	AZPILKUETA
Garazi MAIA MEOKI	ELIZONDO
Arane OTERMIN ORTEGA	ELIZONDO
Irati MUTILVA OLONDRIZ	ELIZONDO
Oihana IRIARTE LAKIDAIN	ORONNOZ

Alazne GALARREGI BEUNZA	GARTZAIN
Juliette BARROETA LABRADOR	ELBETE
Nahia ORTEGA FERRERAS	ELIZONDO
Inara ETXANDI BERNAL	ELIZONDO
Killari REYES PEÑA	ELIZONDO
Izadi ALFONSO UHARTE	ELBETE
Iare OBREGON JAEN	ELIZONDO
Entrenatzaileak:	
Irati NEOL BURLADA	ARIZKUN
Naroa IPARRAGIRRE MEOKI	ELIZONDO

bidaide

FISIOTERAPIA • OSTEOPATIA

HELDUAK
HAURDUN DAUDENAK
HAURRAK

Talde saioak:

- Haurdunaldi aktiboa
- Erditu ondorengo bizkortze aktiboa
- Soinketa abdominal hipopresiboa

Kirol lesioak · Ekografoa
Neuromodulazioa
EPI · Indiba

Maurizio Berekoetxea, 18 | ELIZONDO | T. 636 58 30 34

Berriz ere liga irabazi eta mailaz igo nahi du Errekak

Doneztebeko gizonezkoen eskubaloia talde nagusiak kopako eta ligako partida guztiak irabazi ditu eta lauko finala Donezteben jokatzea eta estreinakoz lehen maila nazionalera igotzea ditu helburu



Maila bikaina ematen ari da Errekako gizonezkoen eskubaloia talde nagusia eta orain arteko partida guztiak irabazi ditu. ERREKA

«Taldea nola dagoen ikusita, partida guztiak irabaztea, lauko finala Donezteben jokatzea, kopa eta liga irabaztea eta historian lehen aldiz Erreka lehen maila nazionalera igatea, hori da nire ametsa». Argi eta garbi mintzo da Iban Mindegia Errekako gizonezkoen eskubaloia taldeko entrenatzailea. Ez da hutsean sortutako ametsa, hau idazterakoan, denboraldi honetan jokatutako partida guz-

tiak irabazi ditu Doneztebeko taldeak, kopako lau eta ligako zortzi. «Motoak bezala goaz aurtan, joan den urtean talde polita genuen, baina jende gutti, ez genuen aldaketarik, lesionatuak izan ziren, baina halere liga irabazi genuen... Aurtan kontrakoa: Ekaitz San Martin erreuperatu dugu, Ibai Meoki gurekin dugu, Peio Mitxeo bueltatu da, Atarrabiatik Iturralde anaiak etorri zaizkigu

eta aunitz ematen digute. Aldaketak egiteko aukera zabalagoa dugu, eraso-defentsako aldaketak egiteko». Iaz bezala, lehen sailkatuaren etxean jokatuko da lauko finala eta Doneztebera ekarri nahi du Mindegia, «polita izanen litzateke, presioa ere bai, baina etor dadila presioa! Erreka lehen aldiz lehen mailara igatea nahi nuke. Nik ezin izanen nuke hor entrenatu, ez baitut entrena-

tzaile nazionalako titulurik, ezta ateratzeko asmorik ere, baina Errekarendako polita izanen zen. Gero, ez dakit posible izanen zen, ekonomiko ki eta azpiegitura aldetik, baina kirol mailan maximora iristea izanen litzake». Emakumeen taldea ere maila ederrean ari da, «fisikoki ongi daude, erritmo handiarekin jokatzen dute eta erritmo horrekin galtzea zaila da».

SENIORRAK

Aimar BERASATEGI ELIZONDODONEZ.
Alberto CORREIA SANTANA DONEZ.
Ander BERASATEGI ELIZONDO DONEZ.
Asier AROZENA MARIEZKURRENA DONEZ.
Asier LANZA GARCIA SUNBILLA
Asier NOSELLAS ALDABE OIEREGI
Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN DONEZ.
Eñaut SETOAIN GARTXITORENA DONEZ.
Ibai MEOKI ETXEBESTE DONEZ.
Iñigo OSKOZ GAGO DONEZ.
Jaime ITURRALDE RODRIGUEZ DONEZ.
Joseba BENGOTXEA SAPUPPO DONEZ.
Kepa MIGUEL ETXEBESTE DONEZ.
Mikel ITURRALDE AZKOITI ATARRABIA
Otito ROQUE AGUILERA ELIZONDO
Oier BERASATEGI ELIZONDO DONEZ.
Oihan ELORZA REKARTE DONAMARIA
Peio MITXEO TELLETXEA GAZTELU
Xabier ITURRALDE AZKOITI ATARRABIA
Xabier MARCOS HUALDE OROÑOZ-M.
Xuban ILLARREGI ARIZTEGI OIZ
Ent.: Iban MINDEGIA ELIZAGA DONEZTEBE
Lag.: Iñaki MARCOS HUALDE OROÑOZ-M.
Ofiziala: Eneko MAYLIN EZKURRA DONEZ.

sasoi

eraikuntzak

T. 948 451 596 | info@sasoi.eus
www.sasoi.eus



ERREKA SENIOR EMAKUMEAK



Ainhoa ARRIETA BERGARA DONAMARIA
Amaia MARTINEZ AGUINAGA DONEZ.
Andrea ZABALA PICABEA DONEZ.
Carla IRIBARREN JUANENEA DONEZ.
Garaine IRIARTE PETRIRENA SUNBILLA
Garazi HERNANDORENA ARRETIXEA LEGASA
Haizea AROZENA FRESNEDA DONEZ.
Hirune UNANUE SANTERVAS ASTEASU
Ione GANBOA ANZIZAR DONEZ.
Irati IRATZOKI EIZAGIRRE NARBARTE
Itxaso OYARZABAL ZOCO DONEZ.
Leire GALLEGU MONTOYA DONEZ.
Leire MARTINEZ AGUINAGA DONEZ.
Lorea AGESTA TELLETXEA DONEZ.
Lur GAITE LOIRA GAZTELU
Maider JABALERA JUANENA DONEZ.
Maider OMAR PORROY DONEZ.
Marina ZABALA SARASOLA DONEZ.
Melanie TELLETXEA RIVAS DONEZ.
Nahia CIGANDA BENGOTXEADONEZ.
Naya SARRATEA ECHECOLONEA DONEZ.
Nerea APEZETXEA GONI DONEZ.
Paula ZABALA SARASOLA DONEZ.
Saioa OTEIZA ELIZONDO OIZ
Uxue ILARREGUI ARIZTEGUI OIZ
Ent.: Iban EZKURRA SALABERRIA DONAM.
Ent.: Javier APEZTEGIA ITURRIA DONEZ.
Of.: Jesus MARINELARENA MAERIZKURRENA

Emakumeen senior taldea ongi ari da eta txapeldunen faserako sailkatzeko aukera handiak ditu.

ERREKA JUBENIL MUTIKOAK



Ekai ELORZA REKARTE DONAMARIA	Mikel ARREGUI ECHART E DONEZ.
Ekaitz LOIARTE OTXANDORENA ZUBIETA	Ugaitz SALABERRI BERTIZ NARBARTE
Eneko ZULAIKA IRIGOIEN DONEZ.	Unai IRIGOIEN SANZ DONEZ.
Ganix AZKARATE ERASO DONEZ.	Unai MENDIBURU ARGOTE ZUBIETA
Garikoitz URRUTIA SERRANO SALDIAS	
Iker LANZA GARCIA SUNBILLA	Entrenatzaileak:
Jon IRIGOIEN INBULUZKETA ELIZONDO	Jesus IRIGOIEN ARRETIXEA DONEZ.
Jon LARUNBE ZELAIETA DONEZ.	Alfredo FLORZA INDA DONAMARIA

ERREKA KADETE MUTIKOAK



Aimar BERTIZ ETXEBERRIA ELGORRIAGA	Martxel URROZ TORRECILLAS URROZ
Ander RETEGI AZPIROZ DONEZ.	Mikel VILLAMEA SARALEGI DONEZ.
Asier HUARTE SANZ DONEZ.	Urtzi MENDIBURU ERASUN DONEZ.
Beñat TELLETXEA GOGORZA DONEZ.	Xabi BAKEDANO JUANIKORENA DONEZ.
Fernando APPAZTOA GARBALENA GARTZAIN	Xabier OIARZABAL AGIRRE DONEZ.
Ibai ELIZONDO UTERGA DONEZ.	Entrenatzaileak:
Iker IBARRA MARIEZKURRENA SUNB.	Josu URREAGA BURGETE DONEZ.
Juan David COSTA RODRIGUES DONEZ.	Oier BERAATEGI ELIZONDO DONEZ.
Martxel ETXEBESTE FUENTES ZUBIETA	Joseba BENGOTXEA SAPUPPODONEZ.



Club Avia Erreka Txartela eta Club Avia Doneztebe Futbol Taldea Txartela:

zure erosketaren %1 ZURE TALDEARENTZAT

Club Avia Erreka eta Club Avia Doneztebe F.T txartelarekin %3ko deskontua erregailan eta %6koa dendan. Zuk jasotzen duzun deskontua txartel arruntarekin lortzen den berdina da, baina %1a zure taldearentzat izanen da.

Doneztebeko Avia Gasolindegia herriko kirolarekin



ERREKA KADETE NESKAK



Aizea JAUREGI FLORES DONEZ.
 Amaia BELARRA ARRIETA DONAMARIA
 Andrea SUBIZAR QUISPE LEGASA
 Argia AGIRRE ARRETXEIA SUNBILLA
 Eider ZELAIETA ARTIEDA LEGASA
 Elaia HERNANDORENA ARRETXEIA LEGASA
 Elaia OTEIZA OCHANDORENA ELGOR.
 Enea TELLETXEIA ELIZALDE DONEZ.
 Hegoa IRAZOKI URTXEGI SUNBILLA
 Iraia ASTIBIA MARTIRENA LEGASA
 Irati AZNAR PIZARRO LEGASA
 Irati OIAREGI SAGASETA NARBARTE
 Irune SUBIZAR OLLO LEGASA
 Janitz IRIGOIEN ALTUXU ITUREN
 June GASTESI ETXEBESTE SUNBILLA

June JUANENA LARRAZA DONEZ.
 Maddi MIGEL TORENA MARITXALAR DONAM.
 Malen ERASO MITXELENA DONEZ.
 Nahia BELARRA MARIEZKURRENA DONEZ.
 Nahia ELIZONDO OLLO DONEZ.
 Nahia PORTU ZELAIETA SUNBILLA
 Naroa ANDRESENA GRAJIRENA LEGASA
 Naroa MUTUBERRIA SALABERRI DONEZ.
 Nerea LARRAINZAR PICABEA ELTZO
 Onintza GARRAUS BERNABEU ITUREN
 Sara GUERRA URKAREGI ELGORRIAGA
 Yuliana BOYKO KOVAL SUNBILLA
Unai OSTIZ AGIRRE	BERA	Jose REMIREZ BURGUILLO	BERA
Ibai PANDO GOIENETXE	BERA	Igor PANDO ARAMENDI	BERA

GURE TXOKOA FUTBOL-8 BENJAMINAK B



Oier ALBERRO ZELAIETA	BERA	Thiago MARTINEZ MORA	BERA
Ametz ARANIBAR ROUGET	BERA	Oinatz SEIN ARDANZA	BERA
Aimar BALEZTENA GONI	BERA	Arene GOIKOTXEA SAGASTIBELTZA	BERA
Julen ERRANDONEA ISASTI	BERA	Maddi LANZ RUIZ	BERA
Manex GONI ERRANDONEA	BERA	Ainhoa LARRAÑAGA MENDIBURU	BERA
Oinatz IRAZOKI SAINT ESTEBEN SARA	BERA	Ane LIZARDI GARCIA	BERA
Mikel IRAZOKI ZOZAIA	BERA	Mara MARTIKORENA AGIRRE	BERA
Peio LERTXUNDI BELARRA	BERA	Janire OTXOTeko MIHURA	ZUGAR.
Robert LOGHIN SCLIFOS	BERA	Maren OGALDE VILLANUEVA	BERA
Yago MACHO MARTIN	BERA	Ent: Iñaki IRAZOKI OHARRIZ, Mirenxu GARCIA	
Julen MARTINEZ HERRERO	BERA	LANZ eta Oier BARCENILLA LANCHAS	BERA



Aurrera futbol talde nagusia, belar artifizialez hornitu duten Arkiskil zelai berrituan. ARGAZKIAK: PABLO FEO

Belar artifiziala duen Arkiskilen gogotsu Aurrera

Futbol talde nagusia Erregionaleko lehen mailan ari da eta denera futboleko 250 fitxa dituzte eta eskubalo, saskibalo eta atletismo eskolekin ere lanean ari dira gogotsu

2025-2026 denboraldia mugari garrantzitsua izanen da Aurrera Kirol Elkartearen historian. Izan ere, hainbat urtez Arkiskileko lohian eta putzuean igeri ibili ondotik, azkenean, azaroaren 1ean, estreinatu zuten belar artifizialeko zelai berritua. Ekitaldi ederra izan zen. Osasunako eta Aurrerako beterranoen arteko futbol partidan 3-1 irabazi zuten hiriburu-rukoek eta denboraldi honetarako talde guztien aurkez-

pena egin zuten. Futboleko eta futbol-8an (orain arte areto-futboleko kiroldegian ari ziren benjamin eta alebin mailako neska-mutikoak zelai handira pasa dira) 250 futbolari baino gehiago ditu Aurrera. Nafarroako Erregionaleko lehen mailan ari den talde nagusia kudeatzen du batzorde batek eta gainerako taldeak beste batzorde batek. Horiez gain, eskubaloian, infantil mailan nesken bi talde ari dira

konpetitzen eta alebin eta benjamin mailakoak ikasten. Saskibalo eta atletismo eskolak ere lanean ari dira. Denera 385 kirolari inguru, pilota eskolako gain. Erregionaleko lehen mailan ari den taldeari dagokionez, Jose Luis Arrizurieta *Arri* entrenatzailearen esanetara ari dira, beste denboraldi batez. Erdi aldeko postuetan dabilta (hau idazterakoan zazpigarren dira, 3 partida irabazi, 1 ber-



PREFERENTE

Asier BARRIOLA ZOZAIA	LEITZA
Eneko BARRIOLA ZOZAIA	LEITZA
Imanol BIURRARENA ORTIZ	LEITZA
Jakue FAGOAGA UNANUA	ANTSOAIN
Odei GARMENDIA AZPIROZ	ARESO
Oier GOIKOETXEA SAGASTIBELTZA	LEITZA
Ion INSAUSTI GOMEZ	ALTSASU
Martxel INTXAUSTI LASARTE	LEITZA
Jon IPARRAGIRRE BARRIOLA	LEITZA
Jon ITURRIOTZ BELAUNTZARAN ARESO	
Aitor LIZARTZA RODRIGUEZ	LEITZA
Aratz MARQUEZ IMAZ	OLAZTI
Joanes OIARTZUN ALDAIA	LEITZA
Joanes OSKOZ AHECHU	ARRARATS
Ibai OTERMIN GURUTXARRI	ARESO
Ibai REMIREZ ORMAETXEBERRIA	ARESO
Eder SAGASTIBELTZA URANGA	LEITZA
Jon Martin SUKUNTZA TELLETXEA	LEITZA
Ugaiz UGARTEMENDIA MENDIZABAL	LEITZA
Jon VAZQUEZ URANGA	LEITZA
Adei ZUBILLAGA CEBALLOS	LEITZA
Eñaut ZUBIRI ARBURUA	LEITZA
Entrenatzaileak:	
Jose Luis ARRIZURIETA BILDARRAZ	LEITZA
Antton URKIOLA GORDOBIL	LEITZA
Delegatua:	
Asier GIL ZUBILLAGA	LEITZA

dindu eta 5 galduta), eta urrun dituzte Gorengoen mailara igotzeko lehen hiru postuak,





Amazabal kalea, 39 - 31880 LEITZA | Tel. 948 510 719 | kirolak@leitza.eus

LEITZAko UDAL KIROLDEGIA

Zatog gurekin kirola egitera!







AURRERA FUTBOL TALDEA NESKA JUBENILAK

Alaia BARBERIA CARBAJO LEITZA
 Elaia NARBARTÉ MAKATZAGA GOIZUETA
 Eunat BELAUNTZARAN ETXABE ARESO
 Haizea BARAIBAR GOÑI ARESO
 June VICENTE AGIRRE LEITZA
 Kattalin LIZARRAGA MENDIA LEITZA
 Kattalin RETEGI FERNANDEZ LEITZA
 Maddi AGIRRE CABALLERO LEITZA
 Maddi ITURRIOTZ BELAUNTZARAN ARESO
 Naroa MARIEZKURRENA ALDUNTZIN

Naroa OLANO SAGASTIBELTZALEITZA
 Nerea ATXUKARRO TOLOSA ARESO
 Olaia CERVINO VICENTE LEITZA
 Paula AGIRRE AGIRRE LEITZA
 Uxue MARIEZKURRENA ALDUNTZIN
 Eider SEGUROLA REZABAL AZKARATE
 June LOPEZ GOÑI ARBIZU
 Alba GOLDEROS ORIO
Entrenatzailea:
 Angel IRUJO SAQUETE

AURRERA FUTBOL TALDEA NESKA KADETEAK

Lorea REMIREZ OMAETXEBERRIA ARESO
 Anne DE CARLOS LASA LEITZA
 Maren ARBURUA AGIRRE LEITZA
 Maria ARRARAS SARAILEGI LEITZA
 Irati SAGASTIBELTZA BALEZTENA LEITZA
 Irune GOIZUETA URDANIZ LEITZA
 Yue ZABALETA GARTZIA LEITZA
 Naroa BELAUNTZARAN ZABALETA ARESO
 Iera URBIZU GARTZIARENA LEITZA
 Naiara JUANIKORENA MARIEZKURRENA
 Nahia DIAZ PUIG LEITZA
 Laida MARITORENA ETXEBERRIA LEITZA

Iria AMUNDARAIN GARRIDO LEITZA
 Leire ZESTAU AZPIROZ LEITZA
 Izaro URKIOLA ULAIAR LEITZA
 Maddi ASTIBIA ZAMARBIDE LEITZA
 Alaia TELLETXEA BULDAIN LEITZA
 Alaia MARTINIKORENA ARIZTIMUNO
 Nuria IRUJO ARRUPEA LEITZA
 Amalur ALONSO SAENZ LEITZA
 Ura BERSATEGI ROMERO LEITZA
Entrenatzaileak:
 Luna ALONSO SAENZ LEITZA
 Maddi AGIRRE CABALLERO LEITZA

AURRERA FUTBOL TALDEA MUTIKO KADETEAK

Hodei SAGASTIBELTZA BENGOTXEA
 Peio AGIRRE AGIRRE LEITZA
 Ander Rafael FREIRE MUGIKA LEITZA
 Oihan BARAIBAR LOIARTE LEITZA
 Manex LEKUONA ASTIBIA LEITZA
 Oihan ARRUPEA PERURENA LEITZA
 Ibai LASARTE ALTARRIBAS LEITZA
 Etxahun SARAILEGI URRUTIA LEITZA
 Andoni BELAUNTZARAN ETXABE ARESO
 Kimez ZABALETA HERNANDEZ LEITZA
 Tasio LIZARRAGA MENDIA LEITZA
 Hamza ADDA DJOUMAD LEITZA

Aner ZABALETA NAVASCUES LEITZA
 Haider RAJA LEITZA
 Oier ZABALETA RODRIGUEZ LEITZA
 Aiert DORRONSORO IPARRAGIRRE
 Unai LABAIEN LARRAIA LEITZA
 Axel SALABERRIA ALSUA GOIZUETA
 Mattin GARMENDIA REKALDE GOIZUETA
 Mikel ZURUTUZA MAKAZAGA GOIZUETA
 Oihan DOMINTXIN BARRIOLABERASTEGI
 Gentza OLAETXEA LABAIEN LEITZA
 Markel MARINENARENA EGUESLEITZA
Ent: Joseba VICENTE ONSALO LEITZA

AURRERA FUTBOL TALDEA MUTIKO INFANTILAK


Joselu BARBERIA CARBAJO LEITZA
 Enai ARIZTIMUNO OLANO LEITZA
 Juba VICENTE AGIRRE LEITZA
 Aitor SARAILEGI LOPEZ LEITZA
 Aitor ALKORTA OROÑOZ LEITZA
 Aitor CUMBA SANCHEZ LEITZA
 Ibai GENUA AGIRRE LEITZA
 Airywar PORATE MUENAL LEITZA
 Egoi ZABALETA SANTESTEBANLEITZA
 Xabier LOITEGI ZABALETA LEITZA
 Andoni HERNANDORENA IREGI LEITZA
 Eki ARANZEGI GONZALEZ LEITZA

Oier HUIZI URROZ LEITZA
 Urtzi UHARTE LUJANBIO LEITZA
 Eñaut BIDART ZABALETA LEITZA
 Iker ZESTAU AZPIROZ LEITZA
 Oscar ZUBITUR ARRIZURIETA LEITZA
 Randy LOPEZ BONILLA LEITZA
 Oihan GOIKOETXEA GONZALEZLEITZA
 Aiert BARAIBAR GOÑI ARESO
 Ibai EGIZABAL SAGASTIBELTZA LEITZA
Entrenatzaileak:
 Unai BERSATEGI ROMERO LEITZA
 Felipe Andres ESCOBAR LEITZA

bidas  E.S. PUNTTAS

N-121A errepidea 74. km. **BEHOBIA IRUN**
943 638 224

**ERREGAI MOTA GUZTIAK, DENDA...
 PREZIO EZIN HOBEAK!**





Aner OLANO LOIARTE	LEITZA	Pello BELAUNTZARAN RIAÑO	LEITZA
Aner OTERMIN IRIARTE	LEITZA	Taiwa Sunyu CUMBA SANCHEZ	LEITZA
Ekai SAIZAR EZKURRA	LEITZA	Unai ALKORTA ORONÓZ	LEITZA
Lide URKIOLA MARIEZKURRENA	LEITZA	Xabat LIZARRAGA DE MIGUEL	LEITZA
Oian MIHURA MARTINEZ	LEITZA	Xabier ZABALETA MUJIKA	LEITZA
Oihan ELIZALDE ALDUNATE	LEITZA	Ent: Pedro Manuel BELAUNTZARAN BARNO	
Oihan ZUBILLAGA HERNADORENA	LEITZA	eta Haizea BELAUNTZARAN ASTIBIA	LEITZA



Ametz BARAIBAR ALUSTIZA	LEITZA	Markel HUIZI URROZ	LEITZA
Enai REKONDO ANTZIZAR	LEITZA	Moussa DIANKA KANTE	LEITZA
Enaitz BENGOTXEA ARIZTIMUNO	LEITZA	Noris LUCIAN CURAC	LEITZA
Hegoi ZUBILLAGA SUKUNTZA	LEITZA	Telmo ZUBILLAGA URRETA	ARESO
Irai ETXEBERRIA VILLABONA	LEITZA	Urki OTAEGI SAGASTIBELTZA	LEITZA
Kiran ERDOZIA ZABALETA	LEITZA	Ent.: Eneko OTAEGI BEOBIDE	LEITZA
Markel BENGOTXEA GOMEZ	LEITZA	Mikel ZUBILLAGA USABIAGA	LEITZA



Aritz AGIRRESAROBETE ETXEBERRIA	LEITZA	Keity CUMBA PICHAMBA	LEITZA
Auritz AMUNDARAIN DELGADO	LEITZA	Lander SANZ GALARRAGA	LEITZA
Ekai ARIZTIMUNO OLANO	LEITZA	Markel ARIZTIMUNO URIA	LEITZA
Ekai SAGASTIBELTZA ZUNZUNEGI		Martin GOGORZA SILGUERO	LEITZA
Ibai ARRIZURIETA LARGO	LEITZA	Sugoi GOROSTARZU SANCHEZ	LEITZA
Ibai CALVO BENGOA	LEITZA	Ugaitz EIZMENDI ETXEBERRIA	LEITZA
Iker BELAUNTZARAN RIAÑO	LEITZA	Entrenatzaileak:	
Izai TRONCOSO ZABALETA	LEITZA	Iñaki ZABALETA SUKUNTZA	LEITZA
Jon SARAILEGI OLANO	LEITZA	Mauricio Javier TRONCOSO RAMIREZ	



Ainara GENUA AGIRRE	LEITZA	Hodei AIZAGIRRE ALKAIN	LEITZA
Aitor RODRIGUEZ OTERMIN	LEITZA	Ibai ORTIZ LEIZA	LEITZA
Alen ZUBILLAGA URRETA	ARESO	Irai REKONDO RICO	LEITZA
Amairu BARAIBAR GOÑI	ARESO	Luka SAGASTIBELTZA URIARTE	LEITZA
Anaitz VICENTE OSNALO	LEITZA	Markel NIETO ELUSTONDO	ARESO
Ekain LEKUONA ASTIBIA	LEITZA	Mouad ADDA DJOUMAD	LEITZA
Elorri BARAIBAR GOÑI	ARESO	Oihan GOIKOETXEA LABAIEN	LEITZA
Eneko ALTZUGARAI BARINAGARREMENTERIA		Xuhar AMANTEGI ALKORTA	LEITZA
Haran UHARTE LUJANBIO	LEITZA	Ent.: Ekaitz RODRIGUEZ ARAUCUA	LEITZA



Amairu AMANTEGI ALKORTA	LEITZA	Maialen JUANIKORENA MARIEZKURRENA	
Eider JUANIKORENA MARIEZKURRENA		Maialen PERURENA URIZARBARRENA	
Enara BARANDARAIN MITXAUS	ARESO	Nagore DE CARLOS LASA	LEITZA
Garazi SAGASTIBELTZA LEKUONA		Oñeka ZABALETA BARANDIARAN	
Intza ARRARAS ASTIGARRAGA	BERASTEGI	Xuhare MERINO SARAILEGI	
Izargi ZABALETA HERNANDEZ	LEITZA	Entrenatzaileak:	
Libe ARBURUA AGIRRE	LEITZA	Maddi ITURRIOTZ BELAUNTZARAN	ARESO
Maddi AGIRRESAROBETE ETXEBERRIA		Paule AGIRRE AGIRRE	LEITZA



Adei URIARTE ARRAIZA	LEITZA	Noris LUCIAN CURAC	LEITZA
Ekhi GOROSTARZU SANCHEZ	LEITZA	Oian MIHURA AZPILIKUETA	LEITZA
Julen ARZALLUS GARCES	LEITZA	Peio VALDES MUJIKA	LEITZA
Julen OLABARRI RODA	LEITZA	Xabat LIZARRAGA DE MIGUEL	LEITZA
Kiran ERDOZIA ZABALETA	LEITZA	Ent.: Asier ARZALLUS	LEITZA
Markel BENGOTXEA GOMEZ	LEITZA	Joseba SANCHEZ	LEITZA

AURRERA ESKUBALOI TALDEA INFANTIL A



Lur AMUNDARAIN DELGADO	LEITZA
Saroi ZUBILLAGA AGIRRE	LEITZA
Julene RODRIGUEZ URRUTIA	LEITZA
Ilazki SAIZAR EZKURRA	LEITZA
Maren OLAIZOLA TELLETXEA	LEITZA
Enea ZUBILLAGA URRETA	ARESO
Jare ZABALETA ASTIBIA	LEITZA
Hegoa AZPIROTZ ERBITI	LEITZA
Ekhi SAGASTIBELTZA URIARTELEITZA	
Ane LAZKANO PEJENAUTE	LEITZA
Xabier ZUGARRAMURDIBARINAGARREVENTERIA	
Ane ALDAIA ALISEDA	LEITZA
Uxue ALDAIA ALISEDA	LEITZA
Izar ETXEBERRIA VILLABONA	LEITZA
Entrenatzailea:	
Garazi ZABALETA	LEITZA

AURRERA ESKUBALOI TALDEA INFANTIL B



Irati SARALEGI HERNANDORENA	LEITZA
Goiuri ZUBILLAGA AGIRRE	LEITZA
Maddi BARAIBAR LOIARTE	LEITZA
Haizea ERBITI SALBARREDI	LEITZA
Laiene OLANO SAGASTIBELTZA	LEITZA
Maialen OLABARRI RODA	LEITZA
Eneritz GOMEZ ARIZTIMUNO	LEITZA
Nahia TERUEL	LEITZA
Aiara VILLALOBO ZUBILLAGA	LEITZA
Haizea URKIOLA ULAIAR	LEITZA
Xumai BIDARTE CUELI	LEITZA
Araitx ETXEGARAI GOIKOETXEA	LEITZA
Vanesa ARTOLA ASTIBIA	LEITZA
Garazi LIZARRAGA MENDIA	LEITZA
Ane ZABALETA PRADA	LEITZA
Nahia LEUNDA BERGARA	LEITZA
Ane LAZKANO PEJENAUTE	LEITZA
Arai MARTIN SUKUNTZA	LEITZA
Maite LAZKANO PEJENAUTE	LEITZA
Ainitze ALDUNTZIN IRANZO	LEITZA
Elaia LIZARRAGA VIGUERA	LEITZA
Maren BELAUNZARAN ZABALETA	ARESO
Ent: Oier BERASATEGI	LEITZA
Ent: Mikel SARALEGI	LEITZA

Eskubaloian infantil mailan bi talde ari dira konpetitzen Aurreraren izenean eta alebin eta benjamin mailakoak entrenatzen ari dira. PABLO FEO



**BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA**

**BIZIKLETAN IBILTZEKO BEHAR DITUZUN
ARROPA ETA OSAGARRIEN GUNE BERRIA**

Kanitonberri, 1 | BERA
Tel. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com













BRT Menditarrak taldeko seniorrak Lekarozen jokaturako partida baten atarian. MENDITARRAK BRT



SENIORRAK

Aitor ADIN BIDEAIN	ARIZKUN
Markel ADIN BIDEAIN	ARIZKUN
Unai AGINAGA ETXAMENDI	ELIZONDO
Xabat ALTZUGARAI	ARIZTEGI
Elbete Aimar AROZENA	MITXEO
Almandoz Beñat	ARREGI
Arretxea Oronoz	Haize
Arrieta Gonzalez	Elizondo
Eñaut Beristain	Iriarte
Arizkun Asier	Ezkurra
Iturralde Urritzola	Antton
Fernandez Bidegain	Arizkun
Jon Iriarte	Arrieta
Arizkun Pablo	Izquierdo
Tomas Elizondo	Iñaki
Jubera Idoate	Lekaroz
Iñigo Lizasoain	Uterga
Elizondo Julio	Martinez
Cazorla Arizkun	Josu
Martinez San Jose	Elizondo
Josu Merino	Irunea
Unai Mugirola	Larregi
Arizkun Miguel	Nunez
Elizondo Ariz	Olague
Iraizotz Sahel	Oloriz
Urteaga Etxauri	Ander
Oscoz Gago	Sunbilla
Alex Santesteban	Opoaka
Iruirita Miquel	Soibrino
Etulain Nestor	Daniel
Suarez Elizondo	Jokin
Urreaga Etxenike	Elbete
Haritz Urzaiz	Cuartero
Elizondo Beñat	Vieja
Mena Iruirita	

Entrenaitzaileak:

Asier ARRETXEKA	BIDEAIN
NARBARTE Iñaki	EZKURRA
OSAKAR URRITZOLA	Kaiet
IRIARTE GOIENETXE	ARIZKUN
Iñaki LEKUONA	IRUN
Joxe VIELA	URTASUN
IRURITA	

SUB18 ETA SUB16

Aimar DYAN	GARATE
IRURITA Aier	FAGOAGA
BEOLA ARRATZ	Xabier
GORRIA ELIZALDE	SUNBILLA
Xabat MENA	CALAVIA
ELIZONDO Eneko	SAGARZAZU
LATASA SUNBILLA	Kemen
SAGARZAZU LATASA	SUNBILLA
Eñaut OTEIZA	LARRE
ARIZKUN Julen	REKARTE
ETXEPARE ARIZKUN	

Euskal Ligako lehen mailan BRT Menditarrak lehiakor

Euskal Ligako lehen mailan ongi lehiatzen ari da Menditarrak-BRT talde seniorra eta hamasei eta hemezortzi urtez beheitiko gazteak, Irungo Txingudi taldekoekin batera ari dira

BRT Menditarrak errugbi taldearen aurtengo denboraldia hasita dago dagoeneko. Euskal Herriko Rugby Ligako lehen mailan urte honetan hamar talde ari dira lehian. Joan den urtean kategorian ziren Elorrio, Bilbo, Getxo, Gipuzkoa Sortzen, Arrasate, BRT menditarrak, Atlético San Sebastián eta Durango. Zortzi talde hauekin batera Ohorezko B Mailatik jautsitako Uribealde eta Euskal Ligako bigarren mailatik igotako Rioja ari dira. Aurtengo aldaketa hauek li-

gako maila igotzeak ekarri du, ondorioz, inoiz baino liga berdintsuagoa izaten ari da. BRTri dagokionez, 26 jokalaririk baditu senior fitxarekin. Horiematik gehienak iaz ere aritu ziren, baina berri batzuk ere sartu dira, taldera itzuli direnak batzuk eta lehen aldiz ari direnak. Horrez gain, entrenatzaile berri bat ere etorri da. Lehengo entrenatzailearekin batera, lan dotorea egiten ari dira taldearekin. Bertzalde, azpimarratzekoa da BRTk ez dela talde itxi bat,

«baizik eta, talde ireki eta hur-bila. Gure helburua jende gehiagok rugbia zer den ezagutzea eta kirol honen balioak (errespetua, laguntasuna eta konpromisoa) bizitzea da. Horregatik, edonor ongi etorria dago gurekin probatzera, bai entrenamenduetan bai partidetak giroan». Entrenamenduak asteazken eta ortzi- raletan egiten dituzte, 19:30ean, giro onean eta maila guztietako jokalariekin. «Ez da esperientziarik behar, soilik gogoa eta ausardi puntu bat».

Guillermo LARRAÑAGA
doktorea

KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

Tel. 610 549 507

Centro Medico Bera
San Esteban, 17 | Bera

Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua

Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin

Tratamendu estetikoak, arnarma eta malformazioena

Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-eko-interbentzionismoa

Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Fernando Urra, Vitxori Juanikotena, Arantxa Blanco eta Sergio Nieto Mugarkiren aurkezpenean. ONDIKOL

Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroako lurralde osoan zabaldu du bere presentzia

Fundazioaren helburu estrategikoetako bat da ikusgarritasun, presentzia eta jarduera handiagoa izatea Nafarroako eremu guztietan. Hala ageri da 2023-2028 Plan Estrategikoaren bigarren ardatzean, eta 2025ean lurraldetasun plan bat sortzeko balio izan du.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren helburu estrategiko honek hiru lan ildo ditu: erakundearen presentzia, jarduera eta zabalkunde handiagoa, aurreko ibilbidean sortzen ari den eraginari esker. 2025ean lurraldetasun plan hori abian jarri zenean, azterketa eta entzute fase aktibo bat izan zen, eta, horri esker, Nafarroako hainbat eremutan presentzia nabarmena izan zuen, erakundearen beraren proiektuen bidez (CIVICAN, Isterria edo Hondarribiko Udalekuak) eta Innova Programaren bidez ("la Caixa" Fundazioarekin batera sustatua).

Nafarroako Kutxa Fundazioak eginiko entzute aktiboko lana eskualdeetako eragile garrantzitsuenekin aurrez aurreko topaketetan oinarritu da, hala nola, Tokiko Ekintza Taldeekin edo garapen sozial, ekonomiko eta kulturalako erakundeekin. Lan horri esker, erakunde horien artean ikusgarritasun handiagoa lortu du Fundazioak, eta tokian tokiko errealitatea hobeki eza-gutu du.

Era berean, landa eremuetako despopulazioaren erronkari Nafarroako Gobernuarekin edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera aurre-

egiteko kezka eta beharra partekatu dira.

Fundazioak aldeaz aurretik sortutako eragina egiaztatuta, eta Nafarroako geografiako eremu desberdinetan ikusgarritasun handiagoa izateko helburuarekin, 2025ean berariazko lan bat egin da tokiko komunikabideekin. Hala, guztira 50 eragin lortu dira argitalpen horietan.

Datu hori arras lotuta dago Nafarroako Kutxa Fundazioak, bereziki Innova Programaren bidez, eragina duen hainbat herritan ekitaldi eta ekitaldietan presentzia handiagoa izatearekin. Ekimen berritzaileak babesten dituen ekimena da, eta 8.000 biztanletik beherako herrietako proiektuei zuzendutako jarduera eremu zehatza du.

Era berean, entzute aktiboko prozesuaren ondorioz, Nafarroako Kutxa Fundazioak jardueraren zati bat eta bere proiektuen eza-gutza Nafarroako hainbat eremu eta kolektibotara eramateko aukera antzeman du. Hala, dagoeneko ari dira planteatzen zenbait proiekturi lotutako ekintza posibleak, hala nola adinekoentzako Bizikidetza ereduak, CIVICAN kultura zentroa, Isterria hezkuntza bereziko zentroa edo denboran errotutako kultura ekitaldietarako laguntza deialdi bat.

Ikastoletako hezkuntza bereziari buruzko prestakuntza

Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerak 2025ean eremu horretan izan duen eraginak bultzada berezia izan du Nafarroako Ikastolen Elkartek eta Isterria zentroak sinatutako lankidetzak hitzarmenaren eskutik. Hala, hezkuntza bereziko zentro horretako profesionalek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin lotutako gai espezifikoari buruzko prestakuntza emanendiete ikastoletako kideei.

Era berean, Innova Programak Elizondon, Donezteben, Arizkun edo Oieregin proiektuak babestu ditu. Adibidez Mugarki gizarte ekimena, Exotic in Itinere kultur ekimenak edo Iratz-ekin Gizartearekin landa ekimenak dira, Baztango edo Malerreka pertsona, enpresa edo erakundeak protagonista dituztenak.





Azaroaren 25ean Donezteben egindako elkarretaratzeko irudia. UTZITAKO ARGAZKIA

Sexu jazarpena jasan duen emakumeari babesa

Prebentzio batzordeak eta talde feministak emakumeek askatasunez bizitzeko duten eskubidea aldarrikatu dute

TTIPI-TTAPA

Azken hilabeteotan, emakume batek sexu jazarpena jasan du Malerreka-Bertizaranan. Hala ohartarazi dute Malerreka Mankomunitateko Prebentzio Batzordeak eta Malerreka-Bertizaranako talde feministak, eta emakumeari eta bere ingurukoei «babes osoa eta hurbiltasuna» adierazi diote. Argi mintzatu dira: «Emakumeen kontrako indarkeria mota oro onartezina da eta irmoki gaitzesten dugu».

Egoerak emakumeari sortu dion «beldurra, ezinegon eta babes faltaren sentipenak» ententzen dituztela ere erran

dute, baita «bere ondoan» dau dela berretsi ere.

Horrekin batera, «emakumeen segurtasuna eta duintasuna erdigunean paratzea betebeharr publikoa» dela nabarmendu dute, eta «horretan segituko» dutela aipatu dute.

Gizarteari, berriz, «indarkeria matxistaren kontra isilik ez gelditzeko eta erantzun bateratua emateko» deia egin diote, eta «emakumeek beldurrik gabe eta askatasunez bizitzeko eskubidea» ere aldarrikatu dute. Gehiago ere bai: «Horretarako baldintzak bermatzea komunitate osoaren ardura da».



UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako IX. Rallya

Aitor Saizarrek eta Paloma Mugikak irabazi zuten Malerreka IX. Rallya. Iker Etxeberria eta Dabid Oskoz bigarren izan ziren eta Garikoitz Lopez eta Haizea Txoperena lesakarra hirugarren. SL atalean, Donezbeteko Gorka Iribarren nagusitu zen. Antolatzaileen hitzetan, «egun borobila» izan zen.



MENDAUR BHI

Institutuko ikasleak Arnasetik lehiaketan

Arnasetik bideo sormen lehiaketan, Mendaurren institutuko *Miamin erremontean* lana finalista izan da. Neike Ifrim, Saioa Elizondo, Ibai Petrirena, Zuhaitz Barbarin, Isabel Berrio, Mattin Leiza, Nanook Diaz, Michael Diaz, Ainara Ordoñez, Izadi Erasun, Markel Ariztegi eta Aimar Gartxitorena dira egileak.



EGURREZKO ZEIN BURDINEZKO ESTRUKTURAK
TEILATUAK | IGELTSEKORRA
DESBROZATZE ZEIN LORAZAINTZA LANAK
Planoetatik giltzak emateraino zurekin
www.aimaririgoien.com
www.construccionesaimaririgoien.com

Gure borda, 41 | HONDARRIBIA
info@construccionesaimaririgoien.com

605 77 36 40



Eguberrien bueltan hitzorduak Legasan eta Narbarten

Ortziralean, Legasako ikasleek eskutitzak emanen dizkiote Olenzerori, eta Narbarten, eguberrietako jaialdia egingen dute

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko bertze herritar aunitzen gisa, narbartearrak eta legasarrak ere eguberrii begira jarriak dira, eta horien bueltan, hitzorduak antolatu dituzte.

Legasan ortziralean eskutitzak

Eguberri aitizineko lehenbiziko hitzordua ortzirale honetan, abenduaren 19an, egingen dute Legasako neska-mutikoek. 16:00etan Bertizera joanen dira Olenzerori eskutitzak ematera. Orduan ikusiko dute Eguberrietako protagonistetako bat lehenbiziko aldiz. Hurrengo hitzordua abenduaren 24an antolatu dute. Egun horretan, 17:00etan, kalejira egingen dute trikitilariekin eta 18:00etan merienda frontoian. Indarrak hartu ondotik, Olenzerori eta Mari Domingiri

harrera egingen diete eta herriko dantzariak Aureskua dantzatuko diete. Eguneko ekitaldiak borobiltzeko, kantak kantari ariko dira.

Narbarten ortziralean eguberrietako jaialdia

Narbarten ere eguberrietako prestaketekin ari dira. Abenduaren 6an paratu zuten pinua, eta hilaren 12an Eguberrietako kantak entseatzen aritzekoak ziren. Biharamunean, berriz, Mari Domingi bisitan etortzekoa zuten.

Ortzirale honetan, abenduaren 19an, Eguberrietako jaialdia izanen dute Arotzenean eskolan, eta hilaren 24an eta 25ean ere, ez dira etxean geldituko. Abenduaren 24an Olenzero hurbilduko zaie eta abenduaren 25ean jaiotza bideziduna egingen dute elizan.



MAITE BERTIZEK UTZITAKOA

Indarkeria matxistaren kontra Narbarten

Narbarteko eskolan aurten ere modu berezian landu dute azaroaren 25a. Hala, eskulanetan aritu ziren, eta Amaia Elizagoien ipuin kontalaria gonbidatu zuten. Horrez gain, berdintasun zerbitzuak antolatuta, azaroaren 28an *Kontuk eta Komerik* ipuin kontaketa izan zuten udaletxeko goiko solairuan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kattalin Eguna Legasan

Hotzari gogor eginez, Kattalin Eguna ospatu zuten azaroaren 22an Legasan. Egun horretan, Basagaitz Kultur Elkartek antolatutako argazki rallyko lanak ikusgai paratu zituzten frontoian eta itxura ederra hartu zuen. Gainerakoan, taloa jateko eta ardoa eta sagardoa edateko aukera ere izan zuten bildutakoek.



MAITE BERTIZ

Azaro hondarra besta giroan Narbarten

Azaro hondarrean sanandresak izan zituzten Narbarten. Larunbatean, bazkaria eta musika izan zituzten, eta gauean, gazteek prestatutako bokatak. Igandean, meza eta luntxaz gain, plaza apainduta, txokolatea hartu eta bingoan aritu ziren. Sarituak Saioa Zubigarai, Jokin Perez eta Apax Irungarai izan ziren.

Delegatuen bilera eginen dute abenduaren 19an

Donezteberako bigarren delegatu bat lortu nahi du elkarteak eta Amaiurrerako ere jende bila ari dira

TERE ARRETXEAA
ETA KONTXI AGERRE

Delegatuen urteko bigarren batzarra eginen du Arkupeak elkarteak abenduaren 19an Doneztebeko egoitzan. Bertan, bigarren seihilekoan egindako bileren berri emanen da, eta zenbait proposamen ere eramanen ditu zuzendaritzak. Gainera, 33. buletina ere banatuko dute. Buletin horretan 2026ko lehenengo sei hilabeteetan eginen dituzten ekintzen berri ematen da. Bileraren ondotik, bazkaria eginen dute parte hartzaileek.

Bertzetik, Donezteberako bigarren delegatu bat lortu nahi du elkarteak. Norbait animatzen bada, bulegoko telefonoetara deitzeko eskatu dute. Donezteberako bakarrik ez, Amaiurrerako delegatu bila ere segitzen du elkarteak.

Ikastaroa urtarrilean
Urtarrilean lorezaintza eta kimatze ikastaroa hasiko da. Bertan lore apaingarrien kimaketa landuko dute bortz orduz eta fruitu zuhaitzen kimaketa bertze bortz orduz. Apuntatzeko epea bukatua dago dagoeneko, baina norbaitek nahiko balu, elkartera deituta egin dezake: 948 45 08 78 edo 618 56 78 37.

Solaslaguna egitasmoa
Euskara dakitenak euskara ikasten ari direnekin euskaraz mintzatuz elkartzeko proiektua da Solaslaguna. Bazkideak proiektuan parte izatera animatu nahi ditu elkarteak. Parte hartu nahi dutenek 610 92 06 73 zenbakira deitu edo idatzi dezakete edo solaslaguna@taupamugimendua.eus helbidera mezu bat idatzi.



UTZITAKOA

Kanaria Handian egonaldia

Hamar eguneko egonaldia egin dute Kanaria Handian elkarteko 54 lagunek. Hondarribitik abiatuta, bidaia zoragarria egin dute, eta hainbat leku bisitatu dituzte: Maspalomas, Las Palmas, bertako dunak... Heldu den urtean berriz ere itzultzeko gogoz bueltatu dira.



Mendizaleak Aurtizko eliza atarian. UTZITAKOA

73 mendizale elkartu dira Malerrekan azaroko mendi irteeran

TERE ARRETXEAA
ETA KONTXI AGERRE

Azaroaren 18an egin zuten azaroko hitzordua elkarteko 73 mendizaleek. Donezteben elkartu ziren eta egun freskoa izan zuten hamabortz kilometro eta lau ordu eta gehiagoko irteera egiteko. Amezti auzora joan ziren lehenik, eta

handik Iturengo Latsaga auzoan barna, Aurtizera ailegatu ziren. Frontoi berritua ikusi, eta eliza atarian argazkia aterata, San Joakin eta Santa Ana basilizetan barna Elgorriagara jautsi, eta Uraren Bidean barna Doneztebera itzuli ziren.
Urteko azkena Arantzan egitekoa zuten abenduaren 16an.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Egutegian seinalatuak diren egunak

Abenduaren 24an Olentzeroren etorrera ospatzeko baserriz baserri ibiliko dira kantuan eta urtarrilaren 14an Liburutegi Ibiltaria etorriko da Aranora

AINHOA ANSA

Urtero izaten dira egutegian gorritz seinalatutako egunak eta horietako bat da, zalantzarik gabe, azaroaren 25a. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean hemezortzi lagun elkartu ginen herriko elkartean. Bakoitzak zerbait etxetik eramanez mahaia afaltzeko prestatu eta elkarretaratzea egin genuen. Elurra egin zuen iluntzean, baina ez ginen etxean gelditu. Afaldu eta gero, *Zer izan behar luke zuretzat zaintzak?* galderari bueltaka aritu ginen eta tertulia berezia sortu zuen jolasak. Kontuak kontu, giro polita izan genuen.

Abenduko hitzorduak

Abenduaren 24an urteroko zita egina dute Aranon. Goizean goizetik ahotsak berotu eta baserriz baserri kantari buelta egingen dute. Elkartean egingen dute aurten bazkaria eta bazkalondoan etxeko ateak ireki dituztenen artean saski bat zozketatuko dute. Euskara zerbitzuak antolatuta, haur eta gaztetxoentzat eguberrietako tailerra ere eskainiko dute abenduaren 26an. Dindaiak eskainiko du tailerra Maisueñan, 10:00etatik 13:00etara.

Liburutegi Ibiltaria urtarrilean

Jai egunak tarteko, aspaldian ez dugu izan Liburutegi Ibiltariaren bisita herrian. Urtarrilaren 14an etortzekoa dela jakinarazi du liburuzainak, 16:00etatik 16:30era. Norbaitek libururen bat eskatu nahi balu, biblilei@navarra.es edo 621 24 80 24 ra idatz dezake.



Azaroaren 25ean hemezortzi lagun elkartu ziren herriko elkartean. UTZITAKOA

CAJA RURAL DE NAVARRA

GIZARTE EKINTZA

HEMEN EGIN.

HEMEN HAZI.

Basoak kudeatzeko plan bat sustatzea

478,03 hektarea basoberritzea eta mantentzea, eta inpaktu positiboa sortzea gure lurraldean

→ Nafarroako Rural Kutxaren Gizarte Ekintza garrantzitsua da.

Hemen egiten dugu gure Gizarte Ekintzak hemen bizi garenoi hazten lagundu diezagun.

INGURUMENA

www.cajaruraldenavarra.com

'Neguan Atekan hotzik ez' zikloa antolatu dute

Kontzertua, dardo txapelketa, poteoa eta dokumental emanaldia antolatu dituzte datozen asteetan Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Neguko egun hotzak goxatzeko hainbat proposamen egin dituzte aurtengoan ere Atekabeltz herrigunean. *Neguan Atekan hotzik ez zikloa* antolatu dute eta ekitaldiak izanen dira abenduan eta urtarrilean.

Abenduaren 20an Pi.L.T taldeak kontzertua eskainiko du. 2024an taldea desegin eta hogeitaz urtera, estudioa itzuli eta *Garai honetan* izeneko abestia kaleratu zuten *Xanpe*, Rafa Ruedak, David Gonzalezek eta Aitor Abiok osatutako laukoteak. Ematen ari diren kontzertu birako emanaldietako bat da Leitza eskainiko dutena. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta ateak 22:00etan irekiko dituzte. Sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke Torrea ostatuan eta egunean bertan sarreran. Abenduaren 26an,



Pi L.T. UTZITAKOA

dardo txapelketa jokatu dute 18:00etan eta ondoren, poteo girotua izanen da gaztetxean bertan. Abenduaren 27an Atarrabian egingen duten Aske Jaialdian Leitzako gazteen argakia ateratzeko 21:00etan elkartuko dira karpenean. Ilbeltzaren 3an, Mikel Zabalzaren heriotzaren 40. urteurreunaren harira egin duten *Non dago Mikel?* dokumentala ikusteko aukera izanen da gaztetxean.



JOSU SANTESTEBAN/NBE

Hiru leitzar Nafarroako finalean

Berezia izan da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala: herri bereko hiru finalista, buruz burukora bi anaia eta txapela Leitza. Joanes Illarregi Marzolek, Eki Mateorena Zozaiak eta Xabat Illarregi Marzolek herritarrak harro egoteko hamaika motibo eman zituzten. Bejondeizuela hiruroi!

Abenduaren 23an eta 24an gazteek gazteentzat antolatu duten hitzordua

TTIPI TTAPA

Gazte Eguneko antolaketan aritu ziren gazteek, Leitzako Gazte Azmarren taldea sortu dute. Urtean zehar ekitaldiak antolatzeko asmoa dute eta abenduaren 23rako eta 24rako egin dute zita. Abenduaren 23an, 21:00etan, eskolako jantokian

afari autogestionatua egingen dute eta 22:30ean jolasak. Abenduaren 24an, 09:00etan Guratzera igoko dira. 12:30ean txapel jaurtiketa egingen dute plazan eta ondoren, triki poteoa. 14:00etan bazkaria izanen dute eskolako jangelan eta ondoren, kontzertu akustikoa.



Elbarren, 14 | LEITZA
622 89 95 47

Jatetxea

Eguneko menua
Asteburuko menua
Taldeentzat menu bereziak
13:30-16:00

Gauean:
Bokatak eta Plater konbinatuak
20:00-22:00 astean zehar
20:00-22:30 asteburu eta jaiegunetan

Tabernako ordutegia: **08:00-00:00**

Hostala

Harrera eguneko 24 orduetan.
Check-in online.
Sarbidea kode sistemarekin.
Gosaria barne.

Ongi etorri gurera!

Eguberrien bueltan urteroko hitzorduak prest dituzte

San Silvestre lasterketaren hamargarren edizioa egingen dute abenduaren 31n

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 19an hasiko da herrian eguberri giroa zabaltzen. Goizean, eskolako jaialdia egingen dute eta 16:30etik aurrera Aralar Musika eskolakoek eguberrietako kantuak abestuko dituzte karrapean. Abenduaren 24an, urtero bezala etxe aurre eta balkoiak Orantzaroekin apaintzeko deia egin du besta batzordeak. Kantu eta musika-rik ere ez da faltako: goizean, baserritar jantziak soinean, kalejira egingen dute. Iluntzean Orantzaroa, Maimur eta gaueko pertsonaiak etorriko dira

plazara. Abenduaren 27an, Jeiki abesbatzak eguberrietako kontzertua eskainiko du elizan, 19:00etan. Abenduaren 31n, 16:30ean, San Silvestre lasterketa antolatu dute. Iaz bezalaxe, adina kontuan hartu gabe, norberak aukeratuko du lasterka egin nahi duen distantzia. Izena emateko aukera abenduaren 30era arte egonen da irekita, kiroldegian edo 623 26 65 82ra deituta. Bukatzeko, urtarrilaren 5ean Erregeak ere etorriko dira, gauerdian helduek eta goizean haurrek zintzarri jotzeak egingen dituzte.

Abade Etxean sutea izan da abenduaren 3an

Auzoko bizilagunek eman zuten abisua eta suak berehala hartu zuten Abade Etxeko teilatua. Leitzako suhiltzaile boluntarioek eta Cordovillakoek bost bat ordu behar izan zituzten itzaltzeko. Teilatua erre da eta ganbaran ere kalteak izan dira, baina artxiboa salbatu dela diote.



Teilatua eta ganbara erre dira.

Kaxkabeltzako bingoa abenduaren 20an

Abenduaren 9tik 19ra herriko komertzioetan erosketa bat egiten dutenek zigilu bat eskuratuko dute eta bost zigilurekin, abenduaren 20an egingen duten bingorako kartoia bat lortzeko aukera izanen dute. Bingoa herri aretoan izanen da 12:00etan.

Jakin nahi? lehiaketa egingen dute abenduaren 19an

Txumitxe euskara taldeak Leitzako hitzekin jolas egiteko proposamena luzatu du. Herri aretoan, 18:00etan, denek aldi berean jokatu dute partida eta erantzun zuzen gehien asmatzen dituen izanen da irabazlea. Hamar urtetik gorakoek parte hartu dezake.

Zinemaz goatzeko aukera abenduan eta urtarrilean

Abenduaren 20an eta 21ean, *Kayara*, *Inka gerlaria* pelikula ikusteko aukera izanen da, 17:00etan eta *La voz de Hind* filma, 19:30ean. Urtarrilaren 3an eta 4an, berriz, *Barrakudaren altxorra* filma emanen dute, 17:00etan eta *Todos los lados de la cama*, 19:30ean.

Urteroko mobilizazioak deitu ditu Sare Herritarrak

Ezinda gehiagoluzatulemapean elkarretaratzea egingen dute abenduaren 31n, 18:30ean. Bertsolariak eta musikariak ere izanen dira. Urtarrilaren 10ean, Bilbora joateko autobusa antolatu dute eta herriko komertzioen laguntzari esker osatu dituzten saskiak zozketatuko dituzte.

'NUUR' antzezlanak ikusteko aukera urtarrilaren 11n

Urtarrilaren 11n *NUUR* antzezlanak ikusteko aukera izanen da Leitzako Herri Aretoan. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta La Banda Teatro Circo taldeak familientzako prestatutako ikuskizuna da, mutua. Sarrerak Internet bidez edo leihatilan eskura daitezke.

'Promesarik txikiena' antzezlanak ikusgai urtarrilaren 9an

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoa babestu du Leitzako Udalak Berastegikoarekin batera. Infinito antzerki taldeak arte egonaldia egin du Leitzan eta emaitza *Promesarik txikiena* antzezlanak izan da. Herri aretoan aurkeztuko dute, urtarrilaren 9an, 19:00etan.

Eguberrietan ere, kulturaz goza ezazu!

Leitzako Udala

kulturalleitza.eus

"Hemengo Produktuak" Erraldoien Denda

OLENTZERO OPARIAK

GOMAZKO ERRALDOIEN SORKETA-LANA
ARTISAUTZA
EUSKAL JANTZIAK
BORDATUAK

Estafeta, 42 IRUÑEA WWW.olentzeroa.com

Taberna-dendari buruzko batzarra abenduaren 23an

Herritarrei proiektua zertan den azaltzea da asmoa eta udaletxeko batzar aretoan elkartuko dira 18:30ean

ENERITZ IRAOLA

Urtea bukatu aurretik, taberna-dendaren proiektua zertan den herritarrei azaltzeko batzarra egitea erabaki dute. Abenduaren 23an, 18:30ean, egin dute hitzordua udaletxeko batzar aretoan. Bertan, hainbat gai landuko dituzte. Haste-ko, talde eragileko kideek beste herrietako proiektuak eza-gutzeko egin dituzten bisitetan bildutakoa azalduko dute. Bakaikuko denda eta Jauntsaratsen dituzten denda eta ostatua bisitatu dituzte. Diru iturriak lortzea da proiektuak

duen erronka nagusienetako bat eta horretarako Nafarroako Parlamentuko ordezkariekin bildu dira udal taldekoak. Geroa Bai, Contigo-Zurekin eta EH Bilduko ordezkariekin egon dira eta bilera horietan hitz eginda-koari buruzko azalpenak eman- go dituzte. Udal arkitektoak taberna eta dendaren planoak ere prest ditu eta horiek ikus- teko aukera ere izango dute batzarrera joango diren herri- tarrek. Bukatzeko, batzarraren helburua eman beharreko pau- soak finkatu eta datak zehazten joatea ere badela aurreratu dute.

Eguberrietan hutsik egiten ez duten hitzorduak

Abenduaren 19an jaialdia izanen dute eskolan 12:30ean. Abenduaren 24an, goizean kantu eskean ibiliko dira eta iluntzean, Olentzero eta Mari Domingik opariak banatuko dituzte plazan. Urtarrilaren 5ean, erregeak etorriko dira iluntzean eta aurretik zintzarri jotzea egingen dute.

Mikel Zabaletarekin solasaldia urtarrilaren 23an

EH Bilduk herri batzarra antolatu du urtarrilaren 23an, 18:00etan, Aresoko Eskole- txean. Mikel Zabaleta parla- mentaria gonbidatu dute eta landa eremuko herrien erron- kak izango dituzte hizketagai. Herritar guztiei egin diete bertaratze-ko gonbidapena.

'Jostailua aukeratzea ez da jolasa!' kanpaina martxan da

ENERITZ IRAOLA

«Jostailuen erosketen inguruan hausnarketa nahiz kontsumo kontzientea bideratzeko eta euskarazko eskaintza sustatze-ko helburuarekin» *Jostailua aukeratzea ez da jolasa!* kanpaina abiatu dute Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gi- zarte Zerbitzuko Prebentzio Programak eta Euskara Zerbi- tzuak. Haien hitzetan, «telebis- tako iragarkiek, garai honetako kaleko apaindurek, eguberrie- tako giroak eta merkataritzaren eskaintza bereziak eragin han- dia dute garai honen kontsu- moan, eta bereziki eragiten diete haurrak dituzten familiei». Hala, «ilusioaren izenean, sarri jostailu edo gailu elektroniko ugari eta inpulsi- biko erostera» jotzen delakoan daude. Eta gehiago ere bai: «Askotan mar- ka jakin batzuek baldintzatu- tako jostailuak» aukeratzen direla ohartarazi dute, «edota haurraren adinera, intereseta- ra edo erritmora egokitzen ez diren produktuak». Gogoratu dutenez, «jostailuek ez dute soilik entretenimendurako balio: haurrak mundua nola uler- tzen duen eta zer balio barne- ratzen dituen ere baldintzatzen dute, bai genero ikuspegitik, bai kontsumo ohiturei dago- kienez. Zoriontasuna objektu materialekin lotzen duten me- zuek arrastoa uzten dute».

Horri buelta eman nahi dio- te kanpaina honekin. 2021eko azaroan jarri zuten martxan, eta geroztik, hainbat material banatu diete familiei. Aurten ere hala egin dute; zehazki, Itzaire Haur Eskolako, Erleta, Xalto eta Nazabal eskoletako eta Amazabal Institutuko 397 familiek hartu dute «neguko oporretan jostailuak modu kontziente, hezigarri eta eus- kaldunean aukeratzen lagun- tzeko materiala».

Euskararen Eguna lagunartean ospatu dute

Euriaren eraginez, azken orduko zenbait aldaketa egin behar izan bazituzten ere giro ederrean ibili ziren abenduaren 3an. Euskararen Eguna ospatu eta Areso euskaraz bizi den herria dela aldarrikatu zuten.



ENERITZ IRAOLA

483,70 euro bildu dituzte Zaporeak elkartearantz

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako ikasleek Zaporeak elkarteari laguntzeko azoka berezia egin zuten abenduaren 2an eta 3an. Eskulanak, jostailuak, liburuak eta postreak saldu eta 483,70 euro lortu zituzten.



ENERITZ IRAOLA

Zenbait ekitaldi urtea borobildu eta berria hasteko

Musika, dokumental emanaldia, mendi irteera eta Olentzero, Mari domingi eta Hiru Erregeen etorrera

TTIPI-TTAPA

Umore Ona abesbatzak eta herriko gaztetxoek eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 19an, elizan.

Abenduaren 21ean, udaletxeko ganbaran egin dute hitzordua, 17:30ean, *Bularretik ehundutako aitortzak* dokumentala ikusteko.

Abenduaren 24an, 11:30ean hasita, eskolako haur eta gaztetxoak eguberrietako kantak kantari ibiliko dira Olentzeroekin. Arratsaldean, berriz, Olentzero eta Mari Domingi 18:30 aldera ailegatuko dira. Ongietorria egin ondotik, goiko frontoian bilduko dira eskutitzak emateko.

Abenduaren 31n, Mandoegiko gailurrera igoz borobilduko dute urtea Arainburu mendi taldeko kideek. Goizeko zortzietan aterako dira plazatik.



Mandoegin brindisa egingen dute.

Bost ordu inguruko ibilbidea osatuko dute eta bakoitzak bere hamaiketako era eman beharko du. Urteari bukaera emateko brindisa egingen dute tontorrean.

Urtarrilaren 5ean Errege kabalkada egingen dute, 18:30ean. Herrira ailegatu direla abisatu dute suziri batekin. Suhiltzaileen etxe paretik hasi eta kalejira egingen dute. Gero, eskoletako frontoian egingen dute ekitaldia eta opariak banatuko dituzte.



FELIX LOIARTE

Feria Egun borobila

Azaroaren 29an herri osoa elkartu zen festa giroan. Goizean goizetik nabari zen saltsa herrian eta eguraldiak lagunduta, itxura ederra hartu zuen plazak: artisauen eta nekazarien postuak, talogileak, herri kirol erakustaldia... Bazkarian frontoia bete zen eta goizaldeko ordu txikiak arte luzatu zen festa.



UTZITAKOA

Burdinolei buruzko museo berezia

Ganbara museo bihurtu eta Goizuetako burdinolei buruz eskolan landu duten proiektua aurkeztu zuten: antzezlanak, lanabesei, burdingintzarekin lotutako sektoreei eta burdinolen funtzionamenduari buruzko azalpenak eman zituzten eta beraiek egindako burdinolen eta meategien maketak erakutsi.

Saralegi
Taloak

Bertakoa, naturala, goxoa!

EGUBERRI
ON!

Saralegi Taloak

ARRO BASERRIA | LEITZA

610 378 543


Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«**Lokal berria erosoagoa da lanerako**»

JOSUNE URROZ
ZU LORADENDA- BERA

Urriaz geroztik kokaleku berria du Berako Zu loradendak. Orain arte, Berako Altzate karrikan zeuden: «Altzateko karrikan egin beharreko lanei buruzko bilera batera deitu gintuzten eta bertan ikusi genuen lanak hamahiru hilabetez luze izanen direla, eta egun batetik bertara hartu genuen lekuz aldatzeko erabakia». Gaur egun, Kanttonberri 6 zenbakian du lokala, eta aldaketa «ilusioz» egin du Josune Urroz arduradunak: «Handiagoa da, eta orain arte leku faltagatik eta hezetasunagatik egin ezin genituen proiektuak lantzeko aukera ematen digu». Onerako izan da aldaketa: «Orain arte genuen lekua motz gelditzen zen eta orain guk badugu lanerako gela bat, eta bezeroek badute sartu eta ikusteko espazio gehiago. Lan egiteko erosoagoa da».



«**Aeroterminia instalazio asko jartzen ditugu**»

ARANTXA AGIRRE
GAZTELU ITURGINTZA- LEITZA

80 urteko ibilbidea du Gaztelu iturgintza enpresak, eta hiru-garren belaunaldiak darama orain. Halaxe azaldu du Arantxa Agirrek: «Hasiera batean herrian aritzen ginen, baina kanpora ere zabaldu ginen gero eta orain bietan aritzen gara, herrian eta kanpoan». Gainera, negozioa «zabaldu» ere egin dute: «Fatxada asko birgaitzen ari dira, eta horretan nahiko sartuak gaude», azaldu du. Energia berriztagarriekin ere aritzen dira lanean: «Orain aeroterminia instalazio asko jartzen ari gara». Bestelakoan, negu atarian, lehen hotzak etortzean lan askoko unea izaten dute: «Lehenengo hotzak hastean, kalefakzioa piztean beti izaten dugu lan pilatu piska bat, instalazioa geldi egon denez, errebisioa pasatu behar delako».



«**Entzumena begiratzea ere garrantzitsua da**»

ANGEL ARRAZTOA
ARGIBEL OPTIKA- ELIZONDO

Entzumena eta ikusmena aztertzen dituzte Elizondoko Argibel optikan. Baztan eta Mallerreka inguruko bezeroak dituzte gehienak, eta hain zuzen ere hori da gehien eskertzen dutena bezeroek: «inguruan horrelako zerbitzua izatea». Angel Arraztoa azaldu duenez, ikusmena aztertzeko ohitura badu jendeak, baina entzumena aztertzea oraindik ez da hain ohikoa: «Entzuteko arazoren bat baduzu, horrek eragin handia du sozializatzeko garaian. Arazoa soluzionatzeko bidea bada, jendeak egiten du. Erretiratuak badute dirua eta modua horretarako». Errebisioak egitearen garrantzia azpimarratu du arduradunak: «Guk bi urtetik behin bidaltzen ditugu abisuak errebisioa egiteko. Jendeak begiratu dezala ikusmena eta baita entzumena ere».



«**Merkea garesti ateratzen da batzuetan**»

ROBERTO MIGUELENA
MIGUELENA SUKALDEAK-DONEZTEBE

Donezteben dago Miguélena etxetresnak, eta bertako arduraduna da Rober Miguélena. Sukaldeak muntatzen egiten dute lanik gehien, baina etxetresnak moldatzen geroz eta maizago aritzen dira. Hala azaldu du: «Inguruan teknikari gero eta gutiago ari dira konponketak egiten eta etxetresna on samarra izanez gero, merezi du konponketa egiteak». Kontatu duenez, Internetez erosteko ohitura igo egin da, eta «jendeak marka arraroak erosten ditu, merkeak, eta lehenago hondatzen dira». Horren aldean, «guk marka onak saltzen ditugu, ezagunak, piezak lortzea erraza da eta gero konpondu daitezke. Hori gomendatzen dugu, garestiagoa izaten ahal da, baina epe luzera horrekin aurrezteko lortzen duzu. Merkea garesti ateratzen da batzuetan».



Ez naiz ezkututzen. Gardena naiz.

Ostalaritza, hondakinen bereizketarekin konprometituta.



Asador Mediavilla
Zangoza



Bar Mekness
Ilunberri



Casa Vidaurre
Erriberri



Hostal Betelu
Betelu



Asador Zubiondo
Lesaka



Asador Mosaico
Villafranca



Rest. Baratze
Aurizberri



Bar Frontón Toki Eder
Agoitz



Rest. Izar Ondo
Arbizu



Asador El Cerco
Artaxoa



Aurtizko Ostatur
Ituren



Bar Piscinas
Milagro



Errekalde Ostatur
Bera



Rest. Kirol
Aiegi



Bar Sobrino
Elizondo



Bar La Placeta
Tafalla



Rest. Ibarraetxea
Garaioa



Venta de Larrión
Larrión



Bar Zortziko
Leitza



Balneario Elgorriaga
Elgorriaga



Casa Martija
Gares



Camping Arbizu
Arbizu



Lekuonberri Taberna
Lekunberri



Rest. Santxotena
Elizondo



Rest. Beti Jai
Agoitz



Greba iragartzeko azaroaren 24an egin zuten prentsaurrekoan. ELA SINDIKATUA

Abenduaren 24ra arte greban Benito Menniko langileak

Abenduaren 1ean hasi eta 24an akituko dute zortzigarren greba txanda izanen dena; hala, 112 greba egun eginez

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Hermanas Hospitalarias enpresak duela urte bat hetsi zuen Elizondon dituen hiru eraikinetako bat, eta geroztik, borrokan ari dira langileak, «kaleratzeak, lan baldintzak eta erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua okertu direla» salatuz. Egin dituzte mobilizazioetan, «bai enpresari, bai Nafarroako Gobernuari konponbidea» eskatu izan diote. Bide batez, osasun mentaleko zerbitzuaren «arduradun nagusia» Nafarroako Gobernua dela erran dute langileek: «Zerbitzu publikoa da, azpi-

kontratatua, eta diru publikoarekin mantentzen da. Onartezina da gobernuak enpresari onura pribatuak lehenesten uztea, zerbitzua, enplegua eta lan baldintzak kaltetzearen kontura». Hala, bai erabiltzaileen eta baita horiek artatzen dituzten langileendako «baldintzak hob-

«ALDARRIKAPENAK LORTU BITARTEAN BORROKAN SEGITUKO DUGU»

tzeko benetako negoziazioa» eskatu dute eta administrazio publikoaren esku hartzea aldarrikatu dute.

Are gehiago, langileek oroitari dute, «gehienak emakumeak» direla, «prekarietate egoeran» daudela, «genero arrakala» sufritzen dutela eta «diskriminazio garbia» jasaten dutela: «Eta hori guzua Nafarroako Gobernuaren onespenerarekin eta enpresaren etekinak handitzeko». Argi mintzatu dira: «Ez erabiltzaileak, ez langileak ez gara merkantzia». Eta itxitako eraikinean adingabe migratzaileendako zentro bat irekiko dutela eta, honela erran dute: «Ez da zilegi guri sortutako kalteak kontuan izan gabe, Nafarroako Gobernuari eta enpresari interesatzen zaien bertze proiektu bat aitzinera ateratzea. Beraien ardura da, eta ondorioz, beraiei dagokie irtenbide duina ematea».

Horregatik, 24 eguneko greban daude zentroko langileak, eta horrekin batera, abenduaren 12an beraien aldarriak Iruñeraino eramane zituzten Nafarroako Parlamentua osatzen duten alderdiak, bide batez, egoeraren arduradunak direnak interpellatzeko asmoz: «Ozen salatu dugu gertatzen ari dena, eta beraien eskuduntzak erabil ditzaten eskatu diegu. Nafarroako herritarrak kalitatezko zaintza merezi dutelako, eta diru publikoaren erabilera egokia ziurtatzea dagokielako».

Aurtengo hondar dantzak egingen dituzte Elizondon

Hilabeteroko legez, Elizondoko Gaiteroek Baztango herriren batean geldialdia egingen dute eta dantzak joko dituzte igande eguerdian jendea plaza giroan bilduz. Hala, urteko hondar geldialdia Elizondoko plazan egingen dute, abenduaren 21ean, 12:30ean.

Magia ikuskizuna eskainiko dute Iruritan igandean

Hodei magoak Tutti-magia ikuskizunaren erakustaldia egingen du Iruritan, Gizarte Bilgunean, igande honetan, 17:00etan. Ilusionismoaren artea izanen du hizpide eta, bide horretan, egoera arrisurtsuetatik barregarrienetara igaroko da emanaldian.

Bertso saio musikatua prestatu dute hilaren 27rako

Arizkunenean izanen da heldu den larunbatean, 18:00etan. Bertsolariak Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Urko Gartzia eta Julio Soto izanen dira eta gai jartzailea, berriz, Amaia Agirre. Bertzetik, musikariak Izargi Zumarraga eta Nahia Baylon izanen dira.



ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean



Udala adingabe migratzaileendako zentroaz mintzo

Nafarroako Gobernuak adingabe migratzaileendako harrera zentroa egokituko du Elizondoko Benito Mennin

TTIPI-TTAPA ELIZONDO
Hogei adingaberentzako lekua izanen du harrera guneak eta Nafarroako Gobernuaren ardurapeko Gizain Fundazioak kudeatuko du. Elizondoko Benito Menni zentroko Bertiz eraikinean kokatuko dute harrera zentroa. Hain zuzen, iaz, eraikin hori hetsi zuen Benito Menniko zuzendaritzak eta geroztik itxiera salatzeke eta lan baldintzak hobetzeko greban daude langileak. Hala, Baztango EH Bilduk adierazi du gobernuak hartutako erabakiak «hustu berri den espazioa alokatu eta bertze erabilera bat emateak Benito Menni enpresak egindako murrizketak babesten duela».

Bidenabar berretsi du ez dela EH Bilduren erabakia izan ez Benito Menniko murrizketak egitea ezta gazteak bertan instalatzea ere, eta gobernuak hartutako erabakiak «modu extraofizialean» jakin dituela udalak gaineratu du.

Elkarbizitza
Hala ere, koalizioak positiboki baloratu du gobernuak gaz-

te migratzaileen harrera politiketan egindako aldaketa, «gazteak zentro guti batzuetan pilatu beharrean, gazteak zentro gehiagotan banatzea, tartean Baztanen, horrek arreta egokia bermatu eta gazteen eta tokiko komunitatearen arteko elkarbizitza erraztu eta naturalizatzen» duelako.

Gazte horiek kriminalizatzeko sortu daitezkeen zurrumurru eta diskurtso faxisten aitzinean, «gazte horiek ez dutela beraien sorteterrira kapritxo utzi» azpimarratu du EH Bilduk: «Sistema kapitalistak hegoalde globaleko herrialdeetan ezartzen duen ustiatze eta esplotazio basatiaren biktimak dira».

Gisa berean, horrelako zentroen kudeaketan «esperientzia positiboak» egon badaudela dio EH Bilduk, eta horietan, tokiko eragileak eta zentroa kudeatzen duen fundazio publikoa «elkarlanean» aritzen direla. Horregatik, gazte horiek «bantzandar denen laguntza» behar dutela oroitarazi dute eta «zurrumurru faltsuen» sarean ez erortzea eskatu dute.



AINZANE ARIZTEGI

Euskararen Eguna suaren bueltan

Baztango gaztetxean abenduaren 3an, Euskararen Egunaren seinalea egin zuten eta, hotzetik eskapo, sutondoan bildu ziren herritarrak Danel Galdaera eta Beñat Iturbe euskal artisten bakarriketak aditzera. Hala, hurbildu zirenek elkarren artean xamurtasunez borobildu zuten eguna.

Zuhaitz kimaketen harira, kezkatuta agertu da Baztango Talde Ekosoziala

LEIRE MIHURA BAZTAN

Azaroa akitu baino lehenago zuhaitzak kimatzeari ekin ohi diote herrietan. Hala, Baztango Talde Ekosozialak horren inguruko kezka erakutsi du; zuhaitzak oraino neguko geldialdian ez daudela ziurtatu dute eta, bide batez, «formazio mozketak ez ezik, urteroko ohiturak bultzatutakoa» dela gaineratu dute.

Gisa berean, Talde Ekosozialak adierazi duenez, «zuhaitzak behar baino lehenago kimatzen dira» eta jokabide horrek «urteik urtera muinoak



Berriki kimaturiko zuhaitza.

eta zauriak bertzerik ez dizkio ekarriko zuhaitzari». Alta, «oraino minetik at» mantendu daitezkeenetan paratu du arreta: «Zuhaitz gazte horiekin zergatik horrela segitu?».

**PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK**

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadak guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU!
gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com



Baztandarrek jatetxeko muralarekin. SAN FRANCISCO BASQUE CULTURAL CENTER

Baztandarren Biltzarra ospatu dute Bakersfielden

Aurten, lehenbizikoz, Baztandarren Biltzarra Kaliforniaraino iritsi da eta han bizi diren 200 baztandar baino gehiago bildu dira

TTIPI-TTAPA KALIFORNIA/BAZTAN

Ospakizuna azaroaren 1ean egin zuten, euskal artzainen artean arrazeguna den Wool Grovers Restaurant jatetxean; kanpoko murla euskaldunen leku kuttuna dela erakutsiz. Orgarik ez zuten plazaratu, baina bakoitzaren sorteria seinalatzen zuen kartelarekin agertu ziren harro. Denera 201 lagun elkartu ziren eta jatetxean leku faltagatik, batzuk kanpoan gelditu ziren. Baztango hama-bortz herrietako herritarrek hartu zuten parte. Elbetetik bat bakarrik joan bazen ere, eta Lekarozko Ortiborroa etxe-

koen aldetik gehienak, inork ez zuen hutsik egin. Leku anitzetatik hurbildu ziren bestara; han sortutako gazteen belaunaldi berriak barne. Adaxkak zabaltzen ari dira, adar bihurtzen.

Bakersfield... Baztanfield?

Azaroaren leko elkarretaratzea nahikoa ez balitz, hilaren 23an Chino hiriko Chino Basque Clubean 200 lagunetik goiti elkartu ziren, bertze behin, mahaiaren bueltan. Bide batez, elkarren arteko harremanak ez galtzeko eta elkarren berri izateko, elkar goxatzeko.



Haurrak pijamekin beztituak, euren desioak zintzilikatzen. MIREN SOBRINO

Pijamaren eguna egin dute Almandozko eskolan bertze urte batez

LEIRE MIHURA ALMANDOZ

Azaro akaberan, egitasmoz beteriko egun berezia izan zuten Almandozko eskolan eta pijamekin beztituak joan ziren haurrak eta irakasleak. Familiaren garrantziaz mintzatu ziren eta Magale Elkar-teko kide den Ana Fernandez Pijama Egunera batu zitzaizen,

berak harrera familia gisa bizitako esperientzia partekatzera. Bertzetik, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egurenaren seinale egin zuten eta familian bizitzeko eta zaindua izateko eskubideez aritu ziren. Azkenik, etxetik oihaletan idatzita ekarritako desioak zintzilikatu zituzten.

Santa Zezilia eguna musikaren doinuaz Elizondon

Eskualdeko bertze zenbait herritan bezala, Baztanen ere ibili ziren musikariak karrikaz karrika, Santa Zezilia eguna ospatzeko. Elizondon, Recreo musika bandakoak ibili ziren azaroaren 22an, musika doinuak lau haizetara hedatuz.



Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ARQUITECTOS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

DESIGNER
CERTIFIED
PASSIVE HOUSE
DESIGNER

oteizaarquitectos

Carlos Garaikoetxea Etxenike
ABOKATUA

DIBORTZIOAK | HERENTZIAK
ALOKAIRUAK | ALKOHOLEMIAK

T. 948 581 468 | M. 630 354 818 | Santiago, 59 2C ELIZONDO



Emakumeak elkarri helduta, eurek sortutako muralarekin. CECILIA ADIN

Emakumezkoen belaunaldi arteko topaketa egin dute

Azaroaren 25aren harira, *Indarrak batu elkarbizitza seguru baten alde* lelopean «adin mugak hautsi» dituzte emakumeek

LEIRE MIHURA ELIZONDO

Jakina da azaroaren 25a indarkeria matxista gaitzesteko eguna izanik, egutegietan morez markaturiko eguna dela. Alegia, Baztan Iñarrosik, Baztango talde feministak, azaroaren 25a morez markatu ez ezik, azaroko hilabete osoa morez markatu du aurtengoan

eta Elizondoko adinekoen egoitzako zenbait emakumerekin belaunaldi arteko topaketa «aberasgarria» egin du astez aste.

Zorione Mendez artista oriotarra bidelagun izan dutela, azaroko hiru ortziraletan bildu dira hainbertze belaunalditako emakumeak Elizondo-

ko adinekoen egoitzan eta jardunaldian edukitako hartu-emanen erakusleho, *Indarrak batu elkarbizitza seguru baten alde* lelopean mural koloretsua osatu dute.

Muralaren nondik norakoak

Oro har, muralarekin bilkuraz bilkura elkarren artean partekatutako bizipen, elkarriketa eta hausnarketa oro materializatu nahi izan dituztela azaldu dute Baztan Iñarrosi taldekoek: «Muralaren zaitei dagokienez, ezker aldeko eskuek elkarren zaintzari egiten diote erreferentzia; bertetik, erdiguneko katiluak lagun artean, elkarri zaintzen igarotako arratsaldeak oroitarazten ditu; elkarriketa sakoneko arratsalde horiek, zeinetan noizbehinka indarkeria kasuak ere atzeman izan diren. Azkenik, katilutik sendoak zein hauskorak izan daitezkeen mitxoletak ateratzen dira; elkarbizitza seguruaren irudikapen gisa». Are gehiago, murala denbora batez Elizondoko plazan ikusgai egonen dela jakinarazi dute. Horrez gain, horrelako topaketaren bat bertze behin egin ahal izatea ongi legokeela gaineratu dute gogotsu.

Ttikienendako haur txokoa sortu dute berriki Elizondon

LEIRE MIHURA ELIZONDO

0 eta 3 urte bitarteko haurrendako haur txokoa martxan paratu dute zenbait gurasoren artean Elizondo Lanbide Eskolan: «Harreman sozialak, euskararen erabilera eta herri partaidetza uztartuz, haur zein familiendako jolas librea sustatuko dituen». Ortzegunetan, ortziraletan, larunbatetan eta igandetan izaten dituzte bilkura egunak; 16:30etik 19:30erat eta igandetan, ordu horiez gain, 11:00etatik 14:00etara ere.

Bertetik, txokoa hornitu ahal izateko materiala biltzen ari dira eta herritar orori zabaldu diote deialdia; jostailu, ipuin edota bertzelakoak emateko gomita zabalduz. Are gehiago, gastuak estaltzeko ekimenean parte hartuko duen familia bakoitzak urtean 10 euroko kuota ordaindu behar duela jakinarazi dute eta parte hartu nahi izanez gero, 643605525 edota 677301846 zenbakira deitu daiteke.

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Klima aldaketari buruzko erakusketa ikusgai Elizondon

Nafarroako Gobernuaren klima aldaketaren inguruko erakustaldia Arizkunenean egonen da hilaren 21era arte

LEIRE MIHURA ELIZONDO

Baztango Talde Ekosozialak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren LIFE-IP NaDapta-CC proiektuak sorturiko klima aldaketaren inguruko erakusketa ibiltariak Baztanen geldialdia egitea lortu du. Hala, hilaren 21eraino erakusketaren atea zabalik egonen dira Arizkunenean.

Talde Ekosozialak azaldu duenez, «klima aldaketara egokitzeko Nafarroan egindako jarduerak erakusten ditu» erakusketak. Euskaraz idatzitako 10 panelen helburua «egungo errealitate klimatikoaren eta emisioen agertoki desberdinetatik eratorritako etorkizuneko aurreikuspenen inguruko kontzientzia piztea» dela gaineratu du. Bide batez, klima aldaketaren aitzinean



Hamar panelen erakusketa.

Nafarroak segitzen duen plana ardatz hartzen dela azaldu du taldeak eta nondik norakoak zerrendatu ditu: «Europako proiektu integratu honek di-tuen 6 jardun eremu tekniko-en inguruan egindako jarduketak erakusten ditu: klima aldaketaren monitorizazioa eta to-kiko ekintza klimatikoa, ura, mendiak, nekazaritza eta abeltzaintza, osasuna eta azpiegiturak eta lurralde plan-gintza».



Aniztarrek mahaiaren bueltan lehengo kontuak aditzen. MAITANE MARITORENA

Aniztarrek asteburu kulturala ospatu dute abenduaren 5ean eta 6an

MAITANE MARITORENA ANIZ

Urtero bezala, aurten ere, ezin hobe joan da Anizko asteburu kulturala. Ortziralean, herri kirolean aritu ziren haur eta gaztetxoak, ondotik elkartean afaltzeko aukera izan zuten, haur-gazte eta heldu, 45 lagun inguru bildu ziren mahai bueltan.

Larunbat goizean, hondarreko urteetan egin izan den bezala, paraje izenak paratu zituzten: aurtengo izenak Apeziturri eta Plaxaxar. Bi izen horiekin 21 dira Anizko inguruetan paratutako toponimoak. Ondotik, elkartean mahai jo-koetan aritu, aperitiboa hartu... eta arratsaldeko ekitaldi artio. Arratsaldeko laueta Emilia eta Ana Mari garai bateko eskolako kontuak azaltzen aritu ziren. 82 eta 92 urte dituzte hurrenez hurren eta garai bateko eskolako argazkiak lagun,

aniztar andana bildu zen bi emaztekin garai bateko Gan-txitoneko eskolako kontuak aditzera. Maritxu Lizarrondo maistra ere goraipatu zuten biek, Frankismo garaian eus-kara debekatua egonagatik, Anizko haurrei egundaino ez baitzien zigortu euskaraz egi-teagatik eta euskararen kontrako jarrerarik ere ez baitzuen erakutsi. Solasaldiaren akabailan, eskertza gisa, zurezko ikasmahai ttipi bat (garai har-tan eskolan zituzten pupitreen gisakoa) eman zitzaizen bi emaztekiei. Ondotik, orain dela 30 urte Anizko frontoia estali zuteneko inaugurazio bideoa ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek eta hunkigarrria izan zen. Azkenik, Joanes Illarregi eta Maddi Ane Txo-perena bertsolariekin mahai giro goxoan agurtu zen aste-burua.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com |

Desguaces Tafalla
Ibilgailuak guk biltzen ditugu.
Ibilgailuak desmuntatzen ditugu.
Piezak banatzen ditugu. Bidalketak Europa osora.
Ibilgailuei baja emateaz arduratzen gara.

Piezen disponibilitatea kontsultatu: desguacestafalla.es

Harremanetarako tel.:
948 702 730

Eskaerak egiteko tel.:
747 755 324

Lizarra erreplidea, 31. km, 6, 31300 Tafalla, Nafarroa

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGUURAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
 + 34 948 580 804

Izterpeko Matxina irratsaioa martxan du talde ekosozialak

Bizikletaren kultura landu eta bultzatu nahi dute, eta hilabetearen behin, azkeneko ortziralean emanen dute Xorroxin irrartian

LEIRE MIHURA

Egunerokoan bizikletan ibiltzeari buruz solastatzeko helburuarekin, *Izterpeko Matxina* irratsaioa paratu du martxan Baztango Talde Ekosozialak.

Behin baino gehiagotan aritu izan da talde ekosoziala bizikletan ibiltzeko ohiturez, eta bizikletan ibiltzeko kultura indartzeko, jardunaldiak eta tailerrak ere antolatu izan ditu. Orain, berriz, bertze pauso bat eman du, eta «bizikletaren kultura landu eta bultzatzea helburu» duen *Izterpeko Matxina* irratsaioa sortu du. Azaroaren



Saioa iragartzeko erabilitako irudia.

28an egin zuen estreinaldia Xorroxin irrartian.

Talde ekosozialak adierazi duenez, «krisi ekosozial aldi honetan, antolamendu soziala deskarbonizatzeko eta herri-

guneak bizigarriago eta osasuntsuago egiteko, mugikortasunak, eguneroko mugikortasunak garrantzi handia hartu du, eta horren baitan, bizikleta bidezko mugikortasunak». Bere irudiko, «bizikleta mugikortasunak balio kultural zakua dakar berarekin, historia, artefaktuak, azpiegiturak, kantu eta literatura, istorio, pasarte eta bizipenak...». Hain zuzen horiek izanen dira «saioaren muina».

Irratsaioak hilabete bakoitzeko azken ortziralean egingen dituzte. Ordubete inguruko emanaldiak izanen dira, eta irrartian eman ondotik, www.erran.eus atarian aditzeko moduan izanen dira. Saioaren nondiko norakoak segitzeko Instagramen *izterpeko_matxina* kontua ireki dute, eta Telegramen *izterpeko_matxina* kanala. Bide batez, Xorroxin irratiari eskerrak eman dizkionte, «saioa egiteko irratiak azpiegitura eta baliabideak erabili» dituztelako.

Urrutikoetxearen liburu aurkezpena bertan behera

Amezti elkarteak antolatuturik, Josu Urrutikoetxeari buruzko liburuaren aurkezpena egiteko zuten abenduaren 18an, elkarrean, eta Urrutikoetxeak telematikoki parte hartzeko zuten. Baina Espainiako epaileek bere aurka abiatutako ekinbidea tarteko, alde batera utzi dute.

Baztango Mendigoizaleen azken ateraldiak

Urtea hasi zenetik hainbertze mendi ateraldi egin ditu Baztango Mendigoizaleak taldeak, eta urteko bi azkenak ere prest ditu. Abenduaren 21ean 07:30ean Lekaroztik abiatuta, Legatera joanen dira, eta abenduaren 28an, ordu berean Erratzutik abiatuta Auzara.

Eguberri hauetan hartu oparitan betirako gordeko dituzun une goxoak.

EGUBERRI ON!

tanatorioak
IRACHE





Azketako komuna publikoa. Bertze bat egingen dute lezeko sarreran.



Etxeberriko belaian mahaia eta aulkiak jartzeko asmoa dute.

Hainbat hobekuntza egiten ari dira leze inguruan asteotan

Komuna publikoa egingen dute, Lezapeko belai edekiko dute eta gurgildun aulkiendako bidexka egokituko dute

MARIFA ETA KORO

Hartutako bi dirulaguntzei esker, hainbat hobekuntza egingen dira herrian. Hasteko, plazako eta Azketako bi komuna publikoez gain, bertze bat egingen dute lezeko sarreran. Orain dagoen takilen eraikina moldatuko dute eta, lan horien artean, komunak ere egingen dituzte. Sarrera kanpoko aldetik egingen dute eta, hala, han barna pasaietan ibiltzen direnek ere sartzeko manera izanen dute. Gainera, lezetik Eltsospera doan orga-bidea lahar eta sasiz garbituko dute jendeak bide hori

erabili ahal izateko, gaur egun arras hetsia baita.

Duela urte batzuk herriak erositako Lezapeko belai ere edekiko dute. Leze ttikiko eskaileretako alanbrea kenduko dute eta hortik izanen du sarrera nagusia, eta bertze sarrera bat ere izanen du, Eltsospe aldetik. Belai honetan mahaia eta aulkiak jparatuko dituzte. Leze ttikiko zola eta harriak babesteko, pasabide bat egingen dute, jendea hortik ibiltzera obligatuz.

Eta azkenik, gurgildun aulki dabiltzanak lezerat erraz sartu ahal izateko, zenbait



Lezeko behin behineko takilla eskolako etxolan paratu dute.

hobekuntza egingen dituzte: Etxeberriko belai bidetik autoa sartzen ahal izanen dute eta beraieendako aparkaleku tiki bat egingen dute zikiroko taulak lehen uzten ziren tokian. Pertsona hauek azpiko atetik sartu beharko dute, atezain automatiko batetik, eta hor hasi eta lezea finitzen denaraino 1,80 metro zabaleko bidexka egoki bat izanen dute. Erreka gurutzatzeko zubia ere aldatuko dute, bertze alderai no pasatzen ahal izateko.

Leihatila eskolako plazan

Dirulaguntzei esker ordainduko dituzte lanak, baina horrek duen xikana da obrak otsailerako finitu behar direla. Luzatuz gero, dirulaguntza galduko da. Hori dela eta, abenduaren 9tik aitzinera lezeko sarrera hetsia da (takillako etxolaren lanak hasteko), eta sarrerak saltzeko behin behineko etxola eskolako etxolan jarri dute. Lezea urtarrilean hetsirik egonen da, lanak lehenago finitzeko.

ARRECHEA
TABAKOAK

ZIGARRO PURUEN CAVA

TABACOS
ARRECHEA

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | arrechea.estanco@gmail.com

Dantxarineko kantu zaharren bazkaria arrakastatsua

Azaroaren 29ko ospakizunean jendetza bildu zen berriz ere, giro ederrean, kantu eta dantza artean

ARANTXA ETXEBERRIA

Azaroako asteburu bat gorritz markatua izaten dugu urtero herrian eta aurtengoan ere, aurreikuspenak bete ditu ospakizunak. Dantxarineko kantu zaharren bazkaria egin dute azaroaren 29an eta jendetza bildu da. Angel Mariezkurrenak antolatutako hitzorduan hainbat gonbidatuk parte hartu zuten, bertzeen artean, Aitor Ibarra *Jaliskok*, Jaione Olazabal eta bere familiak... eta haien emanaldiaz gozatuzetakuntuan, ederki pasa zuten bertaratu zirenek. Kantariez gain, Leitza-ko Aurrera dantza taldeko dantzariak ere emanaldi ederra eskaini zuten, Aurrezku eta guzi.

Duela hogeit urte baino gehiago antolatu zuten lehenbizikoz Dantxarineko kantu zaharren bazkaria eta urtetik urtera indar gehiago hartzen ari da.



Giro bikaina izan zuten.

Baserriberri proiektua

Abenduaren 11n aurkeztu zuten Baserriberri proiektua Dantxarinean. Proposamen berritzaile bat da, eraikuntza tradizionalak berritzea bilatzen duena, zurgintzako tekniketan trebatuz. Enplegu bila ari diren pertsonen zuzenduta dagoen eskaintza da eta landa eremuetako eraikin tradizionalak birgaitzeko zurgintza tekniken mugaz gaindiko prestakuntza eskaintzea da asmoa.



ARANTXA ETXEBERRIA

Abenduko mendi ibilaldia

Hilabete hasieran beti izaten da elkartzeko aukera Urdazubin mendi ibilaldi batez gozatzeko. Abenduaren 7an ere, hilabeteko lehen igandea baitzen, 42 lagun elkartu ziren mendi itzuli polit bat egiteko, denbora ederrak lagundurik. Gero, indarrak hartzeko, Karreteron bazkaria izan zuten.



UTZITAKOA

Antzanbordako mus txapelketa

Abenduaren 6an Montxo ostatuan jokaturako Antzanborda mus txapelketako hiru bikote onenak ageri dira argazkian. Beñat Etxebere eta Unai Urrutia txapeldun, Amaia Etxabe eta Haritz Iturburua txapeldunorde eta Eaul Hernandez eta Julen Cordoba hirugarren. Sari ederrak izan zituzten.

Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira plazara abenduaren 24an

ARANTXA ETXEBERRIA

Abenduaren erdialderat ailegaturik, eguberrietako ospakizunei begira daude herritarak ere. Olentzeroren etorrera ere hurbiltzen ari da. Urteroko gisan, abenduaren 24an Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera izanen da he-

rrian, arratsaldean. Iluntzearekin batera, eguberrietako bi pertsonaiak Urdazubira hurbilduko dira haurren nahiak entzun eta momentu goxo eta ederrak pasatzera. Beraien eskariak aditu, musuak eta besarkadak banatu eta joanen dira bueltan.

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com

Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Irakurketa eta antzerkia 'Mugaz gaindi' burutzeko

Migrazio ibilbideen inguruko zikloa hilaren 28an bukatuko da, geroztik irakurketa saioekin eta arratsaldean 'Miñan' antzerkiarekin

GANEX

Sarako hamar elkarte bildu dira kultura, memoria eta migrazio ibilbideen inguruko lekukotasunak erdigunean jarriko dituen egitaraua antolatzen. Proiektua euskarazko Miñan antzezlanaren azken emanaldia Sarara ekartzeko proposamenetik sortu zen.

Amets Arzallusen liburuan oinarritutako antzezlanean, egileak Ibrahima Baldé gazte ginearraren benetako historia kontatzen du; Irunen ezagutu zuen, eta bere anaia txikia aurkitzeko Afrikan barna egindako odisea kontatzen du. Antzezlanak Euskal Herri osoan gaindi ibilia da, baita hilabete batez Londresen ere. Ohore handia da bira Saran finitzea, historian zehar Sara askotan harrera herria izan baita.

Mugaz gaindi zikloa abenduaren 5ean abiatu zen, Amets Arzallusen solasaldiarekin. Hilaren 12an, Fermin Mugaruzaren Bidasoa 2018-2023 dokumentala eman zuten. Zikloa finitzeko, abenduaren 28an, larunbatean, 10:00etatik aitzina, mediatekako anima-

tzaileek hautatutako liburuen irakurketa saioak eskainiko dituzte mediatekan eta kiroldegian. Arratsaldeko bortzetan ekitaldi nagusia. Miñan antzezlanaren azken emanaldia izanen dute herriko gelan. Sarrerak 13 eurotan daude salgai Interneten.

Ekitaldi hauek denak, herriko elkarteetan lankidetzarekin eta herriko etxearen laguntzarekin antolatutako, elkarrizketa, kultura eta elkartasuna sustatzeko gune bat irekitzea dute xede, «gure inguruko errealitateei buruzko gogoeta partekatzeko».

Plekan bertso-pilota abenduaren 27an

Olhain ikastolak antolatutako bertso-pilota jaialdia izanen da abenduaren 27an Plekan. Pilotan Mikel Goñi eta Aritz Lekuona, Oinatz Bengoetxea eta Unai Iribarrenen kontra ariko dira. Ekhiñe Zapiain eta Amets Arzallus bertsolariak izanen dituzte laguntzaile. Sartzea 10 euro (12 urtetik goitikoek), Pleka trinketean edo 06 58 51 94 39 SMSan.



GANEX

Hiru emazte erretretan sartuak

Kattin Gerendiain (21 urtez herriko gelak garbitzen), Aña Lassere (herriko etxeko bulegoetan) eta Tehesa Guijaro (35 urte argibide sindikatan) erretretan sartu dira. Battite Laborde auzapezak ohoreak egin dizkie eta herriko kontseiluak eta beren laneko lagunek opariak eman dizkiete.



GANEX

Eguberriko merkatu ederra

San Josepe eskolako haurren burasok antolaturik iragan da hazilaren 29an eguberriko merkatua. Larunbatez, egun osoan, Lur Berri gelan 19 mahai baziren. Olhain ikastolak ere bazuen berea egina. Denek bazituzten gauza ederrak, partikulazki haurrentzat, eguberriak hurbilduak baitira.

IBARDIN 31780 Bera BEHOBIA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia, astelehenetik igandera arte.
*Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik

Jantxidendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jatetxeak · Ostatuak · Sagardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 20an datoz plazara

Olentzero etorriko da Mari Domingirekin abenduaren 20an. Larunbatean, 16:00etan krakada Lur Berri gelan, 16:50ean desfilea, 17:00etan kantuak eta dantzak, 17:30ean musikariak eta gaztainak plazan eta 18:30ean Supitzen sua eta Zazpiak Bat dantza taldea.

Sorgin ehizako biktimak omendu ditu Lapurdi 1609k

Azaroaren 25ean Oroit-Minaren eskulturaren egindako omenaldian 112 biktimen izenak gogoratu zituzten

JL BESSONART

Beharrik herriko etxeko langileek, oihalezko leihorra eraikia zuten Oroit-Minaren saihe-tsean, hurbildu den publikoa euri zaparradetatik geriztua izan zedin. Elkartearen izenean Benat Sagardia kideak aurkeztu du ekimena, oroitaraziz sorginkeriararen kontrako ihizia eta zer basakeriak jasan zituzten garai hartako biktimek. 112 biktimen izenak eskuratuak izan dira eta herriz herri zerrendatuak plaka batzuetan, hauetan gehienak emazteak, baita 10 bat apez ere. Jaun merak eskertu ditu memoria berpizten aritu diren kideak, Auxtin Zamorak aldiz, bere lekukotasunean, haurtzaroan ongi ezagutu zuen gune hori aipatu zuen. Aterrate bat balia, aurrekua eskainia izan da Bazterretxearen eskulturaren aitzinean, jarraian Maddi Ane Txoperenak bertso hunkigarriak ahozkatu ditu. Parte hartzaileek segitu dute arratsa Larreko kulturgunean, zintzur bustitze, dantza eta Asisko Urmenetaren *Sorgina banaiz* dokumentala deskubrituz.



Dantzariak aurrekurako prest.

Azkeneko herri kontseilua

Gai bat bereziki azpimarratzekoa izan zen herriko kontseiluaren azken batzarrean: nola gaur egun hain zaigun mingarria eta kezkarria, horra gure suprefetari ez zaio la gustukoa gure herriko birlilguneen izenek sobera euskarazko hitz luketela eta, aldiz, ez aski frantsesez. Ikusten dugularik euskararen egoera larria, holako agintza baten beharra genuen!



JL BESSONART

Liburua Familian hamargarren edizioa

Ekitaldia arras ongi joan da, iaz baino jende gehiago ibili baita eta liburu saltzaileak pozik. Euskarazko liburuak aurkezten, bortz idazle: Franck Dolosor (*Gernika batailoia*), Itxaro Borda (*Gure kare-bihotzak*), Maialen Alfaro (*Goazen oihanera*), Jon Abril (*Isildutako eskuak*) eta Aritz Ibarra (*Aldaxka pozoituak*).



JL BESSONART

Amotzeko kantaldi aparta

Amotzeko kapera leporaino bete da Zaldubi Ikastolak gomitaturiko kantarien entzuteko: Pantxoa, Ugo eta Nahia Carrere, Lascano familia, Aire ahizpak, Maitena eta Meli, Eneko Lamothe, Zaldubi Ikastolako gurasoak... Etekin guziak Intzegrazio Batzordearen alde bideratu dituzte.



**PROMOZIOAK, ZOZKETAK, DESKONTUAK
ETA GABONETAKO PRODUKTU BEREZIAK
GURE DENDETAN.**

IBARDIN - DANTXARINEA - VALCARLOS

  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)





Lesakan irabazi zituen gizonezkoen eta emakumezkoen txapelak. BETI GAZTE



Beti Gazte txapeldunorde Euskal Herriko 4x4 txapelketa mistoan. POTRONKO

Nafarroako sokatira txapel guziak irabazi ditu Beti Gaztek

Donezteben mistoa irabazi ondotik, Lesakan azaroaren 22an irabazi zituen emakumeena seinaka eta gizonena zortzinaka

TTIPI-TTAPA LESAKA

Nafarroako gizonezkoen nahiz emakumezkoen sokatira txapelketako bigarren eta hondarreko jardunaldia azaroaren 22an jokatu zen Lesakako udal pilotalekuan. Gizonezkoak zortzinaka (620 kilo) eta emakumeak seinaka (390 kilo) aritu ziren lehian eta aitzine-

ko asteburuan Antsoainen jokaturako lehen jardunaldian bezala, tiraldi guztiak irabazi zituzten Beti Gazteko emakumeek nahiz gizonek. Beraz, Nafarroako hiru txapelak, mistoa (azaroaren 22an Donezteben), gizonezkoena eta emakumezkoena, irabazi ditu Lesakako taldeak.

Emakumezkoetan, Beti Gazteren ondotik, bigarren izan zen Txantrea, hirugarren Berriozar, laugarren Araxes, bosgarren Amaiur eta seigarren Antsoain.

Beti Gazteko seikotean Amaia Leiza, Onintza Zapiain, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Etxegarai, Naiara Otxoteko eta Maria Iantzi aritu ziren tiran, Kar-mele Pikabea entrenatzaile zutela. Antsoaingo saioan Elena Zabala doneztebarra ere aritu zen.

Gizonezkoetan, Beti Gazte izan zen lehena, Berriozar bigarren eta Txantrea hirugarren. Beti Gazteko zortzikoa, Ander Mitxelena, Xuban Arozena, Beñat Ordoki, Unai Leiza, Iker Pikabea, Beñardo Iantzi, Unai

Gurrutxaga eta Ruben Pedrosa aritu ziren tiran, Oskar Telletxea entrenatzaile zutela.

Euskal Herrikoa launaka

Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketa azaroaren 30ean abiatu zen Antsoainen. Txapelketa mistoa jokatu zuten 280 kiloz beheitiko kategorian eta Txantrea A nagusitu zen. Lesakako Beti Gazte txapeldunorde izan zen eta Bizkaiko Abadiño A taldeak osatu zuen podiuma. Abenduaren 14an emakumeen txapelketa jokatze-koa zuten Antsoainen (Amaiur eta Beti Gazte tartean) eta abenduaren 21ean gizonezkoen txapelketa, 310 kiloz beheitiko kategorian, jokatu-ko dute Muruetan (Bizkaia).



GARFE

Ugaitz Elizalde txapeldun Lesakan

Garfe enpresaren eskuz binakako profesionalen III. Open txapelketako finala jokatu zuten azaroaren 20an Lesakako udal pilotalekuan, ferietako pilota jaialdian. Ugaitz Elizalde iturendarrak eta Arbizuk 22-12 irabazi zieten Pradori eta Merino II.ari, partida bikain baten ondotik.



MAIALEN ANDRES

Aritz Juanenea txapeldunorde Azpeitian

Azpeitiko erremonite txapelketako finala jokatu zuten abenduaren 7an. Lehen jokoa Goikoetxea V.ak eta Aritz Juanenea saldiastarrak irabazi baldin bazuten ere (13-15), bigarrena Ansa II.ak eta Eskudero irabazi zuten (15-14), baita kitarakoa ere (8-3). Ansa II.a eta Eskudero txapeldun.



Paxaka txapelketako lau hirukoteak, antolatzaile eta laguntzaileekin. ONDIKOL



JUAN MARI ONDIKOL

Erratzu nagusitu zaio Oizi XXVI. paxaka txapelketako finalean

Iaz bezala, 9-5 irabazi zioten baztandarrek Malerrekakoei, eta hirugarren postua Iruritak lortu zuen Donezteberi irabazita

TTIPI-TTAPA IRURITA

Laxoa Elkartek antolatutako Nafarroako Paxaka Txapelketako hogeita seigarren edizio-ko finala jokatu zuten azaroaren 30ean Iruritako Aranabia pilotalekuan. Iaz bezala, Erratzuk (Manu Irigoien, Gorka Urtasun eta Kaiet Itoiz) 9-5 irabazi zion Oizi (Ioritz Zelaia, Iker Bereau eta Jon Oiarzabal). Aitzinetik, hirugarren postua lortzeko lehian Iruritak (Mikel Sagaseta, Mikel Mingia eta min hartutako Xabier Barberenaren ordez aritu zen Oscar Urrutia) 9-4 irabazi zion Donezteberi (Jon Apeztegia,

Ugutx Zelaia eta Mikel Telletxea).

Finaleko emaitzak erakusten duena baino berdinduagoa izan zen Erratzuren eta Oizen arteko lehia. Malerrekakoak 4-5 aitzinetik ere izan ziren, baina baztandarrek markagailua irauli zuten. Sari banaketan izan ziren Begoña Goienetxe Iruritako alkatea, Mikel Sagaseta kargoduna, Gorka Urtasun (pilotari ez ezik, Baztango udaleko kirol zinegotzia) eta Laxoa Elkarteko Josu Prim. Baztango Zaporeak-en produktuen zozketa ere egin zuten ikusleen artean.

Baztanek irabazi du futbol derbia...

Nafarroako maila autonomikoan lehen aldiz aurrez aurre izan dira Baztan eta Doneztebe futbol taldeak. Giltxaurdin azaroaren 29an jokaturako derbian, baztandarrek, azken minutuan sartutako golarekin, 2-1 irabazi zieten ordura arte partidarik galdu gabe zeuden doneztebarrei.



ERREKA KE

eta Errekako emakumeek eskubaloikoa

Egun berean, eskubalo derbia ere jokatu zuten Errekako eta Baztango BKTko emakumeek ikusleez gainezka zegoen Doneztebeko kiroldegian. Lehia estua izan zuten eta gol bakarreko aldearekin gailendu ziren Doneztebekoak (28-27). Sailkapenean liderrak dira Errekako emakumeak.

Eguberrietako buruz buruko erremonte txapelketako finala igandean Agoitzen

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak eta E•Remonte Iruña enpresak antolatutako eguberrietako buruz buruko erremonte txapelketa-Martiko Sari Nagusiko finala abenduaren 21ean, igandean 17:00etan, jokatu du Agoitzen Toki Eder pilotalekuan.

Abenduaren 5eko finalerdia Ioni irabazi zion Otano izan den finalistetako bat. Bertzea doneztebarra izan den da. Joan den larunbatean jokatzeko zuten finalerdia Ezkurra pilotalekuan Xanti Uterga iazko txapeldunak eta Eloy Otxandorenak elkarren kontra.



Final laurdenetan Agoitzen, Sagaseta, Mitxeo, Otano eta Otxandorena.

ABENDUAK 18 - URTARRILAK 15

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

ANTZERKIA

LEITZA

Promesarik txikiena

Herri aretoan, urtarrilaren 9an,
19:00etan.

AZOKAK

LESAKA

Artisau azoka

Plaza zaharrean, abenduaren
21ean, 10:00etan.

BERTSOAK

BERA

**Bortzirietako Taldekako
Bertsolari Txapelketa**

Abenduaren 27an. Xehetasunak
15. orrialdean.

ELIZONDO

Berto saio musikatua

Arizkunenean, abenduaren
27an, 18:00etan. Xehetasunak
72. orrialdean.

DOKUMENTALAK

GOIZUETA

**'Bularretik ehundutako
aitortzak'**

Udaletxeko ganbaran,
abenduaren 21ean, 17:30etan.

DONEZTEBE

'Zazpi'

Zineman, abenduaren 26an,
19:00etan.

LEITZA

'Non dago Mikel?'

Atekabeltzen, urtarrilaren 3an,
18:30ean.

LESAKA

'Gutun bat Kottori'

Harriondoa Kultur Etxean,
urtarrilaren 4an, 16:00etan.

BERA

'Zazpi'

Kultur Etxean, urtarrilaren
10ean, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

Tutti-magia

Hodei Magoaren eskutik.
Gizarte Bilgunean, abenduaren
21ean, 17:00etan.

LEITZA

NUUR

Zirku ikuskizuna.
Herri aretoan, urtarrilaren 11n,
18:00etan.

KIROLA

BERA

San Silvestrea

Abenduaren 31n, 18:00etan.

Santa Barbarara kronoigoera

Urtarrilaren 11n, 15:00etatik
aitzinerara.

DONEZTEBE

Futbito txapelketako finala

Kiroldegian, abenduaren 31n,
18:00etan.

LEITZA

San Silvestea

Abenduaren 31n, 16:30etik
aurrera.

MENDI IRTEERAK

DONEZTEBE

Saioara

Abenduaren 24an.

Mendaurrera

Abenduaren 31n.

BERA

Larhunera

Abenduaren 31n, goizean.

GOIZUETA

Mandoegira

Herriko plazatik, abenduaren
31n, 08:00etan.

MUSIKA

BERA

Eguberrietako kontzertua

Isidoro Fagoaga udal musika
eskolaren eskutik.
Elizan, abenduaren 17an,
18:00etan.

Anari

Kataku ostatuan, abenduaren
20an, 12:30ean.

Zotal Total jaialdia

Kataku ostatuan, abenduaren
27an, arratsaldean.

GOIZUETA

Gabonetako kontzertua

Umore Ona abesbatzaren eta
herriko gaztetxoaren eskutik.
Elizan, abenduaren 19an,
19:00etan.

LEITZA

Eguberrietako kanta

Aralar Musika eskolaren eskutik.
Karrapean, abenduaren 19an,
16:30ean.

PILT

'Neguan Atekan hotzik ez'
zikloaren baitan.
Atekabeltzen, abenduaren 20an,
22:30ean.

**Jeiki abesbatzaren
gabonetako kontzertua**

Elizan, abenduaren 27an,
19:00etan.

OSPAKIZUNAK

BERA

Goldatzen X. urteurren besta

Abenduaren 20an. Xehetasunak
17. orrialdean.

XIX. Mendiaren Eguna

Urtarrilaren 10ean. Xehetasunak
19. orrialdean.

LESAKA

**Olentzero eta Jaiotzen
lehiaketa**

Plaza zaharrean, abenduaren
24an, 12:00etan.

SOLASALDIAK

BERA

**'Patxi Vila, nire egunerokoa
lehiaketa eta lehiaketatik
kanpo'**

Txirrindulari ohiarekin.
Kultur Etxean, abenduaren 27an,
18:00etan.

ARESO

**Landa eremuko herrien
erronkak**

EH Bilduko Mikel Zabaletarekin.
Eskoletxean, urtarrilaren 23an,
18:00etan.

ZINEMA

LEITZA

'Kayara, Inka gerlaria'

Herri aretoan, abenduaren 20an
eta 21ean, 17:00etan.

'La voz de Hind'

Herri aretoan, abenduaren 20an
eta 21ean, 19:30ean.

'Barrakudaren altxorra'

Herri aretoan, urtarrilaren 3an
eta 4an, 17:00etan.

'Todos los lados de la cama'

Herri aretoan, urtarrilaren 3an
eta 4an, 19:30ean.

BERA


'Ombuaren itzala'

Filmaren proiektzioa eta
solasaldia.
Kultur etxean, urtarrilaren 16an,
19:00etan.

NIRE AUKERA

«Bertako ospakizunetan parte hartuaz ezagutzen da benetan herri bat»

HIDE DOHINO ZUGARRAMURDI MAITE DUEN JAPONIARRA



UTZITAKO ARGAZKIA

Hamar mila kilometro baino gehiagoko distantzia dago Japonia eta Euskal Herriaren artean. Badira, ordea, uste-kabeen sortu eta distantziak hautsi ezin dituen loturak: «Japonian nago orain, baina urtean bizpahiru aldiz Euskal Herrirat joaten naiz ikerketan aritzera eta ahal dudan guztietan joaten naiz Zugarramurdirat bisitan».

Duela hogeita hamaika urte, Yokohaman (Japonian) jaio zen Hide Dohino eta historia eta antropologia ikasteko Madrilan urtebetez eta Oñatin bi urtez bizi izan zen. Hain juxtu, Oñatiko ostatu batean lanean ari zela suertatu zitzaion Zugarramurdi hobeki ezagutzeko aukera: «Zugarramurdiko herritar bat etorri zen lan egiten nuen ostaturat eta euskaraz hain ongi solastatzen nintzela ikustean harrituta

gelditu zen. Solasaldia luzatu zen, Zugarramurdirat gonbidatu eta hortxe hasi zen Zugarramurdirekin harremana».

Lehendik ere egona zen Zugarramurdi, baina «bertze turista aunitz bezala pasa» omen zen herritik, «gehiago sakondu gabe». Dena den, deigarria iruditu zitzaion lehenbiziko aldi hartan ere Japonian ohikoa ez den errealitate bat: «Mugak harritu ninduen. Japonia uhartea denez, ez da eguneroko bizitzan muga sentitzen». Ikerlari senak mugituta mugak zenbaiterainoko eragina zuen ikusi nahi izan

«SAIATZEN NAIZ BERTAKO HITZAK ETA DOINUA KOPIATZEN»

zuen: «Zugarramurdiko herritarrek auzoko herritarrekin duten harremana zein den ikertu nahi izan nuen. Berezia da ikustea muga hor egon arren, natura eta kultura ezin direla banatu muga administratibo, politiko eta artifizial horrekin».

Herria benetan ezagutuz

Gerora, herria eta herritarrek sakonago ezagutzeko aukera izan du: «ospakizunetan parte hartuaz, Zugarramurdi ongi ezagutzeko aukera izan dut». Argi dio: «egun normal batean joanez gero, ez duzu herria ezagutuko. Bertako ospakizunetan parte hartuaz ezagutzen da benetan herri bat. Besta giro hori aukera polita da jendea ezagutzeko». Aitor-tu du hasieran bertakoak eta bisitariak bereizteko lanak izan zituela: «hasieran ez nekien zeintzuk ziren bertakoak, eta zein ez», baina ibilian ibiliz, ezezagunak ezagun bihurtzea lortu zuen. Horren erakusle da Zugarramurdiri buruz galdetzean, osatu duen zerrenda: «gustuko leku bat aipatu beharko banu, Anttonen Benta! Eta, nola ez, maite dut Palaxioan adin guztietako jendearekin elkartzeara! Baita inauteriak eta herriko bestak ere, eskean ibiltzea eta zikiro jana!».

Euskara

Euskara ere altxor preziatua da beretzat: «bertako euskara entzutea da Zugarramurdirat joandakoan gehien maite dudana gauzetako bat». Entzun eta solastatu: «hango lagunak Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskalkiari buruzko liburu

oparitu zidanez, saiatzen naiz bertako hitzak eta doinua kopiatzen». Euskal Herrira etortzean, argi izan zuen euskara ikasi nahi zuela: «Zergatik ez dut ikasiko bada? Gauza berriak ikastea ederra da. Leku berri batera joanez gero, bertako jendearekin egon eta bertakoengandik ikastea garrantzitsua iruditzen zait».

Toki bakar batean, hiru hizkuntza entzuteko aukera izatea ere bitxia da beretzat: «Japonian herrialde bakoitzean hizkuntza bakar bat bakarrik hitz egiten denaren ideia barneatuta dudelako jende aunitzek. Ulertu gabe ere ongi naiz hemen. Bertako musika entzun eta ez naiz asperitzen».

Urte zahar eta berria

Europako egutegi berbera dute Japonian ere eta urte zaharra eta berria ospatzeko hainbat erritu dituzte: «Osoji deituriko garbiketa sakona egiten dugu eta apaingarri bereziak ere jartzen ditugu: *kadomatsu*, *shimenawa* eta *kagamimochi*». Urteko lehenengo egunean, berriz, jende asko joaten omen da egunsentia ikustera eta gero tenplu edo santutegi batera: «Bertan pasa den urtekoa esker-tu eta urte berri ona ekartzeko eskatzen dugu».

Ez dakigu urtarilaren 1ean Zugarramurdiko lagunei bidaliko dien mezuan *akemashite omedeto gozaimasu* edo *urte berri on* idatziko ote duen. Bertsotan hasiko da, akaso. Ez litzateke lehenbiziko aldia izan, ezta azkenekoa ere. Bertsotarako laguna falta du, ordea, «bitxia da Zugarramurdi bertsolaririk ez izatea». Eta hala, hordagoa luzatuz idatz die bertsoa: «Kantatuko dut sentitu izana, ni joan nintzenean harat/bertsolaritza gazteen artean, nonbait dago modatik at/kantatzerat ez da animatzen inor, ez Ganix, ez Xabat/mani-farako lelo berria, herri bat, bertsolari bat».

«GARRANTZITSUA IRUDITZEN ZAIT BERTAKOENGANDIK IKASTEA»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

EROSI

Herriko etxea, baserria, errota, borda... erosiko luke. Igual du ze egoeratan eta non dagoen. ☎693 69 49 76.

ERRENTAN HARTZEKO

Hiru alaba nerabe dituen emakumezkoa etxebizitza bila. Arduratsua eta errenta ordaintzeko arazorik ez duena. ☎624 23 43 76.

MALERREKA. Pisu bila. ☎648 90 84 23.

ELIZONDO. Emakume arduratsua eta langilea Elizondon errentan hartzeko edo partekatzeko etxebizitza bila. ☎677 10 09 91.

BAZTANen etxe, pisu edo apartamentu bila. Neska arduratsua. ☎622 40 21 95.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Bidasoa karrikako 43-3Bn 65 m²ko pisua errentan emateko, konpartitzeko. Logela pertsonako eta bertze guzia konpartitzeko. Bertetik, 12 m²ko trasteleku itxia egokitua eta 8 m²ko marra kotxea uzteko. Dena independente. Informazio gehiago Whatsappez.. ☎687 92 64 14.

BERA. Pisua errentan emateko, garajearekin. Informazio gehiago WhatsAppez. ☎637 91 51 58 / 630 45 73 47.

LANA

ESKARIAK

Eskualdean emakumea adinekoak zaintzen ariko litzateke. Interna aritzeko ere prest. ☎642 65 97 00.

Hilabetean bi asteburutan adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientzia duena eta erreferentziarik. ☎624 69 51 80.

Kolonbiako neska bat lanean aritzeko prest (haurrak edo adinekoak zaintzen eta garbiketari...). Interna ere ariko litzateke. ☎671 21 93 30.

Emakume euskalduna lan bila, garbiketari egiteko bai sukaldean aritzeko, 09:00etatik 13:00etara. ☎660 60 12 15.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Ama mastin eta euskal artzain zakurren nahasketa eta aita Border Collie duten bi zakurkume oparitzeko, biak emeak dira. ☎642 35 52 01.

BERTZELAKOAK

Gaitzets edo sobra diren bildotsak hazteko hartu nahian. ☎659 51 43 44.

SALGAI

Hamabi ardi mutur gorri ernari salgai. ☎607 89 09 66.

**MENDIKO LANAK ETA LOREZAINNTZA**
ESKATU ZURE AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!
ARBOLAK MOZKETA ETA KIMAKETA ALTUERAN
ESKUZ ETA MAKINAZ EGINDAKO LURSAILEN GARBIKETAK
HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA ETA KUDEAKETA
ARBOLAK IPURDITIK ATERTZEA
GUNE BERDEEN SORRERA ETA LOREZAINNTZA LANAK
ITXITURAK PIKETEEKIN
☎ 603 581 326 | BERA
✉ arboriculturajuanete@gmail.com
📱 @arboriculturajuanete

**BERA KOU DALA**
XEHETASUN-AZTERKETA 9. POLIGONOKO 252. LURZATIAN. HASIERAKO ONESPENA.
2025eko azaroaren 7ko 336 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasiera-ko onespena eman zaio 9. poligonoko 252. lurzati (Azkaine karrika 2) xehetasun-azterketari. Maria Michelena Echeverria da sustatzailea.
1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekina) 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz, espedientearen jendaurrean izanen da hogoien egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ematen denetik hasita; epe horretan espedientearen interesdunen eskura egonen da, alegazioak aurkeztu ditzaten.
Iragarkia argitaratu da 2025/11/20ko NAO-n (233. zenbakia).
Bera, 2025-11-20
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña



Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. Bi ar: batek bi begiak urdinak eta bertzeak begi bat urdina. Aita eta ama Border Collie arrazakoak. Azien-dekin arras ongi ibiltzen direnak. 500 euro bakoitzak. ☎687 95 03 50.

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

LESKA. Mendiko lur eremua erosi nahi dut. Berdin zait egoeratan dagoen. ☎680 48 39 27.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago eta haritz egur idorra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako. Etxera eramateko zerbitzua. ☎690 08 56 65.



National Geographic teleskopioa salgai. Erabili gabea. Prezio onean. ☎657 79 72 32.

Akazia piketeak salgai. ☎648 28 27 53.



Arraun makina salgai, berri-berria. Garantiarekin oraindik. Dudak argitzeko Whatsappez bidez. ☎636 18 15 46.

Belarra salgai. Fardo ttikietan. ☎619 33 48 88.

KONTATU KONTUAK

**Errigorako sarituak Julene Arburua eta Ekhiotz Zubieta.**

Aurten ere erantzun ederra izan du Errigorako bi saski lortzeko TTPI-TTAPAK ERRAN.EUSEN egindako lehiaketak. Galderak zuzen erantzun zituztenen artean, zozketa egin zuen eta Julene Arburua Fagoaga eta Ekhiotz Zubieta Bertiz izan dira sarituak. Zorionak eta gozatu!



ARNASA GARA

Leitzako institutuko ikasleek sarituak. IV. Arnasetik bideosormenten lehiaketaren sari banaketa Leitzako Herri Aretoan egin zuten azaroaren 27an, eta sari batzuk etxean gelditu ziren: DBH 3-4 mailan, Amazabal Institutuko ikasleek jaso zuten saria *Leitza Herrimina* lanagatik, eta Leitzako Udalaren saria Amazabalgo Aresoko eta Leitzako ikasleentzat izan zen, *Euskara Arnastuz* lanagatik.



UTZITAKO ARGAKZIA

Auzolana Goizuetako eskolan. Auzolanerako deia egin zuten azaroaren 22an Goizuetako eskolak, guraso elkarteak eta udalak eta pozik gelditu ziren erantzunarekin: «Auzolana arrakastatsua izan zen. 50 bat lagun bildu ginen eta bistan da, emaitza ezin hobeia izan zen». Eskerrak eman nahi izan dizkiete auzolanean parte hartu zutenei, «denbora eta borondatea eskaintzeagatik».



UTZITAKO ARGAKZIA

Mikel Zabalza gogoan Enderlatsan. Mikel Zabalza hil zutenetik 40 urte pasatu direla oroitzuz, abenduaren 8an ekitaldi hunkigarria egin zuten Enderlatsan, Zabalzaren gorpua Bidasoa ibaira bota zuten tokian. Hitzorduan, Zabalzari ez ezik, Euskal Herriko torturatu guziei omenaldia egin nahi izan zieten. Herritar saila bildu zen.



IRUNE ELIZAGOIEN

Berbaxerka lehiaketa Etxalarren. Abenduaren 3a, Euskararen Eguna izaki, herritarren artean Berbaxerka lehiaketa martxan paratu zuen Altxata Etxalarko kultur eta kirol elkarteak. Parte hartzaileen artean, argazkian ageri den Mireia Malaxetxebarria izan zen puntuazio altuena lortu eta produktu saskia irabazi zuena.



JOSE RAMON AMOROS

Udazkeneko lehenbiziko elurraren arrastoak eskualdean. Eguraldi iragarpenak bete, eta azaroaren 21eko goizean bazterrak zurituak zituztela ernatu ziren eskualdeko hainbat herri. Argazkia Arantzan hartutakoa da, baina bertzeak bertze, Areson, Ezkurran, Leitza edo Goizuetan ere, irudi ederrak utzi zituen elurrak. Argazki gehiago ERRAN.EUS-en.

OROIGARRIA



**Jose Carlos
PIKABEA ETXEBESTE**

Beran, 2025eko azaroaren 22an

*Izar berri bat biztu duzu zeru gainean,
haren argia izanen dugu oroimenean.*

ALAIAK TALDEA

URTEURRENA

**Paquita
URTIZBEREA ETXABIDE**

1944/08/09-2018/01/09
VIII. URTEURRENA

*Zurekin pasatutako egunak,
beti kontzen ditut buruan.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Jabier
BERTIZ ELIZONDO**

Igantzin, 2025eko urriaren 28an, 62 urte zituela

*Nahiz ta bizitzak estali digun
Zure hutsunea zauriz
Nahiz ta bizitzak jarri gaituen
Zureganako egarritz
Josiko dugu gure bidea
Zuk nahi zenukeen neurritz
Loak hartuko gaitu amesten
Ohikoa zenuen irriz
Eta goizean zure ondoan
Ernatuko gara berriz.*



*Besarkada bat gure ondoan
izan den zuetako bakoitzari.*

ZURE FAMILIA

URTEURRENA



**Perpetua
ARBURUA ITURRIA**

2019ko abenduaren 11n hil zen,
92 urte zituela.

VI. URTEURRENA

*Ama, amatxi maitea,
betiko joan zara
baina bizi garen bitartean
zutaz oroituko gara.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Mª Jose
TELLETXEA OTXOTeko**

Lesaka-Donostia, 2025eko azaroaren 29an,
62 urte zituela

*Gure tartetik joan zara,
gure tartean egoteko.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Asier
SARAGUETA
IRAZOKI**

*Bizipozaren mugetan daude
Tristurak ta Zorionak
Ezingo ditu deusean utzi
Oraingo ezinegonak
Maite zaitugu gurekin dira
Zure irrifar sakonak
Jostalari bihurriaren
Jolas, irri eta bromak
Bertsotan ere bildu zituen
Kuadrilako Jatun onak
Irrifarrea du aurpegian
Zuri begira dagonak.*

OROIGARRIA



**Doñi
ARRIETA ZALAKAIN**

✿ 1972-01-02 / 2025-11-22 ✿

*Ez ditugu ahaztuko
zuk emandako urtik eta maitasunak.
Bikote paregabea, ama zoragarria
ta lagun ikaragarria.
Zure iribarra, poza ta alaitasuna
beti egonen dira gurekin.
Eskerrik asko, Doñi.*

**IXAK, FERMIN, MARTINA, LESAKAKO
ETA OIARTZUNGO FAMILIA**

Oroigarriak




- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

KULTURKARI
Txarra gurea, I. Pablosen
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

HILBERRIAK

- **Dominique Guillaume**, Sarakoa, azaroaren 16an, 67 urte zituela.
- **Jose M^a Aldabe Rekarte**, Igantzikoa, azaroaren 18an, 67 urte zituela.
- **Baxili Etxeberria Azkarraga**, Arizkungoa, azaroaren 20an, 83 urte zituela.
- **Paki Ibarburu Lekuona**, Lesakakoa, azaroaren 20an, 75 urte zituela.
- **Doniñe Arrieta Zalakain**, Lesakakoa, azaroaren 22an, 53 urte zituela.
- **Jose Carlos Pikabea Etxebeste**, Berakoa, azaroaren 22an, 55 urte zituela.
- **M^a Teresa Ezurmendia Hualde**, Erratzukoa, azaroaren 22an, 94 urte zituela.
- **Jose Antonio Martiarena Sein**, Elgorriagakoa, azaroaren 22an, 58 urte zituela.
- **Eusebio Gonzalez Lopez**, Elizondokoa, azaroaren 24an, 97 urte zituela.
- **Santiago Alzuiet Etxeberria**, Urdazubikoa, azaroaren 25ean, 82 urte zituela.
- **Luis Narbarte Petrikorena**, Aranokoa, azaroaren 26an, 95 urte zituela.
- **Joxe Zabaleta Caballero**, Ezkurakoa, azaroaren 28an, 79 urte zituela.
- **M^a Jose Telletxea Otxoteko**, Lesakakoa, azaroaren 29an, 62 urte zituela.
- **Isabel Maritxalar Iturria**, Lesakakoa, azaroaren 30ean, 93 urte zituela.
- **Joxe Mari Etxarte Aiestaran**, Lesakakoa, abenduaren 1ean, 57 urte zituela.
- **Maria Josefa Eugi Elizaintzin**, Lekarozkoa, abenduaren 2an, 93 urte zituela.
- **Juana Ado Telletxea**, Berakoa, abenduaren 2an, 79 urte zituela.
- **Cecilio Martin Gomez**, Lekarozkoa, abenduaren 3an, 82 urte zituela.
- **Elena Ramirez Mitxelena**, Elizondokoa, abenduaren 4an, 88 urte zituela.
- **Francisca Danboriena Riezu**, Elizondokoa, abenduaren 6an, 97 urte zituela.
- **Paco Valer Erdozain**, Arizkungoa, abenduaren 6an, 93 urte zituela.
- **Sabina Mitxeltorena Atxa**, Doneztebekoa, abenduaren 7an, 87 urte zituela.
- **Fermina Etxaide Aleman**, Iruritikoa, abenduaren 7an, 89 urte zituela.
- **Rosario Agesta Larretxea**, Arantzakoa, abenduaren 9an, 64 urte zituela.

URTEBETETZEAK



Zorionak, **Enaitz!** 6 urte bete dituzu eta gure bihotzak betetzen dituzu pozarekin. Maitasuna eta muxuak, aitatxo, amatxo, Naia zure arreba eta Goizueta eta Errumaniako familia osoaren partez.



Aunitz urtez, **Oinatz!!!** Abenduaren 15ean 10 urte beteko baitituzu!! Muxuak etxeko guzien partetik, baina bereziki Aiora eta Urkoren partetik!!



Iraia Pikabea Orbegozo arantzarak 3 urte beteko ditu abenduaren 20an! Aunitz urtez, polita! Hiru muxu handi Azpeitiko eta Arantzako familien partez.



Gorka Etxarte Abuin lesakarrak abenduaren 15ean 8 urte bete ditu. Zorionak eta muxu potolo bat familiaren partez, batez ere Silbiaren partez.

Baztan Bidasoa
Ehorzketak



BAZTAN
ELIZONDO - Santiago Kalea, 79
MALERREKA - DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraia



TANATORIOAK

ELIZONDO BERA DONEZTEBE
ARANTZA IGANTZI


24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN

ALDEA DAGO

Erreparatu ongi bi irudi havei, eta aurki itzazu bien ateko aldeak. Zazpi dira guztira.




SUDOKUA

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ETXOLA hitza osatzen duten letrak erabiliz. Kontuan izan letra bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Marrakziak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)



Ttípi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU TRUK

% 80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.erran.eus/kideak

891 zenbakiko
irabazleak >

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola

72673152-A

apemuga 2027/04

zk. 372

ttipi-ttapa

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Loli Txantre Errandonea | BERA

Puntutan - Kamiseta bat

Rakel Urtxegi Gelbentzu | SUNBILLA

Buatxabal - Kamiseta bat

Eli Urbistondo Sein | IGANTZI

Arantza Hotela - SPArako sarrera bikoitza

Iñaki Iantzi Maritorena | ANIZ

Hara Bi - Kamiseta bat

Mikel Ariztegi Agesta | DONEZTEBE

Arrate - Lote bat

Mari Atxa Mindegia | ELIZONDO

Lesakako Udal Kiroldegia - Bi sarrera

Aitziber Lizardi Mutuberria | ARANTZA

Anikote - Spinning saioa

Juana Mª Saizar Telletxea | ARESO

Arrauning - Jarduera bat aukeran

Xabi Erbiti Saizar | LEITZA

Pamiela - Liburu bat

Begoña Etxalar Etxaide | ALMANDOZ



Eguberrietako zozketak



1. LOTEA



Donostiako AQUARIUMA bi sarrera + PUNTUTAN kamiseta + EZ KEXA kamiseta + ZUGARRAMURDI lezeetarako sarrera bat + AMA UR lotea
BAGA-BIGA bi CD + ONDDO eta PUNTO kamiseta + BKZ ABENTURA sarrera bat + ARANTZA HOTELA SPA sarrera bikoitza + HARA BI poltsa

2. LOTEA



MARTIKO lotea + SALTING bi sarrera + GILTXAURDI bi pertsonendako eguneko sarrera + TABERNA EDARIAK lotea + ARKUPE lotea + MENDUKILO bi sarrera + ELKAR bi liburu
+ IRRISARRI LAND bi sarrera + ARRAUNING irtera gidatua kanoan + MUGARKI rokodromorako sarrera bikoitza + KATXIPORRETA puzzlea + HARA BI poltsa eta kamiseta

3. LOTEA



MARTIKO lotea + SALTING bi sarrera + LESAKAKO KIROLDEGIA bi sarrera + BIDASOIL 30 €ko opari txartela + IRRISARRI LAND bi sarrera + KIMETZ oparia
MENDUKILO bi sarrera + OKILLE TAILERRA eguzki lorea + HARA BI kamiseta eta poltsa + KATXIPORRETA mapa erraldoia eta liburua

ALKAIN  SUKALDEAK

ZURE SUKALDEA
EDOZEIN DELA ERE,
ALKAINEN
DAGO
kalitate-prezio
harreman ezin
hobearekin.

*Txundituta
geldituko zara.*



**600 M²-KO
DENDA BERRIA**

Abenduaren 19tik

**APROBETXATU
IREKIERA DESKONTUAK**



ALKAIN HONDARRIBIA
Amutalde kalea, 9

alkain.com